

[illegible]DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

[illegible]

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

- Argitaraldia:** 1.a, 2012ko urria
- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
- Internet:** www.euskadi.net
- Argitaratzeila:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
- Itzulpena:** Lete Itzulpenak Traducciones
- Diseinua
eta maketazioa:** Canaldirecto • www.canal-directo.com

AURKIBIDEA

1. SARRERA	6
1.1. Aldaketa estrategiko baten premia	9
1.2. Gizarteratze aktiboko euskal planaren ikuspegia eta jardun printzipioak	12
 2. EAEN POBREZIARI ETA GIZARTE BAZTERKERIARI LOTUTAKO PROBLEMATIKAK	 16
2.1. Sarrera	17
2.2. Pobrezia eta bazterkeria faktoreak	19
2.2.1. Pobreziaren moneta-ikuspegia EAEn	19
2.2.2. Pobreziaren ikuspegi subjektiboa EAEn	19
2.2.3. Pobreziaren ikuspegia multidimentsionala EAEn	20
2.2.4. Pobreziaren lurralde-ikuspegia EAEn	21
2.2.5. Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren biztanleria-profilak EAEn	21
2.3. Hurbilketa sintetikoa eta epe luzerako: AROPE adierazleen dinamika EAEn	22
 3. GIZARTERATZE AKTIBOKO EUSKAL PLANA 2012-2016	 28
3.1. Gizarteratze aktiboko euskal planaren xedea	29
3.2. Helburu estrategikoak, helburu orokorrak eta jardunak	32
3.3. Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planaren (GAEP) jarraipena eta ebaluazioa	78
3.4. Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren finantziazioa	96

[illegible]

Euskadin, pobreziaren aurka eta gizarteratzearen alde borrokatzeko esperientzia pobreziaren aurkako borrokarako lehen plangintza bateratuaren eskutik hasi zen (1988). Dokumentu horretan gutxieneko errentei buruzko lehen programaren sorrera jaso zen, garai hartan familiaren gutxieneko diru-sarrera esaten zitzaiona (1989)¹. Ondoren, gizarte-bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legeak Gizarteratzeko lehen euskal Plana landu beharra hartu zuen aintzat. Harrez geroztik, pobreziaren eta bazterkeriaren aurkako borrokak jarraipena izan du gizarteratzeko planak sortu eta gizarte-zerbitzuen sistema poliki-poliki sendotu ahala. Zehazki, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeak eta 2007-2009 aldiko Gizarteratzeko Erakunde arteko azken Planak aurrerapen esanguratsua ekarri dute bai gizarte-zerbitzuen euskal sistema zehaztu, ezagutzera eman eta sendotzeari dagokionez, bai euskal sistemak pobrezia ekonomikoari aurre egiteko eskainitako babesari dagokionez.

Izan ere, Euskadi da, Nafarroako Foru Komunitatearen atzetik, Estatuko pobrezia-arriskuko tasa txikiena duen lurraldea². Gainera, beheranzko joera argia erakutsi du 2008. urtera arte, neurri handi batean gizarte-transferentzien gorakada handiaren eraginez. Hala ere, krisialdi ekonomikoak joerari buelta eman dio eta pobrezia-tasak igo ditu azken hiru urteetan. Izan ere, Bizi Baldintzei buruzko Inkestaren arabera, arrisku-adierazlea 2008ko % 8,5etik 2009ko % 9,4ra eta 2010eko % 11,6ra igo da. Gainera, Gizarte Premiei buruzko Inkestaren (GPI) datuek³ berretsi egin dute pobreziak eta ongizaterik ezeko egoeren goranzko joera hori.

Hurrengo ataletan, Gizarteratze Aktiboko Euskal Plan honen garapena eragin duten arrazoiak sakonetik aztertu ditugu, baita planak Euskadiko gizarteratze- eta laneratze-politikei dakarkien aldaketa estrategikoa aztertu ere. Hori ez ezik, plana diseinatu eta egitean aintzat hartutako printzipioak eta ikuspegia ere aurkeztuko dizkizuegu: bazterkeria- eta gizarteratze-prozesuen ikusmolde multidimentsionala, eskubide bikoitzaren bermea, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren arteko aldea, gizarteratze aktiboaren ikuspegia eta metodoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren gidaritzapean egonik sistema guztien erantzukizuna den Plana, eta sarbide unibertsala eta normaltasuna pertsonekiko arretan.

Dokumentu honen edukiari dagokionez, behin sarrera hau egin ostean, bigarren atalean, Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantz EAE) gizarte-bazterkeriari eta pobreziari lotutako problematiken egungo egoerari buruzko diagnostikotik lortutako emaitzak laburbilduko ditugu.

Behin Plan hau justifikatzen duten arrazoiak eta premiak, Planaren oinarriak, eta, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren alorreko abiapuntuko egoera zehaztu ondoren, hirugarren atalean Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana garatzeari ekin diogu.

Plan hori Gizarteratze Aktiborako Erakunde arteko Batzordeak aurkeztutako proposamenean oinarrituta landu da, 2011ko abenduaren 2ko bileran onartutako proposamenean⁴.

¹ 39/89 Dekretua, otsailaren 28koa, Familiaren Gutxieneko Diru-sarrera ematea arautzen duena. Urtebete geroago izena aldatu zioten, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerak deitzeko. 2/1990 Legea, maiatzaren 3koa, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerei buruzkoa.

² Bizi Baldintzei buruzko Inkestaren (BBI) erabilitako adierazleen arabera, alde hori ez da oso argia, hain zuzen ere inkestak ez dituelako ongi jasotzen gutxieneko errenta bidezko diru-sarrerak, eta horiek erabakigarriak dira bi autonomia-erkidego horietan arriskuan dauden kolektiboen baliabideei dagokionez.

³ Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren 2010eko Gizarte Premiei buruzko Inkestako datuak aurkeztu dira, Emaitzei buruzko Txosten Orokorra-ren bertsioan, oraindik argitaratu gabea.

⁴ Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, 95 d) artikuluan aurreikusten du Erakunde arteko Batzordeak landuko duela Gizarteratzeko Euskal Planaren proposamena.

Plana **bederatzi helburu estrategikotan** egituratu da, eta horietatik bost bat datoz planaosatzen duten sistemekin:

1. **Pertsona kalteberenei gizarteratze eraginkorra sustatzea enpleguaren aktibaziotik abiatuta, pobrezia eta gizarte-bazterkeria murrizteko, errenta-maila duina ziurtatuz eta enplega daitezkeen pertsonen enplegu duina lortzeko aukera emanez⁵.**
2. **Gizarte Zerbitzuetatik aktibazioaren bitartez gizarteratzea sustatzea, pertsona, familia eta talde guztien gizarte-integrazioa, autonomia eta gizarte-ongizatea ahalbidetzeko, prebentziozko eginkizun sustatzaile, babesle eta laguntzaileen garapenaren bitartez, eta harremanetarako funtsezko prestazio eta zerbitzu pertsonalen bitartez, eskaintzen dituzten zerbitzuak indartuz kalteberatasun, arrisku eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeretan.**
3. **Aktibazioaren bidezko gizarteratzea sustatzea bizitza osoke hezkuntzatik abiatuta.**
4. **Gizarteratze aktiboa sustatzea etxebizitza-politiken zerbitzuetatik.**
5. **Gizarteratze aktiboa sustatzea osasunetik, honako helburu hauek dituzten neurriak eta ekintzak ezartzearen bitartez: berdintasuna osasun-zerbitzuekiko sarbidean, gizarte-bazterkeriako egoeren prebentzioa, eta gizarteratzearen eremuan inplikaturiko agenteekiko koordinazioa.**

6. **Modu egonkorrean artikulatzea eta administrazioen arteko eta sailen arteko koordinazio eta lankidetzaren multistemaren sustatzea, baita gobernantza parte-hartzailea ere, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko.**
7. **Hirugarren sektorearen esperientzia aintzat hartzea eta indartzea, gizarte-aktibaziorako eta gizarte parte-hartzerako aldaketaren aldeko agente sustatzailea den aldetik.**
8. **Diru-sarrerak bermatzeko, enplegu eta prestakuntzako politikak berritzeko eta horien plangintza estrategikorako txostenak eta azterlanak egitea, aktibaziorako eta laneratzeko lagungarriak diren ikuspegi berriak zehaztuz.**
9. **Indarrean dagoen arau-esparrua egokitzea, gizarteratze aktiboko prozesuak antolatu eta ahalbidetzeko.**

Helburu estrategi horiek, era berean, helburu orokorretan garatu dira, eta horiek, beren aldetik neurrietan edo jardunetan. Horri dagokionez aipatzekoa da, alde aurreko esperientzia aprobetxatzeko, esfortzuak ez bikoizteko eta gainerako politika publikoetan gizarteratze aktiboko politiken zeharkakotasuna ahalbidetzeko helburuarekin, autonomia-erkidegoaren administrazioak euskal gizarteari orain artean eskaini dizkion baliabideak hartu ditugula aintzat, hala nola Plan honetan aurreikusitako jardunak zehazteko dagoeneko abian dauden sektoreko edo zeharkako planak eta estrategiak.

⁵ Lan duinaren kontzeptua oraindik ere eraikitze-fasean badago ere, Lanaren Nazioarteko Erakundearen iritziz, lan duin batek honako ezaugarri hauek bete behar ditu: produktiboa eta segurua izatea, lan-eskubideak errespetatzea, diru-sarrera egokiak ematea, eta gizarte-babesa, gizarte-elkarbizitza, askatasun sindikala, negoziazio kolektiboa eta parte-hartzea bermatzea. Era berean, Espainiako Konstituzioaren 35 artikulua maila berean kokatzen ditu lana izateko eskubidea eta lan egiteko betebeharra, lanbidea aukeratzeko askatasunarekin, lanaren bitartez mailaz igotzea, eta soldata nahikoa.

1.1. ALDAKETA ESTRATEGIKO BATEN PREMIA ETA EGOKITASUNA

Eskura dauzkagun datuen arabera, 2004tik 2008ra bitarte pobrezia-tasak murriztu egin baziren ere, prestazioak jasotzen dituzten etxekoen unitateen ehunekoak eta pertsona bakoitzeko gastuak gora egin du, eta, aldi berean, krisialdi ekonomikoaren intzidentziak pobrezia-tasen gorakada eragin du azken urteetan.

Pobrezia erlatiboari dagokionez⁶, 2010ean pobrezia-arriskuan zeudenak % 11,6 ziren, eta 2004an, berriz, % 11,2. Azpimarratzekoa da, nolahi ere, 2008an adierazle hori % 8,5 zela, krisi ekonomikoaren inaktuaren erakusgarri argia. Bestetik, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (pobrezia murrizteko tresna indartsuena netako bat, kopuruaren eta norainokoaren arabera) hartzaileen kopurua bikoiztu baino gehiago egin da 2004. urteaz geroztik, 24.000 hartzaile izatetik 2010ean 55.000 izatera igaro dela aintzat hartzen badugu.

Gizarteratze-ekintzak bultzatu eta kudeatzen dituzten gizarte-zerbitzuen lanak balioespen positiboa merezi du, diru-sarrerak bermatzeko sisteman pertsonen egoera aztertu eta hobetu ahal izan dutelako, gizarte-politikaren babes-ekintzarekiko koherentzia gordeta.

Hala ere, gizarte-bazterkeriako egoeran edo egoera horretan erortzeko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen inguruko balioespina hobetu egin daiteke, detektatutako zenbait fenomenori dagokienez.

- Zehazkiago, egungo krisi ekonomikoaren iraunkortasunak erronka berriak dakartza pobrezia eta gizarte-bazterkeria babesteari dagokionez. Horren haritik, zenbait biztanleria-profilek pobrezia- eta bazterkeria-arriskuan dauden taldeak izaten jarraitzen dutela egiaztatu da, eta, bestalde, arrisku-talde bihur litezkeen beste zenbait profil berri detektatu dira.
- Babes-sistema guztien (enplegua, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza) zerbitzuak ematean zenbait urritasun edo egokitzeko zailtasun aurkitu dira, eta horren ondorioz prestazio ekonomikoaren hartzaileen gizarteratze eta laneratze aukerak murriztu egin dira (zenbait kasutan litekeena da, halaber, arrisku-egoerak behin-behinekoz larriagotu izana).
- Horretaz gain, prestazio ekonomikoaren konfigurazioaren bitartez, pobrezia ekonomikoaren egoerak arindu nahi dira, baita pertsonak mugiarazi ere, enplegua lor dezaten, baina zoritzarrez

oraindik ere zenbait distorsio eta «oztopo» aurki ditzakegu enplegurako bidean, bereziki enplegarritasun-maila txikia duten eta ondorioz soldata txikiak jaso ditzaketen pertsonen kasuan. Horri pobrezia⁷ eta soldata txikiaren tranpa deitzen zaio. Izan ere, langile pobreek osatzen dute arrisku-profil berrietako bat.

- Diru-sarrerak bermatzeko politikek prestazio ekonomikoak ematera murrizteko joera erakutsi dute, enplegu-zerbitzuek, gizarte-zerbitzuek, eta hezkuntza-, etxebizitza- edo osasun-zerbitzuek ezin izan dutelako behar adinako laguntza eskaini kasu guztietan. Horregatik, aurrera egin beharra dago zerbitzu pertsonalizatuak ematen, pertsonen laguntzeko edo pertsonak gizarteratu eta laneratze premietara egokituko direnak.
- Bestetik, EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren esparruan egindako diagnostikoekin bat etorritik, gizarte-zerbitzuen sistemak, ezinbestean, prestazio ekonomikoak izapidetu behar izan ditu, eta horrela pobrezia-egoerei erantzuteko aukera izan du, baina ez banakoei eta komunitateari gizarte-bazterkeriako egoerarako arreta-baliabide nahikoak modu integratuean emateko aukera. Era berean, ez dute horretarako beharrezko ahalmen ekonomikoa izan. Hala, gizarteratze eta laneratze helburua betetzeko egindako aurrerapena mugatua izan da, pobrezia- eta bazterkeria-arriskuan dagoen pertsona batek prestazio ekonomikoa eta enplegurako aktibaziorako duen eskubide bikoitzaren bitartez.
- Gizarte-bazterkeria fenomeno multikausala da, hainbat sistemen arteko koordinazioan oinarritua eta gizarte-zerbitzuek gidatua, eta fenomeno horri arreta integrala eskaintzeak ez du lortu pertsona, familia, talde eta komunitatean esku hartzen duten sistemen berdintasuneko inplikazio efektiboa, eta, beraz:
 - Pobrezia eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan egonik enplega daitezkeen pertsonen ez dituzte enplegu-zerbitzuak laneratze behar adinako intentsitatearekin edo zehaztasunarekin jasotzen, kalteberatasun-egoeraren iraunkortasunaren mesedetan.
 - EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak egindako diagnostikoaren arabera⁸, enplegu bat lortzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen, bazterkeria-egoeretan daudenek alegia, ez dituzte gizarte-zerbitzuak behar duten intentsitatearekin jasotzen, eta horren eragin negatiboa dauka banakoen nahiz komunitatearen lanean.

⁶ Pobrezia erlatiboa edo pobrezia-arriskua: batez besteko errentaren % 60 baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonak edo etxekoen unitateak. Kasu horretan, Bizi Baldintzei buruzko Inkestatik atera dugu datua Espainia osoaren errenta erreferentziatzat hartuta, inkesta horrek eskaintzen dituelako daturik berrienak, hain zuzen ere 2010era artekoak.

⁷ Hala ere, Euskadiren eta beste Autonomia Erkidegoen arteko konparaketarako aukera ematen duten datu makrosozialek eta ekonomikoek ez dirudi tesi hori defendatzen dutenik; izan ere, 2007-2010 aldian Euskadik bere enpleguen % 5,8 galdu zituen, eta Madril edo Kataluniak, aldiz, babes-sistema ez hain garatuekin, % 9ko eta % 12,7ko enplegu-galera erregistratu zuten, hurrenez hurren. Era berean, 15-64 urteko landunen proportzioak (EPAREN 2011ko hirugarren hiruhilekoari buruzko datuen arabera) ez dirudi babesten duenik pobrezia-eraginaren tranpa hori benetako arazo bat denik EAEan.

⁸ Propuesta de Plan Estratégico de Servicios Sociales (2011–2014). http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contss/es/contenidos/informacion/planes_ss/es_planes/adjuntos/Plan%20Estrategico%20de%20Servicios%20Sociales.pdf

- Litekeena da gizarte-zerbitzuek, prestazio ekonomikoak kudeatzean, zenbait distortsio sortu izana onuradunekiko lan-harremanetan, eta gizarte-zerbitzuen berezko lanari denbora eta baliabide gehiegi kendu izana.

Plana lantzeko beste informazio-iturri garrantzitsu bat da 2007-2009ko EAEko Gizarteratze Planaren Ebaluaziotik eratorritakoa. Ebaluazio-prozesu horretan plana egikaritzeaz arduratutako erakundeek parte hartu zuten, galdesortan eta elkarrizketen bitartez, hala nola Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek, nahiz elkarrekin eta agente ekonomiko eta sozialek. Ondoren, ebaluatutako alderdi batzuk eta horien inguruan egindako balorazioak azpimarratu ditugu, eta, beraz, Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Plana lantzeko informazio baliagarri gisa ikus daitezke.

- Modu positiboan balioesten da planaren premia, edukia eta egitura, eta modu negatiboagoan alderdi operatibo batzuk, hala nola gidaritzea, koordinazioa eta garapenerako lankidetzak⁹. Izan ere, plana egikaritzeko atzemandako oztopo nagusia izan da egikaritzeaz arduratu behar diren erakundeen artean koordinazioa eta komunikazioa ez izatea.
- Planari eta jarraipen egiteko aurreikusitako mekanismoak buruzko ezagutza maila oso txikia atzeman dugu. Planaren esparruan proposamen eta jardun berriak aurkeztea bultzatzeko gune eta ekimen gutxi izan dela uste dugu. Gainera, biztanleen artean, plana egikaritzearekin lotutako profesionalen artean, eta gizarte-agente garrantzitsuen artean planaren hedapena urria izan dela uste dugu¹⁰.
- Helburu estrategikoak handinahiegiak direla uste dugu planaren indarraldirako, eta planak bost urteko iraupena izatea proposatu da.
- Balioespenak kritikoagoak izan dira helburuak gauzatzeko eraginkortasunarekin baliabideen kudeaketaren eraginkortasunarekin baino. Antzeko moduan, inplikaturiko pertsonen biztanle hartzaileen gaineko inpaktua garrantzitsutzat jotzen badute ere, batzuek alderdi hori behar bezala balioesteko zailtasuna adierazi dute. Horren ildotik, beharrezkoa dirudi prozesuen eta emaitzen adierazle bereiziak ezartzea.
- Planaren kudeaketaren eta jarraipenaren esparrua izan da —neurrien % 10 metatzen zuen— egikaritzeko zailtasun handienak izan dituenak. Hortaz, egokitzeak jo da planaren ebaluaziorako prozesu adostuak eta sistematizatuak ezartzea.

Azken batean, ezinbestekoa da komunikazioa eta koordinazioa indartzea, eskaintako baliabideak eraginkortasunez aprobetxatzeko. Hala, Plan berriaren garapenerako erronka nagusietako bat honako hau izango da: koordinazio eta komunikaziorako gune eta prozesu sistematikoak sortzea, sistema eta entitate guztiak horietan inplikaturik eta konprometituta senti daitezkeen, eta proposamen eta jardun berrien ekarpena sustatu eta ahalbidetu dezaten.

Horren haritik, badira zenbait gertaera kontzeptua eta estrategia aldatzeko bidezkotasuna justifikatzen dutenak:

- Etorkizuneko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa egiten ari dira, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen garapenari eta sistemaren erronkei erantzuteko Besteak beste, plan horren egileak aztertzen ari dira diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoen kudeaketa gizarte-zerbitzuen sistematik bereizteko aukera, gizarte-zerbitzu horietako arduradunek aukera izan dezaten pertsonen problematikei banan-banan heltzeko, komunitatearekin esku hartzeko eta gizarteratzea eta gizarte parte-hartzea sustatzeko.
- 2011ko urtarilaren 1etik, Euskal Autonomia Erkidegoa Enplegu Politika Aktiboak gauzatzeko eskumenaren jabe da. Aldez aurreko eskumenen banaketak zailago egiten zuen bazterkeria-egoeran edo -arriskuan zeuden pertsonen laneratzeko premiei behar bezalako arreta eskaintzea.
- Bestetik, 2011ko otsailaren 3ko Errege Dekretuaren bitartez abian jarri zen Enplegu Politika Aktiboaren estatu-erreformarako prozesuak enplegu-politika aktiboetarako eskubide subjektiboak onartu du lehen aldiz, eta Espainiako Enplegu Estrategia eta Urteko Plana egitea aurreikusten du, autonomia-erkidegoekin elkarlanean, Enplegu Politika Aktiboaren zerbitzuen prestazioak hobetzeko helburuarekin.
- Espainiako Enplegu Estrategia jada onartua dago, eta 2012-2014ko Espainiako Enplegu Estrategia erabakitzen duen urriaren 31ko 1542/2011 Errege Dekretuaren bitartez arautzen da. Testuinguru horretan, 2011ko abenduaren 20ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordio bidez onartutako Enpleguaren Euskal Estrategia (EEE) Enplegu Politika Aktiboaren zerbitzuen prestazioa hobetzeko helburuarekin prestatu da, eta honako asmo hau jasotzen du: Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzu Publiko berria (aurrerantzean Lanbide EEZ) benetan inklusiboa eta unibertsala izatea, baita biztanle-segmentu guztiei eraginkortasunez erantzuteko gai izatea ere. Horretarako, Enplegu Politika Aktiboak onartzeko eta aldez aurreko eskemetara moldatzeko erronkari erantzuten dio Enpleguaren Euskal Estrategiak.

⁹ Ikuspegi hori bat dator 2003-2005ko Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Planaren Ebaluazioan jada jasotzen zen proposamen batekin, hain zuzen ere sailen arteko eta erakunde arteko batzordeak «aktibatzearen» edo idazkaritza tekniko bat ezartzearen egokitasunarekin.

¹⁰ Berriz ere, planaren hedapenaren hobekuntza —bai bere neurri eta helburuei dagokienez, bai emaitzei eta lorpenei dagokienez—, inplikaturiko agenteen eta biztanle guztien artean, 2003-2005ko Gizarteratze Planaren Ebaluazioan jada atzematen zen arloa da.

- Jokaleku berria duela gutxi onartutako jaurlaritzaren beste plan batzuekin eta Gizarteratze Sistemarentzat garrantzitsuak diren arau-aldaketekin egituratzen da. Horien artean, aipatzekoak dira Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legearen aldaketa¹¹, eta, besteak beste, honako plan hauek onartzea: 2011-2015eko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana¹², 2011-2013ko Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Plana¹³ eta Lanbide Heziketaren III. Euskal Plana¹⁴.
- Era berean, beste plan eta estrategia batzuk egiteko eta onartzeko prozesuan daude, eta horien edukiak eragin handia izango du gizarteratzearen esparruan: hala, etorkizuneko Etxebizitzaren Legea, Euskal Eskola Inklusiboa garatzeko 2010-2016ko Ekintza Plana, Gazteriaren III. Plana, Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Estrategia, edo eredu soziosanitarioaren eraikuntzaren aurrerapenak.
- Azken batean, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak bat egiten du prozesu horiekin guztiekin, horiekin guztiekin koordinatuz sistema guztietatik lortu nahi den arreta integrala bermatzeko eta sistema bakoitzaren diseinuan eragiteko.
- Europa 2020 Estrategia (EB2020) onartzearen ondorioz, EcoEuskadi 2020 Estrategia onartu da¹⁵. Eta, aurrerago ikusiko dugunez, azken horrek bi helburu estrategiko ditu Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak biltzen duen gaiarekin lotuta.
- Era berean, Europa 2020 Estrategiarekin lotuta, 2011ko apirilean, Espainiako Gobernuak Erreformaren Plan Nazionala aurkeztu dio Europako Batzordeari, bere ikuspegiaren berri emateko, eta bertan honako helburu hauek ezarri ditu: % 74ko enplegu-tasaren helburu kuantifikatua, pobrezia eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen kopurua 1,4 milioitik 1,5 milioira jaistea 2019. urtera arte, eta, horretaz gain, haur-pobrezia hiltzeko premia; azken hori esanbidez aipatu du.
- Azkenik, krisi ekonomikoaren testuinguruak inoiz baino beharrezkoago egiten du sistema guztien babes-ekintza ziurtatzea, baina baita efikazian eta eraginkortasunean hobetzea ere. Gizarteratzeari ikuspegi integral batetik heldu behar zaio, inbertsio bat dela eta ekonomikoki hazteko eta enplegua sortzeko aukera eskaintzen duela aintzat hartuta, eta, ikuspegi horretatik abiatuta, ziurtatu beharra dago krisiaren testuingurua gizarteratze-prozesuetarako oztopo ez izatea eta prozesu horiek ekonomia suspertzeko lagungarri izatea.

Azken batean, gizarteratze-eredu berri baterantz aurrera egitea beharrezkoa eta egokia da. Gizarte-zerbitzuen eraginkortasuna bermatzeko, gizarteratze horrek benetakoa behar du izan, eta pertsona kalteberenen egoera hobetu behar da. Euskadik baditu ildo horretan urrats estrategikoak egiteko gaitasuna eta baliabideak. Abian diren ekimen ugariak ildo horretatik doaz, bakoitza bere esku-hartze eremuaren barruan.

¹¹ 4/2011 Legea, abenduaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko legea aldatzen duena.

¹² 2011-2015eko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana, 2011ko abenduaren 27ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordio bidez onartua.

¹³ 2011-2013ko Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetzaren III. Euskal Plana, 2011ko azaroaren 8ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordio bidez onartua.

¹⁴ Lanbide Heziketaren III. Euskal Plana, 2011ko ekainaren 21eko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordio bidez onartua.

¹⁵ EcoEuskadi 2020 Estrategia, 2011ko uztailaren 5eko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordio bidez onartua.

1.2. GIZARTERATZE AKTIBOKO EUSKAL PLANAREN JARDUTEKO PRINTZPIOAK ETA IKUSPEGIA

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak (aurrerantzean GAEP, aurrerantzen) honako helburu hau dauka: gizarte-eredu jakin bat eraikitzea, eta gizarte hori osatzen duten guztiek eskubide eta betebeharrak dituztela sentitzea, beren egoera ekonomikoa eta soziala edozein izanik ere, haien arteko aldeak errespetatzea, eta haien oinarritzko premiak estalita egotea, nola ekonomiari hala enpleguari, harremanei, hezkuntzari, osasunari edo etxebizitzari dagokienez.

Eta hori kontuan hartuta gizarteratze aktiboa lortzeko ezinbestekoa dela gizabanakoari autonomia eta autokudeaketa eskaintzea, baita bere hautaketak eta bere bizitza kontrolatzeko mekanismoak eskaintzea ere, Herri Administrazioek laguntza eskainiz horretarako zailtasunak dituzten pertsona guztiei.

IKUSPEGIA

Gizarte-eredu jakin bat eraikitzea, eta gizarte hori osatzen duten guztiek eskubide eta betebeharrak dituztela sentitzea, beren egoera ekonomikoa eta soziala edozein izanik ere, haien arteko aldeak errespetatzea, eta haien oinarritzko premiak estalita egotea.

GIZARTERATZE AKTIBOKO EUSKAL PLANAREN JARDUTEKO PRINTZPIOAK

Bazterkeria- eta gizarteratze-prozesuen ikusmolde multidimentsionala.

Eskubide bikoitzaren bermea, eta pobrezia- eta gizarte-bazterkeriaren arteko aldea.

Gizarteratze aktiboaren ikuspegia, esku hartzeko metodo bat bezala.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak gidatzen du Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana.

Sarbide unibertsala eta pertsonen arreta normalizatua.

Bazterkeria- eta gizarteratze-prozesuen ikusmolde multidimentsionala

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak gizarte-bazterkeriaren eta gizarteratzearen ikusmolde multidimentsionala hartzen du aintzat, eta bereziki pertsona bat gizarteratze-egoera batetik bazterkeria-egoera batera igarotzeko gerta daitezkeen prozesuei helden die, eta alderantziz.

Hala, esaterako, enplegurik ez duelako edo kalitatezko enplegurik ez duelako zailtasun ekonomikoak dituen pertsona batek ez du zertan baztertua egon, baina horrelako egoera batean denbora asko emateak kalteberago bihurtzen du, zalantzarik gabe.

Horren ildotik, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren hartzaileak honako hauek dira:

1. Babesgabetasuneko, mendetasuneko edo gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan egonik, **harremanetarako eta/edo enplegatzeko premiak dituzten pertsonak**.
2. **Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzaileak**, edo hartzaile baten mendeko 18 urtetik gorakoak, lan egiteko edo enplegarritasuna hobetzeko gaitasuna dutenak.
3. **Osasun-sistematik etorri edo deribatu diren eta gizarteratzeko** eta laneratzeko premiak dituzten pertsonak.
4. Araututako edo arautu gabeko **enplegurako prestakuntzako hezkuntza-premiak dituzten pertsonak**, bizitzako ikaskuntzaren barnean hartutakoak, honako hauen ondorio diren enplegarritasun-maila txikiko egoerak barne: eskola behar baino lehenago uztea, oinarritzko komunikazio-gaitasunen gabezia, gizarte-gaitasun urriak, eta abar.
5. **Bizitegi-premiak dituzten pertsonak**, edo etxebizitzarik ez dutenak edo infraetxebizitza batean bizi direnak.

Eskubide bikoitzaren bermea, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren arteko aldea

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak pobreziaren eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gutxieneko diru-sarrera batzuk edukitzeko eta/edo gizarteratze-ko duten eskubide bikoitza benetan betetzearen aldeko apustu garbia egiten du.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legearen 3.a) artikulua jasotzen duenez, «printzipio horren arabera, bizitzako oinarritzko premiei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikoak eskuratzeko eskubidea, eta gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza pertsonalizatuak izateko eskubidea aitortzen zaizkie pertsonen».

Lege horren hitzaurrean, pobrezia ekonomikoko eta gizarte-bazterkeriako egoerak bereizi egiten dira argi eta garbi. Bi egoerak —pobrezia ekonomikoa eta gizarte-bazterkeria— aldi berean gerta daitezkeela aintzat hartuta, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak eskuragarri dauden baliabideak egokitu nahi ditu, egoera bakoitzera moldatuz haien eraginkortasuna hobetzeko.

Horrela, esaterako, askotan arazoa da aldi baterako diru-sarrerarik ez izatea lanik ez izateagatik, baina beste inolako problematarik gabe; kasu horietan, enplegu-zerbitzuek esku hartu behar dute, pertsona horiei lana aurkitzen laguntzeko eta prozesu horretan haren diru-sarreraren mailari eusteko, argi izanik egoera horretan denbora asko emanez gero bazterkeria-egoera batean amai daitezkeela.

Aurkako muturrean badaude beste hainbat pertsona pobrezia-egoeran ez daudenak, familiaren diru-sarrerari edo beste baliabide ekonomiko batzuei esker, baina aldi berean babesgabetasuneko, mendekotasuneko, ezintasuneko eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeran egon daitezkeenak. Egoera horretan, gizarte-zerbitzuek esku hartu behar dute, eta, hala badagokio, beste sistemetako zerbitzuek. Hortaz, baliabide ekonomikoak izateak ez du esan nahi gizarteratzeko zerbitzuetarako sarbidea kendu behar denik.

Hala ere, pertsona askoren eta horien familien kasuan bi egoera horiek aldi berean gertatzen dira, eta kasu horretan eskubide bikoitzaren bermeak gutxieneko diru-sarrerak jasotzeko eskubidea ekarriko du, baina baita, eskakizun-maila berberarekin, esku-hartzearen hartzaileen gizarteratzea ahalbidetuko duten zerbitzuak jasotzeko aukera ere.

Gizarteratze aktiboaren ikuspegia: esku hartzeko metodo bat

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak gizarteratze aktiboan oinarritutako ikuspegia ere hartu du aintzat, ikusmolde integral batetik abiatuta, honako hauek bermatzen dituen: gutxieneko diru-sarreraren maila egokia, aktibazioa ahalbidetzeko; enplegu duin bat lortzeko laguntza¹⁶; eta zerbitzu publikoak jasotzeko bermea, herritarrei bizitzaren eremu guztietan autonomia pertsonala edukitzea ahalbidetuko dietenak, gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren, etxebizitzaren eta osasunaren sistemen babesarekin.

Horren ildotik, enplegu bat lortzea inklusiboa izaten da, baina ez da esku-hartze nahikoa izaten osasun-gabeziak, zailtasun pertsonalak edo harremanetarako arazoak dituzten pertsonentzat.

18/2008 legearen hitzaurrean biltzen denez, gizarteratze aktiboko metodoa enpleguak gizarteratzeko tresna gisa duen nagusitasunean oinarritzen da, baita gizarte- eta lan-aktibazioaren elkarrekin eskakizunean ere, «gizarteratzeko hitzarmen baten nahitaezko partaidetzarekin, hala administrazioaren eta bazterkeria-egoeran dagoen hiritarren arteko elkarrekikotasun printzipioa gauzatuz».

Gizarteratze aktiboaren ikuspegiak sistema guztiak biltzen ditu pertsonen gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzeko beharrezko zerbitzuak identifikatzeko eta martxan jartzeko lanean, betiere kasu bakoitzerako konfigurazio eta intentsitate egokiarekin. Aldi berean, gizarteratze aktiboaren ikuspegiak pertsonaren konpromisoa eskatzen du, hau da, pertsonak bere eskura dagoen guztia egin behar du benetan gizarteratzea lortzeko eta bere premiekin bat datozen prozesuetan parte hartzeko.

Lanerako adinean dauden pertsonen dagokienez, eta bakoitzak aurre egin behar duen problematika alde batera utzita, Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana pertsona guztiak enplega daitezkeelako¹⁷ edo beren enplegarritasuna hobetu dezaketelako printzipiotik abiatzen da. Horrenbestez, laneratzeko banakako ibilbideen diseinuan oinarritutako lan-metodo bat aplikatzen da.

Ibilbide horiek Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta pertsonaren artean adostutako ekintza, baliabide eta zerbitzu multzoek osatzen dituzte, eta, hala badagokio, gainerako zerbitzuen (gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza) esku-hartzearen babes dute, pertsona horrek bere enplegarritasuna hobetzeko. Banako ibilbide horiek, adostutako eta arretaren eraginpeko pertsonak onartutako prozesuak biltzen dituzte, eta idatzitako eta sinatutako akordioetan jasotzen dira, Gizarteratze


¹⁶ Lan duinaren kontzeptua oraindik ere eraikitze-fasean badago ere, Lanaren Nazioarteko Erakundearen iritziz, lan duin batek honako ezaugarri hauek bete behar ditu: produktiboa eta segurua izatea, lan-eskubideak errespetatzea, diru-sarrera egokiak ematea, eta gizarte-babesa, gizarte-elkarriketa, askatasun sindikala, negoziazio kolektiboa eta parte-hartzea bermatzea.

¹⁷ Pentsiodunak, erabateko baliazintasun-egoeran daudenak, gaixotasun eta nahasmen psikiko baliogabetzaileak dituzten pertsonak, araututako ikasketak egiten ari diren 23 urtetik beherakoak, eta, goi-mailako bazterkeriaren egoeran egonik, dagokion profesionalaren ustetan lan-merkatuan sartzeko moduan ez dauden pertsonak salbu.

Aktiboko Hitzarmenetan. Horien arabera, arretaren eraginpeko pertsonak konpromisoa hartzen du laneratzea jardueri jarraitzeko. Hau da, elkarrekiko konpromiso horren arabera pertsonak Hitzarmenean jasotako jarduerak betetzeko konpromisoa hartzen du, baina Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak eta gainerako sistemek ere adostutako zerbitzu multzoa pertsona horren eskura jartzeko konpromisoa hartzen dute beren gain.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren barnean hartuta daude, halaber, bestelako baliabide gisa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitza Prestazio Osagarria. Gizarteratze Aktiboko Hitzarmena sinatuz pertsonak eta haren familiak hartutako konpromisoaren bidez prestazioak eta aktibazioa uztartzeko eginkizuna duten errenta aktibo batzuk dira horiek. Hala, gizarte-politiken aktibazioari buruzko 18/2008 Legearen 3.g) artikuluan bildutako printzipioari jarraiki, sistemak oinarritzko prestazio ekonomikoak bermatzen ditu, eta beharrezko bitarteko eta baliabideak jartzen ditu pertsona bakoitzaren eskura, gizarteratze-ibilbide egokia aurki dezan, ibilbide horretan parte hartzeko sistema egokien laguntza jaso ostean.

1. irudia. GIZARTERATZE AKTIBOKO EUSKAL PLANAREN EREDUAREN ESKEMA



Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak gidatzen du Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana, baina esku hartzen duten sistema guztien erantzukizuna da

Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila lantzen ari den zenbait politika publikoren —besteak beste, Enpleguaren Euskal Estrategia eta etorkizuneko EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa— arteko bidegurutzean dago.

Beraz, Enplegu eta Gizarte Gaietako saila dago buruan, baina inplikaturiko beste sail batzuk daude, kudeatzen dituzten sistemei dagokienez beren ekarpen propioak egiten dituztenak: hala, Hezkuntzako, Etxebizitzako eta Osasuneko sistemek gizarteratze aktiboko estrategia osatzen dute eta estrategia horri koherentzia eta osotasuna ematen diote, Enpleguko, Gizarte Zerbitzuetako eta Diru-sarrerak Bermatzeko sistemen antzeko erantzukizun-mailarekin (ikusi 1. irudia).

Nolanahi ere, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean oinarrituta lortutako aurrerapenak gorabehera, oraindik ere zenbait arazo handi daude indarrean erantzukizun eta eskumenak mugatzeari eta sistema guztien artean banatzeari dagokienez. Horren ondorioz, litekeena da une honetan bikoiztasunak gertatzea zerbitzuen prestazioan, edo eremu batzuk arretarik gabe geratzea, erabiltzaileen artean nahasmendua sortzea, eta, oro har, sistemen arteko koordinazioan eraginkortasunik eta efizientziarik ezeko egoerak sortzea, gizarte-zerbitzuen, enplegu-zerbitzuaren eta diru-sarrerak bermatzeko sistemen artean bereziki.

Egoera horren aurrean, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak honako ikuspegi hau dauka:

— Enplegu-zerbitzuen profesionalak pertsonen enplegarritasun-diagnostikoa egiteko eskumena izango dute, baita, beharrezkoa denean, pertsona horiek beste sistema batzuetara bideratzeko eta sistema horiekin koordinatzeko eskumena ere. Profesional horiek arduratuko dira, halaber, gizarte- eta lan-aktibazioko ibilbide pertsonalak proposatzeaz eta, hala badagokio, Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenak sinatzeaz¹⁸. Aktibaziorako beharrezkoak diren enplegu-tresna guztiak dituzte eskura —informazio eta orientazioko zerbitzuak, lanerako prestakuntza, lan-bitartekotza, eta abar—.

— Hezkuntza, osasun, etxebizitza eta gizarte-zerbitzuetako sistemetako profesionalak beren diagnostiko propioak egingo dituzte eta pertsonak gizarteratzeko eskatutako banako ibilbide

¹⁸ Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenaren sinadura nahitaezkoa da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzaileentzat, baina hartzaile ez direnen enplegarritasuna hobetzeko tresna gisa ere erabil daiteke, beren borondatez hitzarmena sinatzeko erabakia hartzen badute.

integrala osatzeko beharrezko tresna guztiak edukiko dituzte eskura, bakoitzak dagokion jardun-eremuaren barruan, eta gainerako profesionalakiko beharrezko koordinazioa ziurtatuko dute.

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Etxebizitza Prestazio Osagarriaren kudeaketa enplegu-zerbitzuen eskumena da, eta, bi prestazioen kasuan, hartzailerak Gizarteratze Aktiboko Hitzarmena sinatu eta bete behar du prestazioa jasotzeko.

Lan-prozesu hori aurrera eramateko, baliabide eta zerbitzuen sareak eta sistemak antolatu behar dira, eta, zehazkiago, koordinazio-protokolo batzuk sortu behar dira, sistemek elkarlanean erabakitako eta planifikatutako jardunak gauzatu eta babesteko.

Hori da Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren oinarritzko ardatzetako bat, honako helburu hau ezarri duena: sistema arteko, sail arteko eta erakunde arteko lankidetzaren eraginkorra lortzea, pertsona kalteberenek behar duten arreta integrala eta pertsona horiek benetan gizarteratu eta laneratzea ahalbidetuko duena.

Esku hartzeko eta eskumenak banatzeko eredu hori indarrean jarri da Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea 2011n aldatu denean. Horretaz gain, planaren 6. helburu estrategikoan zehazten denez, esku hartzeko ereduak koordinazio- eta deribazio-protokoloak ezartzea eskatzen du gizarte-zerbitzuen, osasun-zerbitzuen, hezkuntza-zerbitzuen eta etxebizitza-zerbitzuen artean.

Praktikan, sistemen arteko lankidetzaren protokoloak idazteko lana dagoeneko hasi da 2012an; hain zuzen ere, Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenaren esparruan, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen arteko lankidetzaren zein kasutan den beharrezkoa aztertu da, baita lankidetzaren hori antolatzearen modua ere. Orain arte, premia-adierazleak identifikatu dira pertsonen enplegarritasunaren arabera, eta esku-hartze motak kategorietan antolatu dira. Era berean, eta Lanbideren eta Udako Gizarte Zerbitzuen arteko lankidetzarako lan-bileren barruko proposamen gisa, Lanbideren eta Gizarte Zerbitzuen arteko lankidetzaren eta kooperazio-protokoloa arautu behar duten printzipio orokorrak zehaztu dira; kooperazio-protokolo horrek barnean hartzen du Gizarteratze Aktiboko Hitzarmena lantzeko eta gauzatzeko prozesua, baita aipatutako Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenaren jarraipen, berrikuspen eta martxan jartzeko prozesua ere.

Sarbide unibertsala eta pertsonen arreta normalizatua

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren aurrerapen nabarmen bat da pertsona guztientzako sarrera unibertsala bermatzea, baldintza berberetan eta enplegu-zerbitzuen bitartez, gizarteratzeko eta laneratzearen ibilbide pertsonalizatuaren bidezko prestazioetara.

Arreta pertsonarengana eta pertsonaren autonomia babestera bideratzen da bereziki, behar duten gizon eta emakume guztiek beren laneratze-ibilbidea erabaki dezaten, eskura dauzkaten baliabideak erabiliz. Tresna komun eta normalizatuen ingurune batean egingo da hori, gainerako pertsonak dituzten baliabide berberak izango baitituzte; hala ere, zailtasun handienak dituzten pertsonak beren premietara egokitutako intentsitate eta zehaztasun-mailarekin jasoko dute arreta, gizarte- eta lurraldeko kohesioaren helburua duen Enpleguaren Euskal Estrategiaren 4. ardatzean jasota dagoen bezala.

**EAEN
POBREZIARI
ETA GIZARTE
BAZTERKERIARI
LOTUTAKO
PROBLEMATIKAK**



2.1. SARRERA

Betidanik, pobreziaren kontzeptua baliabiderik ezari lotu izan zaio, hain zuzen ere pertsonen bizi-kalitatean eragiten duten oinarritzko premia jakin batzuk asebetetzeko baliabideen gabeziari. Horren ildotik, baliabide ekonomikoen gabeziarekin du zerikusia, areago oraindik, moneta-eskasiarekin.

Gizarte-bazterkeriako prozesuek prekariedade ekonomikoaren eremua gaintitzen dute, eta beste era bateko arazoei lotzen zaizkie, hala nola gizarte-harremanen arazoei, autonomia pertsonaleko arazoei, harreman pertsonalei, bizikidetza-harremanei eta, oro har, gizarte-ingurune arazoei. Hala, gizarte-bazterkeriaren barnean egoera jakin batzuk hartzen dira, hain zuzen ere pertsonen garapen pertsonala lortzeko eta komunitatean txertatzeko zailtasun larriak eragiten dituzten egoerak (gizarte parte-hartzea edo gizarte-integrazioa galtzeko prozesuan barneratzen dira egoera horietan daudenak). Ildo horretatik, bazterkeria askotariko egoerei lotzen zaie, besteak beste gabezia ekonomikoari.

Sarrerako atalean adierazi dugun bezala, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planean pobrezia ekonomikoko eta gizarte-bazterkeriako egoerak bereizi egiten dira argi eta garbi, bi egoerak —pobrezia ekonomikoa eta gizarte-bazterkeria— aldi berean ere gerta daitezkeela aintzat hartuta. Kasu horietan, eskubide bikoitzaren bermeak —gutxieneko diru-sarreraren eskubidea eta gizarteratzeko eskubidea— gutxieneko diru-sarrerak jasotzea bermatzeaz gain, gizarteratzea ahalbidetuko duten zerbitzueterako sarbidea bermatuko du, eskakizun-maila berberarekin.

Bi kontzeptu horiek ongi mugatzea funtsezkoa da Planaren ildo estrategikoak ezartzean eta Planaren eskumeneko eremuak finkatzean. Alabaina, kontzeptu horiek modu kuantitatiboan neurtzea ez da lan erraza, bazterkeria dimentsio anitzeko fenomeno delako, eta horren kuantifikazioari buruzko adostasunera ez garelako oraindik iritsi.

Hala ere, Europar Batasunean badute pobrezia ekonomikoa neurtzeko adostasuna, baita bazterkeria eragiten duten faktoreen intzidentzia neurtzeko ere, hala nola kalitatezko enplegurik eza,

kalitatezko etxebizitzarik eza, osasun onik eza eta hezkuntzarik eza. Gizarteratzeko Europako Estrategia abian jarri zenetik neurtu eta jaso da hori, garai hartan «Laeken adierazleak» deiturikoen esparruan.

Bazterkeria eragiten duten faktore horien intzidentziaren eta bilakaeraren azterketa, besteak beste, EAEko Behatokiak egiten dute, eta horien txostenak, neurri batean, plan hau lantzeko erabili dira: hala, Enpleguaren, Etxebizitzaren, Gizarte Zerbitzuen, Immigrazioaren, Tratu Berdintasunaren, Gazteriaren, eta, azkenik, Droga-mendetasunen Euskal Behatokiak.

Hala ere, gizarte-bazterkeria berez, hau da, pertsona batek jasaten duen «bazterkeria-maila», ez da inoiz neurtu. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila lanean ari da¹⁹ gizarte-bazterkeriari buruzko diagnostikoa egingo duen tresna bat sortzeko, neurketa horretan aurrera egitea ahalbidetuko duena²⁰, baina oraindik ezinezkoa da daturik eskaintzea, eta bazterkeria eragiten duten faktoreei buruzko adierazleak aipatu dira bakarrik.

Hortaz, jarraian aurkezten dizuegun diagnostikoan, gehienetan pobrezia ekonomikoa hartuko dugu aintzat, familiek eta/edo gizabanakoek eskuragarri dituzten baliabideen arabera neurtua. Hala ere, argi izan behar dugu bazterkeria-prozesuetan enplegu, etxebizitzako, osasuneko eta hezkuntzako baliabideak behar bezala eskuratzeko zailtasun pertsonalekin zerikusia duten alderdiak aurkituko ditugula.

Sarrera gisa, baieztatu daiteke EAEn pobreziaren bilakaera positiboa izan dela azken urteetan, baina krisi ekonomikoak ondorio negatiboak izan ditu²¹.

Oro har, azken urteetan euskal ekonomiak gorakada handia izan du biztanleko Barne Produktu Gordinean, termino konstantetan (% 3,2ko hazkunde urtetik urtera 2004tik 2009ra bitarte²²) eta EAE Europako biztanleko produktu-tasa handiena duen eskualdeetako bat bihurtzeraino. Gorakada handi hori gora-behera, biztanleriaren zati bat kalteberatasun egoeran bizi da oraindik ere.

¹⁹ Gizarte-zerbitzuak ematen eta kudeatzen dituzten gainerako administrazio eta erakundeekin eta Hirugarren Sektorearekin elkarlanean.

²⁰ Gizarte Bazterkeriaren Balioespenerako Tresna Tekniko Komuna da.

²¹ 2007tik 2010era bitarteko bilakaera aztertu dugu, azken urtean sakonagoko azterketa eginez. Nolanahi ere, zenbaitetan ezinezkoa gertatu da aldi horretara zorrotz mugatzea, zenbait aldagaitarako datu eguneraturik ez. Kasu horietan, eskuragarri genuen azken datua hartu dugu aintzat.

²² Iturria: Eustaten datuak.

Eskualdeko BPG biztanleriaren artean nola banatzen den aztertzean, 2008an, Giniren adierazleari jarraiki 25 izanik²³, euskal gizartea munduko berdintasunezkoena da, Espainiakoa baino askoz ere maila handiagoan, Giniren indizeari jarraiki urte berean 31,2 erregistratu baitzuen. EBren testuinguruan ere, EAE berdintasunezkoenetako bat da, Eskandinaviako herrialde batzuek eta Europako erdialdeko (garai bateko Sobietar Batasunaren barnean hartutakoak) beste batzuek bakarrik gainditzen baitute²⁴.

Azken urteetan pobrezia izan duen bilakaerari dagokionez, ondoren aztertuko ditugun joera batzuk agertzen dira.

Joera horien artean, azpimarratzekoa da genero-aldea murriztu dela 2004tik 2008ra bitarteko pobrezia-adierazle guztietan²⁵.

Hain zuzen ere, etxeko unitateko pertsona heldu arduraduna pobrezia-egoeran dagoen emakume bat den kasuei dagokionez, hobekuntzak izan dira 2004tik 2008ra. Etxeko unitate horietan, mantenu-pobrezia % 11,5etik % 8,2ra jaitsi da; beherakada garrantzitsua da hori, hain zuzen ere 2000-2004 aldian izandako goranzko joera zuzentzen duelako. Azkenaldi horretan % 10etik % 11,5era igo zen. Era berean, azpimarratzekoa da metatze-pobreziako tasetan izandako beherakada, % 1,4raino murriztu baita, 2004ko % 7,5etik abiatuta. Benetako pobreziari dagokionez, emakume bat buru duten etxeko unitateek ere hobekuntza nabarmena lortu dute, % 11,2tik % 5era jaitsiz, baita ongizaterik ezari dagokionez ere.

Ezinbestekoa da sistematikoki konparatzea pobreziaren eta bere aldean bilakaera gizonen eta emakumeen artean plana garatzen den bitartean, genero-aldea murrizteko lanean jarraitzeko. Zalan-tzarik gabe, ezinbestekoa da ahalegin gehiago egitea gizarteratzean berdintasunera iristeko, eta arreta berezia jarri beharko da egungo krisi ekonomikoak eta laneko krisiak duen intzidentzian.

Horren ildotik, bidezkoa da IX. Legealdiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Programa Dokumentuan bildutako Gizarte Gaietako atalarekin lotutako ondorioak hemen biltzea²⁶. Hala, egindako diagnostikoan oinarrituta, honako hau ondoriozta daiteke²⁷:

— Pobreziaren eraginpean dauden pertsona gehienak emakumeak dira: oinarritzko errenta jasotzen dutenen bi heren baino gehiago; emakumeak nagusi dira kolektibo pobreenen artean (% 53), baina baita oro har pobreziaren eraginpean dauden edo ongizaterik ez dutenen artean ere (% 57).

— Erroldatutako biztanle etorkinen gorakada, horietatik % 48 emakumeak izanik. Emakume etorkinen lanbidea etnosegregatua dago, eta kalteberatasun berezia dauka, enplegu-toki motagatik, kontratu-arauketarik ez izateagatik, denbora partzialeko lanagatik, eta soldata-ordainsari urriagatik.

— Bereziki emakumeek erabiltzen dituzte uztartze-neurriak, eta horregatik neurri horiek kontrako eragina izan dezakete emakumeen aurrerapen profesionalean eta pertsonalean.

Era berean, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren problematiken bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoak dira, batetik, immigrazioa eta, bestetik, pobrezia-arriskuan dauden landunen gorakada.

Batetik, immigrazioak nabarmen egin du gora kopuruan, eta, proportzioan, pobrezia neurri handiagoan eragin dio talde horri. Bestetik, langileen artean nabari den segmentazioaren eraginez, 2008an, EAEn mantenu-pobreziaren arriskuan dauden etxeko unitateetako titular gehienak landunak dira.

Hala, gaur egun, EAEn pobrezia-tasarik handienak dituzten biztanle taldeak dira, batetik, buruan 35 urtetik beherako gazteak dituzten etxeko unitateak, eta, bestetik, buruan etorkinak dituztenak. Profil kaltebera horiei 65 urtetik gorako pertsonak erantsi behar zaizkie, baita azterketaren eraginpeko aldiari detektatutako beste arrisku-talde bat ere: landunak.

Euskal etxeko unitateen pobrezia-pertzepzio subjektiboak aintzat hartuz, nabarmentzekoa da 2006tik 2010era bitarte beren egoera okerrera egin duelako sententzia nagusitu dela. Joera hori nabarmendu da bereziki pertsona nagusitzat emakume bat duten etxeko unitateen artean, gazteen artean eta buruan atzerri-tarrak dituzten familien artean, pobrezia-neurri objektiboetatik abiatuta lortu diren emaitzekin bat etorritik.

²³ Giniren indizeak errenta gizarte jakin batean nola banatzen den neurtzen du, 0tik 100era bitarteko balioak aintzat hartuz. Giniren indizea 0 baldin bada gizarte jakin baterako, horrek esan nahi du errenta berdintasunez banatzen dela gizarte hori osatzen duten pertsona guztien artean. Aurkako muturrean, Giniren indizea 100 baino handiagoa bada, desberdintasuna erabatekoa izango da. Eskandinaviako herrialdeak (Danimarka adibidez) edo Japonia daude munduko herrialderik berdintasunezkoenen artean, Giniren indizeak 23tik 25era bitarte baitira. Brasilen eta Afrikako zenbait herrialdetan (Namibia, Afrika Erdiko Errepublikak), aldiz, munduko desberdintasunik handienak ageri dira, Giniren indizeak 58tik 70era bitarte izanik.

²⁴ Iturriak: PGDI 2004 eta 2008. EIU, Bizi-baldintzei buruzko inkesta, 2004 eta 2008. Eurostat, Indicators of the Social Inclusion Strand.

²⁵ Erabilitako informazio-iturria Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta izan da, 2000., 2004. eta 2008. urteetakoak (azken hori da eskuragarri dagoen azkena).

²⁶ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Programa Dokumentua. IX. Legealdia. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. 2010. Espezifikoak: 53-54 orrialdeak (diagnostikoa), eta 73-74 orrialdeak (ondorioak eta gomendioak).

²⁷ Datuen jatorria 2008ko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan (PGDI) dago.

2.2. POBREZIA ERA BAZTERKERIA FAKTOREAK²⁸

Pobrezia eta gizarte-bazterkeria kuantifikatu aurretik, neurtu beharreko fenomenoak ongi definitu behar dira. Ildo horretatik, orain artean adierazi dugun bezala, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak pobrezia ekonomikoko egoerak eta gizarte-bazterkeriako egoerak bereizi egiten ditu, bi egoera horiek pertsona eta familia jakin batean aldi berean gerta daitezkeela aintzat hartuta. Hala, gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia-aren kontzeptuak elkarren osagarri dira, baina ez kontzeptu trukagarriak, pobre guztiak ez direlako baztertuak eta alderantziz.

Aurreko ataletan jada hausnartu denez, pobrezia-aren egoerek baliabide ekonomikoen gabeziarekin dute zerikusia, eta, areago oraindik, moneta-eskasiarekin. Bestetik, gizarte-bazterkeriako prozesuek prekarietate ekonomikoaren eremua gainditzen dute, eta gehienetan beste era bateko arazoei lotzen zaizkie, hala nola harreman-arazoei, autonomia pertsonaleko arazoei, harreman pertsonalei, bizikidetzaren harremanei eta gizarte-ingurune arazoei. Ildo horretatik, bazterkeria askotariko egoerei lotzen zaie, besteak beste gabezia ekonomikoari.

Horrela definituta, pobrezia eta gizarte-bazterkeria zenbait ikuspegitatik azter daitezke. Azterketa honetarako erabiliko ditugu, batetik, ikuspegi objektibo bat, pertsonen bizi-baldintzei buruzko adierazleetatik abiatuta (errenta, ikasketa-maila, osasuna, enplegua eta abar), eta, bestetik, azterketa objektibo bat, pertsonen beren egoeraz duten pertzepzioetatik abiatuta. Gainera, pobrezia- eta bazterkeria-profil nagusiak aztertuko dira, baita EAE osatzen duten probintzien arteko aldeak ere.

2.2.1. Pobrezia-aren moneta-ikuspegia EAEn

Etxeko unitateen errenta da pobrezia-aren ikuspegi objektibo batetik hurbiltzeko modurik azkarrena. Ikuspegi horretatik abiatuta lortutako emaitza nagusiak honako hauek dira²⁹.

2004-2008 aldian, EAEko pobrezia-tasa guztien beherakada bat izan bazen ere (mantenu-pobrezia-aren kasuan izan ezik) (Gizarteratze Aktiboko Euskal Planeko datuak), krisi ekonomikoaren ondorioz tasak gora egin du 2008ko % 8,5etik 2009ko % 9,4ra, eta 2010eko % 11,6ra (Bizi Baldintzei buruzko Inkestako datuak). Aldi berean, gora egin dute prestazioak jasotzen dituen etxeko unitateen ehunekoak eta pertsona bakoitzeko gastuak:

- 2010ean, EAEko pobrezia erlatiboaren tasa % 11,6 zen, Espainia osorako erregistratutako % 20,7a baino askoz txikiagoa.
- Pobrezia larriaren tasa % 3,1eraino iritsi zen 2008an, eta 2004an, aldiz, % 3,7 izan zen. Gizarte-transferentziek % 60 murrizten dute pobrezia erlatiboa (22,3 puntu) EAEn (Gizarteratze Aktiboko Euskal Planeko datuak).
- Euskal etxeko unitateen % 55,7k jaso zituen gizarte-prestazioak 2008an (Espainian baino 4 puntu gutxiago), eta 2004an, aldiz, ehuneko hori % 51,9 izan zen. Estatuko batez bestekoarekin alderatuta ikusten diren aldeak arrazoiak da euskal etxeko unitateek zahartzaroko eta bizirauteko prestazio gehiago jasotzen dituztela (euskal etxeko unitateen % 69,2, eta Estatuko batez bestekoa, aldiz, % 61,1 da), baina langabeziako prestazio gutxiago (% 18,6 eta % 26,8), baita bestelako subsidio eta gizarte-prestazio gutxiago ere (% 20,3 eta % 27,5).
- Pertsona bakoitzeko gastua gizarte-zerbitzuetan EAEn 979 euro-raino iritsi zen, eta 2009ko BPGaren % 3,3 izan zen. Azken horiek 2004an erregistratutako 562 eurotik eta % 2,2tik gora egin zuten.

2.2.2. Pobrezia-aren ikuspegi subjektiboa EAEn³⁰

Pobrezia ikuspegi subjektibo batetik azter daiteke, eta, horren arabera, pertsonen beren egoeraz duten pertzepzioak zehazten du fenomeno horren norainokoa. Ikusmolde horretatik, emaitzak honako hauek dira:

- Euskal familien artean, pobrezia-aren pertzepzioak beherakada bat izan zuen 2004-2006 aldian, baina pobrezia-aren adierazle objektiboek baino neurri txikiagoan.
- Hala ere, 2006-2010 aldian etxeko unitateek pobrezia-aren gorakadako sentsazioa izan zuten. Horren ildotik, 2010ean euskal etxeko unitateen % 4,1ek ikusten zuen bere burua pobre gisa edo nahiko pobre gisa, goranzko bilakaera erakutsiz 2006an erregistratutako % 3,0tik abiatuta.
- Pobrezia-aren pertzepzio horrek intzidentzia handiagoa du pertsona nagusitzat emakume bat duten etxeko unitateen kasuan, adinarekin murrizten da, eta askoz handiagoa da buruan atzeritarrak dituzten familien artean.

²⁸ Iturriak: Eustat, Euskadi.net eta Eusko Jaurlaritza, PGDI 2004 eta 2008. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzen Estatistika. EIN, Bizi-baldintzei buruzko inkesta, 2004, 2008, 2009 eta 2010. Eurostat, Indicators of the Social Inclusion Strand.

²⁹ Zenbait kontzepturen definizioak:

- Pobrezia erlatiboa edo pobrezia-arriskua: batez besteko errentaren % 60 baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonak edo etxeko unitateak. Txostena egitean EAEko eta Espainiako batez besteko errentak hartu ditugu aintzat, eta kasuan kasu adierazi egin dugu bietatik zein hartu dugun erreferentziazat.
- Pobrezia larria: batez besteko errentaren % 40 baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonak edo etxeko unitateak.
- Mantentze-pobrezia: epe laburrean oinarritzko premiak estaltzeko behar adinako baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak edo etxeko unitateak. Zehazki, elikaduraren, etxebizitzaren, jantzien eta oinetako gastuekin zerikusia duten premiak.

³⁰ Iturriak: Eusko Jaurlaritza, PGDI 2004 eta 2008, eta Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2010 (alde aurreko emaitzak). EIN, Bizi Baldintzei buruzko Inkesta, 2004, 2008, 2009 eta 2010.

2.2.3. Pobreziaren ikuspegi multidimentsionala EAEn³¹

Ikuspegi multidimentsionala pertsonen pertzepzio subjektiboetan oinarritu beharrean, pertsonen bizi-baldintzei buruzko adierazleak hartzen ditu aintzat. Aldagai jakin batzuk aztertzen ditu, hain zuzen ere pertsonen benetako bizitzaren kalitatean eragiteaz gain, bazterkeria-arriskua dakarten faktoreen antzera jarduten duten aldagai jakin batzuk. Jarraian, azterketa horretatik ondorioztatu-tako emaitza nagusiak aurkeztuko dizkizuegu:

Gabezia materialak:

- 2004-2009 aldian, ordaindu ezin izateagatik oinarritzko ondasun jakin batzuk (ordenagailua, automobila, oporrak, haragia, oilaskoa edo arraina, eta abar) ez dituzten euskal etxekoen unitateen ehunekoa murriztu egin da.

Hezkuntza:

- 2004-2008 aldian, mantenu-pobreziaren tasak gora egin du lehen mailako eta bigarren mailako (LH I barnean hartuta) ikasketak dituzten pertsonak nagusitza dituzten etxekoen unitateetan (% 3,7tik % 5,5era, eta % 4tik % 5,7ra, hurrenez hurren).
- Pobrezia-tasa hori txikiagotu egin da ikasketarik ez duten edo hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonak nagusitza dituzten etxekoen unitateentzat, % 5,4tik % 3,7ra jaitsiz lehenengo kasuan, eta % 2,8tik % 1,2ra, heziagoen kasuan.

Osasuna:

- EAEko biztanleriaren bizi-itxaropenak gora egin du 2004-2008 aldian, bai jaiotzei dagokienez, bai 65 urtekoei dagokienez. Gorakada hori gizonen nahiz emakumeen kasuan gertatu da.
- Zehazki, 2009an jaiotzean bizi-itxaropena EAEn 81,9 urtetan kokatu zen (78,5 urte gizonen kasuan eta 85,2 urte emakumeen kasuan), hau da, Espainia osoan baino 0,3 urte gehiago.
- Hala ere, gaixotasunen bat dutenen ehunekoak gora egin du ehuneko 4,9 puntu 2004tik 2009ra bitarte, biztanleriaren % 29an kokatuz. Hala ere, eguneroko funtzioak nabarmen eragotzen dien gaixotasuna dutenen ehunekoa murriztu egin da (biztanleria gaixo osoaren % 28,7tik % 15,2ra).

Informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako (IKT) sarbidea:

- 2006-2011 aldian IKTekiko sarbidea hobetu egin da EAEn; jada ia etxekoen unitateen % 57k dauka Internetarako sarrera eta % 62ak dauka ordenagailua (ehuneko 17 eta 10 puntuko gorakada, hurrenez hurren).

Enplegua:

- Langabezian egotea faktore oso garrantzitsua da pobrezia-rentzat. Langabe bat nagusitza duten etxekoen unitateetan mantentze-pobreziaren tasa % 46,8ra iritsi zen 2008an, eta etxekoen unitate ez-aktiboetan eta landunen etxekoen unitateetan, aldiz, % 4,6 eta % 2,5 da, hurrenez hurren.
- Euskal etxekoen unitateen mantentze-pobreziaren tasek gora egin zuten 2004-2008 aldian, unitateko nagusiak lan-merkatuarekin zuen harremanak garrantzirik izan gabe. Ehuneko 18 puntu handitu zen langabeen etxekoen unitateen kasuan, 0,8 puntu landunen kasuan, eta 5 puntu etxekoen unitate ez-aktiboek kasuan.
- Landunak nagusi diren etxekoen unitateak dira nagusiki mantentze-pobreziako egoeran daudenak (hala ere, tasa txikiagoak dituzte), eta pobrezia-arriskua handiagoa da kontraturik gabeko pertsonen artean (% 13,2ko tasa).

- Beti Espainiako batez bestekoaren azpitik, langabezia-tasa bikoiztu baino gehiago egin da EAEn 2006-2011 aldian, % 4,1etik % 10,8ra igoz 2011n (BJAren datua). Horretaz gain, kide landunik ez duten etxekoen unitateen kopurua 2006ko % 1,0etik 2011ko % 4,2raino igo da. Egoera horrek ondorio larriak izan ditzake EAEko pobreziaren gainean.

Etxebizitza:

- 2009an, EAEko etxekoen unitateen % 91,5 beren jabetzako etxebizitza batean bizi ziren.
- Bizilekurik gabeko pertsonentzako harrera-zentroen okupazioa nahiz plaza kopurua murriztu egin da 2006-2008 aldian, bereziki lehenengoa, eta horrek okupazio-ratioa ehuneko 6,7 puntu igotzea eragin du, % 87,5eraino igoz.

³¹ Iturriak: Eustat eta Eusko Jaurlaritza, PGDI 2004 eta 2008, Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak, biztanleriaren jardueraren arabera Inkesta (BJA) EIN, Bizi-baldintzei buruzko Inkesta 2004, 2008 eta 2009, Oinarritzko Adierazle Demografikoak, 2006ko, 2009ko eta 2010eko IV. Hiruhilekoa. Hezkuntza Ministerioa. Unibertsitatekanpoko Hezkuntzari buruzko estatistikak. 2004-2005 eta 2008-2009 ikasturteei buruzko emaitza zehatzak. Eurostat, Indicators on the Social Inclusion Strand.

2.2.4. Pobreziaren lurralde-ikuspegia EAEn³²

Lurralde-banaketari buruzko datuek aditzera ematen dutenez, benetako pobrezia hiri-eskualdeetan metatzeko joerak bere horretan jarraitzen du.

Hala, 2008an, EAEko hiru hiriburuetak eskualdeetan benetako pobreziaren % 68,2 erregistratu zen, 2000. urtean % 42 eta 2004an % 62 izan ondoren. Alabaina, hiri-eremuetan, benetako pobreziaren tasak Bilbon bakarrik daude batez bestekoaren gainetik (% 5,2, batez bestekoa % 2,5 izanik), Gasteizen eta Donostialdean benetako pobreziaren tasak % 2,3 eta 2,4an kokatuz, hurrenez hurren. Aipatzekoa da Tolosa-Goierriko eta Debagoieneko eskualdeetan benetako pobreziaren tasa nuluak erregistratu direla.

Ildo horretatik esan beharra dago etorkin gehienak Bizkaian banatzen direla, etorkinak izanik, hain zuzen ere, pobrezia gehien pairatzen duten taldeetako bat. Eustaten datuen arabera, 2010ean etorkinen % 50,1 Bizkaian zegoen, % 20,2 Araban eta % 29,7 Gipuzkoan.

Ohartzen da lurraldeen arteko aldeak are handiagoak direla mantenu- eta/edo metatze-pobreziari erreparatzen badiogu. Magnitude horren batez besteko balioa % 4,7 da EAEn, eta Bilbon nabarmendu da bereziki (% 9,4), Donostialdean eta Gasteizen baino askoz ere gehiago (% 3,5 eta % 4, hurrenez hurren). Alabaina, mantenu- eta/edo metatze-pobreziak behera egin du Bilbon 2004-2008 aldian, % 11,5etik % 9,4ra.

2.2.5. Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren biztanleria-profilak EAEn³³

Pobreziaren biztanleria-profilen bilakaera aztertzean zera ikusten dugu, EAEn pobrezia gehien pairatzen duten gizarte-profiletan ez dela aldaketa handirik gertatu azken lau urteetan.

Hala, aztertutako azken urtean, 2008³⁴, pobrezia-arriskuan zeuden³⁵ % 62,5ek honako ezaugarri hauetako bat zuen gutxienez: guraso bakarreko familia, kide bakarreko etxekoek unitateak, immigrazioa, gaztea izatea eta lan-prekarietatea. Halaber, 2004an, guraso bakarreko familiek, etorkinek eta kolokako lan egoera baitan zeuden gazteek osatzen zituzten pobrezia-arriskuaren profil nagusiak.

Joera nagusiak bere horretan jarraitzen badu ere, gaia zehazkiago aztertzen badugu zenbait joera aldatu direla ohartzen gara. 2004-2008 aldian, arrisku handiena duten talde gehienek hobetu dute beren egoera. Guraso bakarreko familiek, bakarrik bizi direnek, 25 urtetik 34 urtera bitarteko gazteek eta emakumeen titulartasuneko etxekoek unitateak egin dituzte aurrerapen esanguratsuenak pobrezia murrizteko bidean. Alabaina, 15 urtetik 24 urtera bitarteko gazteek eta langabeek neurri handiagoan pairatu dituzte pobrezia mota batzuk 2004an baino, nahiz eta zenbait aldagaitan hobera egin duten.

Atzerritarren bilakaera, ordea, ambigua da; izan ere, benetako pobreziak³⁶ eta metatze-pobreziak³⁷ neurri txikiagoan eragin diete, baina bestelako pobreziak neurri handiagoan pairatu behar izan dituzte. Etorkinen kopuruak gora egin du azkenaldian, eta, horren ondorioz, etorkinak bereziki nabarmendu dira pobreziaren alorrean, termino absolututan beste edozein talde baino gehiago hazi direlako. Hala, etorkinak, EAEn pobreziaren eraginpean bizi diren bost pertsonatik bat izatetik bost pertsonatik bi izatera igaro dira

Azkenik, landunen artean gero eta gehiago dira pobrezia-egoeran daudenak, eta fenomeno hori aintzat hartuta, beste arrisku-talde bat dela pentsatu behar dugu.

³² Iturriak: Eustat. Biztanleen Udal Inkesta. Eusko Jaurlaritza, PGDI 2004 eta 2008, Ikuspegi.

³³ Iturriak: Ikuspegi. Eusko Jaurlaritza, PGDI 2004 eta 2008, EAEn genero-indarkeriaren bikia diren emakumeak, 2009ko urteko txostena eta 2010eko balantzea. EIN, Biztanle talde nagusiak 1998. urtetik eta Biztanleria Aktiboaren Inkesta, 2006ko, 2009ko eta 2010eko IV hiruhilekoa, hurrenez hurren. Berdintasun Ministerioa, Emakumearen aurkako indarkeriaren Estatuko Behatokiaren urteko III. txostena 2010. Hezkuntza Ministerioa. Unibertsitatetik kanpoko Hezkuntzari buruzko estatistikak.

³⁴ PGDIren azken datuak 2008koak dira.

³⁵ Pobrezia erlatiboa edo pobrezia-arriskua: batez besteko errentaren % 60 baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonak edo etxekoek unitateak. Txostena egitean EAEko eta Espainiako batez besteko errentak hartu ditugu aintzat, eta kasuan kasu adierazi egin dugu bietatik zein hartu dugun erreferentziatzat.

³⁶ Benetako pobrezia objektiboa: metatze-pobrezia edo eskuragarri dituzten kontsumo-ondasunekin konpentsatu ezin dituzten mantentze-pobreziaren arazoak dituzten pertsonak edo etxekoek unitateak.

³⁷ Metatze-pobrezia: gutxieneko bizi-maila egokia epe ertainera eta epe luzera mantentzeko beharrezko kontsumo-ondasun iraunkorrak edukitzeko baliabiderik ez duten pertsonak edo etxekoek unitateak. Hortaz, bizi-baldintzen gabeziekin eta ondare-ondasunekin (ohiko etxebizitzaren ezaugarriak bereziki) du zerikusia adierazle horrek.

2.3. HURBILKETA SINTETIKOA ETA EPE LUZERAKO: AROPE ADIERAZLEEN DINAMIKA EAEn

Pobrezia- eta bazterkeria-faktoreei buruzko aurreko idatz-zatian (2.2) egiten den analisia datuen denbora-tarte laburrak baldintzatzen du, 2008aren ondoren estatistika-informaziorik ez baitago eskuragarri. Bestalde, komenigarria da gizarte-politiken diseinua, jarraipena eta ebaluazioa kokatu beharra dagoen Europako testuingurura gerturatzeko aukera ematen duen hurbilketa bat egitea.

Horri dagokionez, pobrezia- eta bazterkeria-azterketarako erreferentzia esanguratsu bat da 2020ko Europako Estrategiaren esparruan garatzen den hurbilketa. Bereziki, «Pobrezia- eta Gizarte Bazterkeria-aren aurkako Europako Plataforma» nabarmentzen da, estrategia hori martxan jartzeko Europako Batzordeak sustatutako ekimenetako bat, eta 2011tik aurrera aplikatzekoa. Plataforma horren helburua da jardun-esparru dinamiko bat ezartzea, gizarte- eta lurralde-kohesioa bermatzera bideratua, era horretan hazkundera eta enpleguaren onurak parteka daitezen, eta pobrezia eta gizarte-bazterkeria pairatzen dituzten pertsonen bizi duina izan dezaten eta gizartean modu aktiboan parte har dezaten.

Testuinguru horretan, eta pobrezia- eta bazterkeria-errealitateen intzidentzia eta bilakaera ezagutarazteko, Europako erakundeek oinarritzeko hiru jarraipen-adierazle ezarri dituzte:

- Pobrezia-aren arriskuan dagoen biztanleriaren proportzioa gizarte-transferentzien ondoren (pobrezia-tasa). Gizarte-transferentziak aintzat hartu ondoren, adierazle horrentzat finkatutako pobrezia-atalasearen azpitik (errenta nazional erabilgarri baliokidearen medianaren % 60) kokatzen diren pertsonak dira horiek.
- Gabezia material larriko egoeran dauden proportzioa (gabezia materialaren indizea). Gutxienez, honako egoera hauetako lauri aurre egiteko baliabideak ez dituzten pertsonak biltzen ditu: i) alokairua eta faktura arruntak ordaintzea, ii) etxebizitza behar bezala berotzea, iii) ustekabeko gastuei aurre egitea, iv) haragia, arraina edo proteina baliokideak jatea modu erregularrean (txandakako egunak), v) astebete etxetik kanpo joatea oporretan, vi) automobila izatea, vii) garbigailua izatea, viii) koloretako telebista izatea, edo, ix) telefonoa izatea.
- Lan-intentsitate oso baxua duten etxeko unitateetan bizi diren proportzioa (lan-intentsitate baxuaren indizea). % 20an finkatutako atalasearen azpitik kokatutako etxeko unitateko lanaren intentsitatea duten etxeko unitateetan bizi diren 60 urtetik beherako pertsona dira.

Hiru adierazle horiek modu sintetikoan elkartzen dira adierazle konbinatu batean, AROPE tasa izenarekin ezaguna ingelesezko siglei jarraiki (*at risk of poverty and/or exclusion*). Adierazle horrek pobrezia-arriskuan gabezia material larriko egoeran edo

lan-intentsitate oso baxuko etxeko unitateetan bizi diren kopuruak konbinatzen ditu.

Europako erakundeek gaur egun mugatutako formatuan (60 urtetik gorako pertsonak lan-intentsitate baxuko etxeko unitateekin lotutako arriskutik kanpo uzteko duela gutxi egindako aldaketa txikiarekin), AROPE adierazleak eskuragarri daude EAEn 2000-2008 aldirako, Pobrezia- eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestari esker (PGDI).


Adierazleek, oro har, murrizteko joera erakusten dute denboraldi horretan. Horrela, AROPE tasa etengabe murriztu da 2000. urteko % 19,8tik 2008ko % 17,9ra, argi eta garbi Europar Batasuneko % 23,6aren azpitik, eta, are gehiago, euroaren herrialdeek urte horretan izandako % 21,4aren azpitik. Datu absolututan, arriskuan dauden biztanleen kopurua 2000. urtean erregistratutako 410.881etik 2008ko 385.087ra jaitsi da aztertutako aldian, eraginpeko pertsona kopuruaren % 6,3ko beherakada erlatiboa adieraziz erreferentzia- denboraldian (ikus 1. grafikoa).

PGDIaren bitartez lortutako informazioaren arazoa da ez duela aukera ematen 2007-2008 urteetatik aurrera hasitako krisi ekonomikoaren aldia aztertzeke. Horren ondorioz, ezinbestekoa da pobrezia- eta gizarte-bazterkeria-azterketarako estatistika-sistemak Euskadin, Espainian eta Europar Batasunean aurre egin behar duen problematika kontuan hartzea. Horri dagokionez, bi zailtasun handi aipatu behar dira:

1. Alde batetik, EAEn buruzko AROPE datu fidagarriak izateko aukera ematen duen estatistika-iturririk ez dago gaur egun.

Adierazle horiek kalkulatzeko estatistika-iturri egokiena, PGDI, lau urtean behin egiten da. EInen Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI) urtero egiten bada ere, eragiketa hori hiru muga garrantzitsurengatik nabarmentzen da, erabiltzea desegokia eginez: a) autonomia-erkidegoei buruzko datuak atzerapen nahiko handiarekin hedatzen dira; b) lagin murrizetan oinarritzen dira lurralde-aldaketa handiak dituen fenomeno bat neurtzeko, eta, batez ere, c) prekarietate ekonomikoa aztertzeke gutxi egokitutako galdesorta batean oinarritzen dira. Pobrezia-aren aurka borrokatzea bideratutako asistentzia-zerbitzuak diru-sarreraren sortan, bereziki EAEn, galdera bakar batera mugatzen da BBI, eta, gainera, modu oso orokorrean egiten da. Horren ondorioz, asistentzia-zerbitzuak diru-sarrerak nabarmen gutxien dira (DBE, EGPO, GLL, gizarte-zerbitzuen bestelako laguntza ekonomikoak, eta abar), eta diru-sarrera horiek behar bezala neurtzea funtsezkoa da horien garapen handia duten lurraldeetan, hala nola EAEn. Beren aldetik, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Premiei buruzko Inkesta (GZEE-GPI), lau urtekoa eta PGDI egiten den denboraldien artean eginga, pobrezia ekonomikoaren azterketara hurbiltzen da, baina soilik errentarekin zerikusia ez duten adierazle bitartez.

1. grafikoa. AROPE ADIERAZLEEN BILAKAERA EAEn.
2000-2008 aldia (%tan)



Iturria: PGDI 2000, 2004 eta 2008. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EOB.
Oharra: Eurostat berrikuspena bildu da (0-59, lan-intentsitate baxua ez).

2000 2004 2008

2. Bestalde, AROPE adierazleek berezko zailtasun batzuk agertzen dituzte pobreziako eta bazterkeriako egoerak neurtzeko. Azpimarratu beharreko lehen alderdia da pobrezia neurtzeko erabilitako adierazleak (diru-sarreraren medianaren % 60), nagusiki desberdintasun-adierazle bat izateaz gain, harreman estuagoa dauka ongizaterik ezeko arazo orokorrak detektatzearekin, pobreziako arrisku-egoerak detektatzearekin baino. Aspalditik dakigu EAEn medianaren % 40ko adierazlea dela pobrezia-arriskuaren inpaktuaren kalkulu zehatzago batera gehien hurbiltzen dena.

Antzeko ildo batetik, AROPE adierazleak kontuan hartzen dituen gabezia materialeko egoerak prekarietate-maila ezberdinekin lotzen dira: adierazle batzuk zuzenean lotzen dira pobreziarekin, hala nola ez ordaintzeak edo elikadurako arazoak, eta beste batzuk —hala nola, oporrak baliatzeko gutxieneko denboraldi bat izatea— nahitaez pobreziarekin zerikusirik izan beharrik ez duten prekarietate ekonomikoko arazoekin lotzen dira. Horretaz gain, neurketaren ondoan ezartzen dira epe laburreko kontsumoko gabeziak —bazkari egoki bat egin ahal izatea, adibidez— epe ertain eta luzeko kontsumo-prozesuekin lotutako zailtasunekin —automobil bat erostea, garbigailua erostea, eta abar—.

Adierazitako zailtasunek ez dute garrantzi txikiagoa, izan ere erabili beharreko pobrezia-adierazlea egokitzen bada, esate baterako medianaren % 40a baliatuz, % 60aren ordeaz, arriskuan

dagoen kolektiboaren dimentsioa nabarmen aldatzen baita. Hala, AROPE adierazle orokorrak 2008an erakusten duen % 17,9arekin alderatuta, zifra % 8,3ra jaisten da medianaren % 40 erabiltzen bada. Kasu horretan, gainera, deigarria da adierazlearen hobekuntza bakar bat detektatzen dela 2004-2008 aldian, murrizketa nabarmenarekin, % 10,1etik % 8,3ra. Pobreziako eta bazterkeriako arrisku-tasa, aldiz, % 9,6tik % 10,1era igo zen 2000-2004 aldian. Denboraldi horretan ikusitako bilakaera negatiboak nagusiki gabezia materialeko arazoez 2000-2004 aldian izandako goranzko inpaktuekin du zerikusia; izan ere, denboraldi horretan pertsona gazte kopuru handi batek bizitza independente bat hasi zuen, eta horietako askok bistako gabezia ekonomikoekin, eta, era berean, denboraldi horretan atzerriko immigrazioa ere handitu zen.

PGDIrako edo GZEE-GPIrako datuen bilketa lau urtean behin egiten dela aurre egin behar izateaz gain, EAEn garatutako estatistika-diseinuaren abantailetakoa bat da AROPE adierazlearen problematikei egokitutako konponbide bat pentsatzeko aukera ematen duela, pobreziarekin lotura estuena duten alderdietara murriztuta (ongizaterik ezeko arazo orokorragekin lotutakoei kontrajarrita), 2004. urteaz geroztik aztertutako egoeren bi urteko bilakaera-adierazle bat ahalbidetu dezakeena. Oraindik urteko datuak ez dauden arren, hurbilketa horrek aukera ematen du azkenaldiko krisi ekonomikoaren inpaktuaren neurketara hurbiltzeko, 2010. urtera arteko informazioa izanik, eta 2012. urte amaieran berrituko dena 2012ko PGDitik ateratako datuekin.

Adierazitako planteamendua operatiboa egitearren, AROPE adierazle egokitu bat mugatu da EAEko pobrezia eta bazterkeriako arrisku-egoerak neurtzeko, eta honako dimentsio hauek hartzen ditu kontuan:

- Epe laburrean etxeko unitatearen oinarrizko premiak behar bezala estaltzearekin lotutako pobrezia-arazoak.
- Etxebizitzan bizi-baldintza onargarriak izatearekin eta ustekabeko gastuei aurre egiteko aukera ematen duen gordetako gutxieneko ondare bat izatearekin lotutako pobrezia eta/edo gabezia arazoak.
- Pobrezia-errealitateekin lotuta AROPE adierazlean aztertzen diren gabezia materialeko egoerak.
- Lan-intentsitate baxuko eta babesgabetasuneko arazoak, etxeko unitatean, ikasleak ez diren 18-59 urteko pertsonen artean, enplegu bat ez izatearen ondorioz, edo, langabeziaren kasuan, langabeziako prestaziorik ez izatearen ondorioz, betiere, azken kasu horretan, laneratzeko arazo bereziak ez baldin badaude edo azken urtean 3 hilabetetik beherako lan-esperientzia ez baldin badu.


Gizarteratze Aktiboko Euskal Plan honen testuinguruan, ondorioztatzen da adierazle horrek aukera ematen duela EAEn pobrezia eta/edo bazterkeriako benetako arrisku-egoeran dauden kolektiboek AROPE tasa orokorretik ondorioztatzen dena baino hobeto egokitzen den kuantifikazio bat egiteko. Izan ere, tasa hori ongizaterik ezeko egoera orokorren neurketarako funtzionalagoa da, pobrezia larriko arrisku-egoera bat inplikatzan duten ala ez bazter utzita.

AROE adierazle egokituaren bilakaeraren analisiak agerian jartzen ditu interes bereziki alderdi batzuk:

1. Lehenik, berretsi egin da 2000-2004 aldian pobrezia eta gabezia materialaren inpaktuaren goranzko joera ikusten dela, hori neurtzen duen adierazle espezifiko % 4,1etik % 4,5era igo baita. Lan-intentsitate baxuko eta babesgabetasuneko adierazlearen egonkortasuneko testuinguru batean, gorakada horrek, era berean, AROPE tasa egokituaren gorakada suposatzen du, aldi horretan % 7,6tik % 8,1era igoz.
2. 2004-2008 aldian adierazlearen bilakaera positiboa berresten bada ere, hobekuntza nabariena, egia esan, 2004-2006 aldian izan zen; izan ere, 2006an, AROPE tasa egokia % 7,6 izan zen. Hala ere, horrek 2000. urtean ikusitako mailara itzuli zela adierazten du besterik gabe.
3. 2006. urtetik aurrera, AROPE tasa egokituak, egia esan, goranzko joera izan du, modu nabariagoan 2008-2010 aldian. Azken urte horretan, % 8,5eko zifra lortu zen, hamarkadako handiena. Gorakadaren osagaiak, hala ere, ezberdinak dira biurtekoaren arabera. 2006-2008 aldian, pobrezia eta gabezia materialaren adierazlea izan zen nagusiki handitu zena (% 4tik % 4,4ra), eta lan-intentsitate baxuko eta babesgabetasuneko adierazlea, aldiz, erabakigarria izan zen 2008-2010 aldian, % 4,1etik % 5,1era igoz.

Hortaz, 2006-2010 laurtekoaren datuek adierazten dutenez, 2006-2008 biurtekoaren kasuan ez bezala —pobrezia eta gabezia zifretan goranzko joera txiki bat ikusten da—, diru-sarrerak bermatzeko sistemaren lege-erreformak, 2008an, babes ekonomikoko mailak nabarmen hobetuz, lagundu egin du hortik aurrera pobrezia eta gabezia materialaren inpaktua egonkortzeko, krisiak lan-intentsitateko eta lan-babeseko mailaren gainean duen presio indartsua gorabehera. Mendekotasun-egoeran daudenei laguntzeko sistemako prestazio ekonomikoen garapenak ere inpaktu positiboa izan du norabide berean (ikus 2. grafikoa).

2. grafikoa. AROPE ADIERAZLE EGOKITUEN BILAKAERA EAEn. 2000-2010 aldian (%etan)



Iturria: PGDI 2000, 2004 eta 2008, eta GZEE-GPI 2006 eta 2010. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EOB.

Hala ere, adierazi beharra dago 2006tik aurrera adierazleek erakutsi duten goranzko joera bat datorrela EAEko biztanleria bolumenaren hazkundearekin, eta horrek bilakaera konplexuago bat adierazten du, eraginpeko pertsona kopuruari dagokionez. Hala, arriskuan dauden pertsonen kopurua 2000-2006 aldian 170.000tik behera mantendu ondoren, pobreziako eta bazterkeriako arriskuan daudenen bolumena 185.806raino handitu zen 2010ean, 2006ko zifra baino % 14 handiagoa; izan ere, urte horretan inplikaturiko pertsonen kopurua 162.932 izan zen (ikus 1. taula).

Bestalde, adierazi beharra dago pobreziaren eta gabezia materialaren adierazlea 2006-2010 aldian egonkortzeak ez duela esan nahi diru-sarreraren pobreziarekin eta mantentze-pobreziarekin lotutako adierazleak krisiarekin batera txartu

ez direnik. Horrela, 2008-2010 aldian, mantenuko oinarritzko premiak estaltzeko gabezia-arazoak dituzten pertsonen proportzioa % 1etik % 1,6ra igo da biztanleria nazionalaren artean, eta % 15,7tik % 25,7ra atzeritarren artean.


Hala ere, pobreziaren eta gabezia materialaren adierazle guztiak atzeritarren artean txartzen diren testuinguru batean, biztanleria nazionalari dagokionez azken hamarkadan ikusitako gabezia materialeko arazoen eta metatze-pobreziaren beherakada-joera sendotu da 2008-2010 aldian (epe luzerako bizi-baldintzekin lotutako gabezia-egoerak edo gastu-egoera bereziei aurre egiteko zailtasunak aurrezki nahikorik ez izatea-gatik). Faktore hori lagungarria da azken urteetan pobreziako eta gabezia materialeko adierazleen goranzko presioari eusteko (ikus 3. eta 4. grafikoak).

1. taula. **AROE ADIERAZLE EGOKITUEN BILAKAERA EAEN. 2000-2010 aldia (datu absolutuak eta % bertikalak)**

		2000		2004		2006		2008		2010	
		Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.
Pobrezia / gabezia arriskua	Bai	83.902	4,1	93.428	4,5	86.746	4,0	94.580	4,4	96.321	4,4
	Ez	1.986.498	95,9	1.990.753	95,5	2.062.283	96,0	2.057.204	95,6	2.085.107	95,6
Lan intentsitate baxua / babesgabatasuna	Bai	102.940	5,0	105.786	5,1	92.423	4,3	88.837	4,1	110.163	5,1
	Ez	1.967.460	95,0	1.978.395	94,9	2.056.607	95,7	2.062.948	95,9	2.071.264	94,9
AROE adierazle egokituak	Arriskuan	157.633	7,6	169.770	8,1	162.932	7,6	165.037	7,7	185.806	8,5
	Arriskurik gabe	1.912.767	92,4	1.914.411	91,9	1.986.098	92,4	1.986.748	92,3	1.995.621	91,5
Guztira		2.070.400	100,0	2.084.181	100,0	2.149.030	100,0	2.151.785	100,0	2.181.427	100,0

Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei Buruzko Inkesta 2000, 2004 eta 2008, eta GZEE-Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2006 eta 2010. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EOB.

3. grafikoak. **POBREZIAKO EDO GABEZIAKO ARRISKU-ADIERAZLEAREN OSAGAIEN BILAKAERA. 2000-2010. Biztanleria nazionala (%etan)**



Iturria: PGDI 2000, 2004 eta 2008, eta GZEE-GPI 2006 eta 2010. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EOB.

Azkenik, interesgarria da kontuan hartzea azken urteko pobreziako eta bazterkeriako arrisku-talde nagusiak, eskuragarri dugun estatistika-informazioarekin (2010ekoa). Horren ildotik, AROPE tasa egokituak pobreziako eta bazterkeriako arriskuaren 2010eko inpaktu diferentziala erakusten digu, erreferentziazko pertsonatzat 45 urtetik beherako (35 urtetik beherako erreferentziazko pertsona dutenen kasuan % 19,1, eta 35-44 urteko pertsona bat dutenen kasuan % 9,4) eta nazionalitate ez-espainoleko (% 39,7, espainolen kasuan % 6,5) emakume bat (% 13, eta erreferentziazko pertsonatzat gizon bat dutenen kasuan % 7,5) duten etxekoek unitateetan bizi direnen artean.

Jarduerarekiko harremana kontuan hartuta, adierazlearen mailarik altuena kide aktibo guztiak lanik gabe (% 76,7) edo lanarekin, baina lan-egoera egonkorrik gabe (% 16,8) dituzten etxekoek unitateei dagokie. Arriskuaren inpaktua ere altua da 16 urtetik beherako gazteak dituzten etxekoek unitateetan (% 10,1, eta adingaberik ez duten etxekoek unitateen kasuan, aldiz, % 7,4).


AROE adierazle egokituaren 2006-2010 aldian ikusitako txartzeak azaltzen du, neurri handi batean, konparatiboki zergatik duten posizio negatiboa 45 urtetik beherako pertsonak edo

atzerritarrak nagusitzat dituzten etxekoek unitateek, nahiz langabeak eta 16 urtetik beherako gazteak dituzten etxekoek unitateek. Talde guztietan, eskuragarri ditugun datuek arrisku-mailen txartze nabarmena erakusten dute 2006-2010 laurtekoan.

Hala ere, erreferentziazko aldian, bi joera nabarmentzen dira era berean, orain arte nagusitzen zirenen aurkako norabidean mugitzen direnak oro har. Hala, alde batetik, erreferentziazko pertsonatzat gizon bat duten etxekoek unitateetako pertsonak eraginpean hartzen dituen txartze konparatiboa nabarmentzen da (% 6,2tik % 7,5era handitu zen AROPE tasa egokituan, eta erreferentziazko pertsonatzat emakume bat duten etxekoek unitateetan % 14tik % 13ra murriztu zen). Azpimarratu beharreko beste datua da pertsona landunak dituzten etxekoek unitateetan AROPE tasa egokituak erakusten duen goranzko joera, bereziki etxekoek unitatean kontratazio-egoera ez-egonkorrean dauden pertsonak bizi direnean (ikus 2. taula).

Lurraldeei dagokienez, Bizkaia da 2006-2010 aldian AROPE tasaren gorakadaren eragin handiena pairatu duen lurraldea, tasaren 2,2 puntuko gorakadarekin (% 8,4tik % 10,6ra). Araba eta Gipuzkoa nabarmen aldentzen dira 2010ean Bizkaiko tasatik, % 6,8ko eta % 5,9ko zifrekin, hurrenez hurren.

4. grafikoa. **POBREZIAKO EDO GABEZIAKO ARRISKU-ADIERAZLEAREN OSAGAIEN BILAKAERA. 2000-2010.**
Biztanleria atzerritarra (%etan)



Iturria: PGDI 2000, 2004 eta 2008, eta GZEE-GPI 2006 eta 2010. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EOB.

2. taula. AROPE TASA EGOKITUAREN BILAKAERA
2006-2010 aldian (%tan)

ETXEOEN UNITATEKO ERREFERENTZIAZKO PERTSONAREN ETA ETXEOEN UNITATEAREN ERREFERENTZIAZKO ALDAGAIK		AROPE tasa egokitua		
		2006	2010	Aldea
Erreferentzia-pertsonaren sexua	Gizona	6,2	7,5	1,3
	Emakumea	14,0	13,0	-1,0
Erreferentziazko pertsonaren adina	< 35	12,6	19,1	6,5
	35-44 urte	7,5	9,4	1,9
	45-54 urte	6,2	5,7	-0,5
	55-64 urte	9,1	8,9	-0,2
	65-74 urte	5,2	7,0	1,8
	> 75 urte	6,0	5,7	-0,3
Erreferentziazko pertsonaren nazionalitatea	Estatua	6,5	6,5	0,0
	Ez estatua	30,0	39,7	9,7
Etxeoen unitateko pertsonen egoera jarduerari dagokionez	Aktiboak, denak landun egonkorak	2,3	2,4	0,2
	Aktiboak, denak landunak, baten bat egonkorra	2,0	4,6	2,6
	Aktiboak (langabeak edo landunak), baten bat egonkorra	4,8	6,4	1,6
	Aktiboak (langabeak edo landunak), bat ere ez egonkorra	14,9	16,8	1,8
	Aktiboak, guztiak langabeak	78,2	76,7	-1,5
	Aktiborik gabe	14,0	9,8	-4,2
16 urtera arteko adingabeen kopurua etxeoen unitatean	Adingaberik gabe	7,4	7,4	0,0
	Adingabeekin	7,9	10,1	2,1
Lurralde Historikoa	Araba	8,8	6,8	-2,0
	Bizkaia	8,4	10,6	2,2
	Gipuzkoa	5,7	5,9	0,2
Guztira		7,6	8,5	0,9

Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei Buruzko Inkesta 2000, 2004 eta 2008, eta GZEE-Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2006 eta 2010. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EOB.

3

GIZARTERATZE AKTIBOKO EUSKAL PLANA 2012-2016



3.1. GIZARTERATZE AKTIBOKO EUSKAL PLANAREN XEDEA

EcoEuskadi 2020 Estrategiaren eta Europa 2020 Estrategiaren asmoa da pobrezia eta gizarte-bazterkeria % 25 murriztea 2020. urterako, eta, horien ildotik, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak, hasiera batean, pobrezia eta gizarte-bazterkeriako egoeran zeuden pertsonen kopurua EAEn % 12,5 murrizteko helburua ezarri zuen, betiere bere indarraldian, hau da, 2016. urtera arte.

Hala ere, krisiak duen inpaktuak zaila egiten du pobrezia eta/edo gabezia materialeko arriskua 2012-2016 aldian nabarmen murrizteko aukeran pentsatzea. Izan ere, 2010-2016 aldian adierazle horrentzat proiektatutako eszenatokiak erakusten duenez, gaur egun ditugun babes-modalitateei eutsita ere, pobrezia eta gabezia arriskuaren intzidentziak pixkanaka handitzeko joera izango du hurrengo urteetan, 2010eko % 4,4tik 2016ko % 4,7ra igoz. Gorakada argiagoa izango da termino absolututan, arriskuan dauden kopurua 2010eko 96.321etik 2016ko 104.738ra igoz (ikus 3. taula).

Zerga-arloko diru-sarreraren bilakaera aintzat hartuta, arrakasta gisa ikus liteke proiektatutako egoera, batez ere termino erlatibotan aurreikusitako gorakada murriztea lortuko balitz, 2016an arrisku-maila 2008-2010 aldian ikusitako % 4,4an kokatuz. Nolanahi ere, azken bilakaera ekonomikoa aintzat hartuta, bistakoa dirudi Europako aurreikuspenetatik ondorioztatzen diren pobrezia eta gabezia mailak murrizteko helburu zabalak nagusiki 2016-2020 aldira murriztu beharko liratekeela.

3. taula. POBREZIAKO EDO GABEZIAKO ARRISKU-ADIERAZLEAREN AURREIKUSITAKO BILAKAERA EAEn. 2008-2016 aldia (Arriskuan dauden pertsonak eta biztanleriaren gainera intzidentzia, %tan)

URTEA	ARRISKUAN DAUDENAK	BIZTANLERIAREN GAINERA INTZIDENTZIA (%tan)
2008	94.580	4,4
2010	96.321	4,4
2012	98.688	4,5
2014	101.997	4,6
2016	104.738	4,7

³⁸ Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak datu makroekonomiko horien bilakaerari buruzko informazioa ahalbidetu du, behin-behineko moduan, eta behin betiko txostena argitaratu baino lehen. Gure pobrezia-aurreikuspenen eraginik izan dezakeen aldaketarik egiten bada, modu koherentean egokituko lirateke urteko aurrekontu-plangintza egiterakoan.

³⁹ Estatistika-ereduaren aukeraketa nahiz pobrezia eta bazterkeria-arriskuko egoeren bilakaeraren kalkulak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika Organoak egin ditu.

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren helburu kuantitatiboak zehazteko gako-adierazleekin lotutako aurreikuspenak ezartzerakoan, zehaztu behar da kontuan hartu dela Eusko Jaurlaritzaren organo eskudunek EAEn epe laburrean eta ertainean aurreikusitako egoera makroekonomikoa.

Horren ildotik, ondoren 2010-2015 aldian Euskadirentzako datu makroekonomiko nagusien bilakaera-aurreikuspenak aurkezten ditugu, honako hauek barnean hartuta: BPG, langabezia-tasa, jarduera- eta langabezia-tasa, barne-eskaria, kontsumoa, landun bakoitzeko produktibitatea, etab. Aurreikuspen horiek Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2012ko maiatzean landutako txostenean biltzen dira³⁸ (ikus 4. taula).

Bereziki garrantzitsua da aipatzea testuinguru horretan pobrezia eta gabezia adierazleen 2010-2016 aldiko³⁹ bilakaera kalkulatzeko erabilitako estatistika-ereduak kontuan hartzen duela langabezia eragina, baina baita beste aldagai garrantzitsu batzuen eragina ere, langabezia iraupena, dinamika demografikoa, eta abar. Horietatik, gabezia inpaktuaren goranzko joera ondorioztatzen da hurrengo urteetarako, baita Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren egoera makroekonomikoan 2013tik aurrera aurreikusitako langabezia azken beharakadaren testuinguruan ere. Pobrezia eta gabezia arriskuaren goranzko presio hori nagusiki honako bi gertakari hauekin lotzen da:

- Immigrazioak goranzko joerari eutsiko diola aurreikusten da (pobrezia eragin handiagoa pairatzen dute, eta zailtasun handiagoak dituzte babes izateko azken erreformen ondoren).
- Biztanleria langabezia egoerak okerrera egingo du (subsidioren eta prestazioen bidezko babesaren ehuneko txikiagoa, eta langabezia iraupenaren luzapena).

Faktore horiek langabezia-tasaren beharakadaren inpaktu positiboa ahultzen dute, 2013. urtetik aurrera gabezia goranzko joerari eustea azalduz. Azken urteetan gertatu denaren antzeko fenomeno da —kontrako zentzuan—, gabezia eta pobrezia-tasaren mantentze txiki batekin, langabezia gorakada handia gorabehera. Horren arrazoiak da pertsonen babes

handiagoa jasotzen dutela langabeziagatiko prestazio-sistemaren bitartez beren lanpostua galdu ondoko lehen uneetan.

2013tik aurrera langabeziaren beherakadak eragin positiboa izango du pobreziako eta gabeziako adierazleengan, betiere iraupen luzeko langabeziaren eta langabeziagatiko prestazioen bidezko babesik gabeko langabeziaren inpaktua ere murrizten denean. Horretarako denbora beharko da, eta, gainera —aurreikuspenen arabera—, immigrazioarekin konpentsatuko da neurri batean. Izan ere, immigrazioak goranzko joerari eutsiko dio oraindik, langabezia-tasaren beherakada-prozesuak aurrera egiten duen heinean gora eginez. Hala ere, immigrazio berriak zailtasun handiagok izango ditu DBE moduko prestazioak eskuratzeko.

Pobrezia-adierazlea % 4,4an mantentzea lortzeko, bi jardun-ildo behar dira. Lehen jardun-ildoak ezinbestekoa egiten du egungo babes-maila funtsezkoan mantentzea. Diru-sarrerak bermatzeko egungo gizarte-politikei eusten ez bazaie, pobreziaren eta gabeziaren gorakada proiektzioetan kalkulaturako baino askoz handiagoa izango litzateke, azken horiek funtsezko babesari eutsiko zaiola hartzen baitute oinarri gisa.

Bigarren esku-hartze ildoaren arabera, enplegurako laneratzeko prozesuetan hautaketa-ekintza bat txertatu behar da. Helburua da politika pasiboaren onuradunengan inpaktu diferentzial bat lortzea, aukera emanez kolektiboaren zati bat enplegurantz bideratzeko, aldi berean arrisku-taldeetako antzeko pertsona kopuru bat (prestazio guztiak galtzen dituzten etxekoek unitateak) gabezia eta pobrezian erortzea saihestuz. Ezinbestekoa da alderdi horiek aurreikustea gizarteratze aktiboko politiken kudeaketan, pobrezia-eta gabezia-arriskua murrizteko efektu garbi positiboa lortuz.

Kontuan hartuta 2013. urtetik aurrera politika aktiboen kudeaketa langabeziaren eraginaren txikitzeko joerak definitutako testuinguru batean garatuko dela, adierazitako helburuak egingarriak izan daitezke politika horiek behar bezala kudeatzen badira. Horretaz gain, ez dugu ahaztu behar pobreziaren eta gabeziaren aurreikuspena % 47 dela, eta proposaturako helburua egungo zifra % 4,4an mantentzean oinarritzen da. Aldeak kuantitatiboki txikiak dira, eta, beraz, egingarria da.

Adierazitakoa aintzat hartuta, azpimarratu behar da 2012-2016 aldian pobreziaren eta bazterkeriaren faktoreak murrizteko helburuak lan-intentsitate baxuaren eta babesgabetasunaren eragina murriztean oinarritu behar direla, 2013-2016 aldian batez ere.

4. taula. 2012-2015 ALDIKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA: ADIERAZLEAK

2012-2015 ALDIKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA	2011 2005eko maila = 100	2011	2012	2013	2014	2015
BPG erreala	106,8	0,6	-1,3	0,2	1,7	1,8
BPG nominala (milioi eurotan)	66.898,2	2,3	-0,1	1,4	3,3	3,7
Azken kontsumoa	109,6	0,3	-0,8	0,1	1,0	1,0
Kontsumo pribatua	105,5	0,6	-0,3	0,1	0,9	1,0
Kontsumo publikoa	126,5	-0,8	-2,5	0,1	1,1	0,8
KFE	85,1	-1,5	-3,7	-2,2	2,6	3,2
Barneko eskaria	102,8	-0,1	-1,4	-0,4	1,4	1,6
Barne-eskariaren ekarpena	106,4	-0,1	-1,5	-0,3	1,4	1,6
Kanpo saldoaren ekarpena	-	0,7	0,2	0,5	0,3	0,2
Deflaktorea	109,3	1,6	1,2	1,2	1,6	1,9
Enplegua (landunak)	967.337	-0,6	-1,8	-0,8	0,8	0,8
Produktibitatea landun bakoitzeko (mila eurotan)	63,3	1,5	0,5	1,0	0,9	1,0
Langabezia-tasa	-	10,8	12,1	12,4	11,2	9,9
Jarduera-tasa		56,2	56,0	56,1	56,0	56,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, 2012ko maiatza (behin betiko txostena argitaratzearen zain).

Adierazle horri dagokionez, proiektatutako bilakaera-egoerak, Planean aurreikusitako esku-hartzeen absentsian, okerrera joeraren luzapen nabarmena erakusten du 2010-2012 aldian. Hala, lan-intentsitate baxuko eta babesgabetasuneko arriskuak etengabe gora egiten du, 2008ko gutxieneko % 4,1etik 2012ko gehieneko % 5,7ra. Termino absolututan, arriskuan dauden kopurua 2008an ikusitakoen 88.837etatik 2012an aurreikusitako 124.810etara igo da.

5. taula. LAN-INTENTSITATE BAXUKO ETA BABESGABETASUNEO ADIERAZLEAREN AURREIKUSITAKO BILAKAERA EAEN. 2008-2016 aldia (Arriskuan dauden pertsonak eta biztanleriaren gainera intzidentzia, %tan)

URTEA	ARRISKUAN DAUDENAK	BIZTANLERIAREN GAINERA INTZIDENTZIA (%tan)
2008	88.837	4,1
2010	110.163	5,1
2012	124.810	5,7
2014	120.592	5,5
2016	113.261	5,1

Oharra: Planean aurreikusitako esku-hartze proposamenak izan gabe.

Hala ere, Euskadin epe ertainean aurreikusitako egoera makroekonomikoak aukera ematen du egoeraren hobekuntza nabarmen bat aurreikusteko 2012az geroztik, lan-intentsitate baxuko eta babesgabetasuneko adierazlea 2016an berriz ere 2010ean ikusitako % 5,1ean kokatuz (hala ere, eraginpeko pertsonen zifra absolutua 2010ekoa baino pixka bat handiagoa izango da, euskal biztanleriaren guztizko bolumenean aurreikusitako gorakadaren ondorioz).

Egoeraren aldaketa-ikuspegi horrengatik, nahiz Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana enpleguarekin lotutako alderdietan oinarritzeagatik, eremu horretan proposatzen da arrisku-egoeraren dauden bolumena % 12,5 murrizteko helburuari eustea. Horrek ekarriko luke lan-intentsitate baxuko eta babesgabetasuneko arazoak dituen kolektiboaren bolumena 2010eko 110.163tik 2016ko 96.393ra murriztea, Planean aurreikusitako jardunen ondorioz.

GIZARTERATZE AKTIBOKO EUSKAL PLANAREN HELMUGA, enpleguarekin lotutako alderdietan: arrisku-egoeraren dauden bolumena % 12,5 murrizteko helburuari eustea.

2016. urterako proiektatutako eszenatokiaren kalkulaturako 113.261 lagunei dagokionez, esku-hartze gehigarririk gabe, proposamen horrek % 14,9ko murriztapena ekarriko luke Planaren aplikazioko azken urterako kalkulaturako arrisku-egoeretan (esku-hartzerik ez bada egiten).

Lan-intentsitate baxuko eta babesgabetasuneko arriskuaren murriztapena beti pobreaki eta gabeziaren arriskuaren prebentzio batekin etorriko balitz, eta 2016eko pobreaki- eta gabezia-tasa 2010eko % 4,4an mantentzea lortuko balitz, behar bada horren inpaktu orokorra pobreaki eta bazterkeriaren arriskuan dagoen biztanleriaren guztizko bolumenean, oro har, % 5,9an kokatuko litzateke 2010-2016 aldian, AROPE hurbilketa egokituari jarraiki. Zifra absolututan, horren esan nahiko luke pobreaki eta bazterkeriaren arriskuan dauden kopurua 2010eko 185.806tik 2016ko 174.841era jaitea.

EAEko biztanleriaren gainera intzidentzia orokorrari dagokionez, adierazitako helburuak betetzeko pobreaki eta bazterkeriaren arrisku-egoeraren inpaktua 2010eko % 8,5etik 2016ko % 7,9ra murriztu beharko litzateke, betiere AROPE adierazle egokituaren bitartez neurtuta. Horrek inplikatu luke, gizarte-adierazleei dagokionez, EAE krisi ekonomikoaren aurreko mailetan kokatzea, horren bitartez krisiak Euskadin bizi-baldintzen txartze nabarmena eragitea ekiditeko.

6. taula. AROPE ADIERAZLE EGOKITUAREN AURREIKUSITAKO BILAKAERA EAEN (ESKU-HARTZEAREKIN ETA GABE). 2010-2016 aldia (Arriskuan dauden pertsonak eta biztanleriaren gainera intzidentzia, %tan)

URTEA	ARRISKUAN DAUDENAK	BIZTANLERIAREN GAINERA INTZIDENTZIA (%tan)
Esku-hartzerik gabe		
2010	185.806	8,5
2016	194.446	8,7
Esku-hartzearekin		
2010	185.806	8,5
2016	174.871	7,9

3.2.

HELBURU ESTRATEGIKOAK, HELBURU OROKORRAK ETA JARDUNAK

Pobrezia eta gizarte-bazterkeria murrizteko helburu horretarantz aurrera egiteko, Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana 9 helburu estrategikoetan egituratzen da, eta, denek batera, eta beren dimentsioetatik, gizarteratze aktiboaren esku-hartzearen metodoa eta ikuspegia garatzen dute.

Beren aldetik, helburu estrategiko horiek 26 helburu orokorragoetan egituratzen dira, eta, azkenik, horiek 146 neurritan banatzen dira. Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren 9 helburu estrategikoen 2. irudian laburbiltzen denez, lehenengo bostak sektorialak dira, hau da, enplegu, gizarte-zerbitzu, hezkuntza, etxebizitza eta gizarteratzeko osasuneko esku-hartze arloetan biltzen dira. Gero aztertuko dugunez, bost sistemen arteko koordinazioak etengabeko premia izan behar du.

Horretaz gain, beste 4 helburu estrategikoen oinarriak esku-hartze arlo guztiek biltzen dituzte alderdi horizontalak dira: hala, erakundeen, sailen eta sistemen arteko koordinazioa eta lankidetzaz indartzen dira, Hirugarren Sektorearekiko elkarlana sustatzen

da, diru-sarrerak bermatzeko politiketan eta enplegu-politiketan berritzeko premia proposatzen da, eta, azkenik, arau-esparrua gizarteratze aktiboko eredu berrira egokitzeko premiari heldu zaio.

Bederatzi helburu estrategikoetako bakoitza helburu orokorrek eta neurriek garatzen dute, eta, helburu nahiz neurri horiek, batzuetan, esku-hartze eta kudeaketa eredu berriak eskatzen dituen alderdi berriak dira, baina beste batzuetan, aldiz, lehendik dauden bestelako plan eta ekimenen helburuen eta neurrien jarraipena dira. Helburu eta neurri horiek zuzenean (gutxi gorabehera) heltzen diote gizarte-bazterkeriaren/gizarteratzearen alderdietakoren bati. Hala, helburu estrategiko bakoitzaren azken helburu orokorrek eta azken neurriek nabarmentzen dute bat etortze hori, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planean bilduz lehendik zeuden planen helburuak.

Bederatzi helburu estrategikoetako bakoitzaren garapena bildutako jardunen erantzukidetasuna duten eta horietan inplikatuak dauden erakundeen zerrenda batekin hasten da, beren eskumenen adierazgarri gisa.



HELBURU ESTRATEGIKOAK 1

Pertsona kalteberenei gizarteratzea sustatzea enpleguaren aktibaziotik abiatuta, pobrezia eta gizarte-bazterkeria murrizteko, errenta-maila duina ziurtatuz eta enplega daitezkeen pertsonen enplegu duina lortzeko aukera emanez

1.1. Helburu Orokorra

Zailtasun handienak dituzten pertsonen intentsitate handiagoko laguntza pertsonalizatua ematea; erreferentziazko aldi horretan pertsona horiek lortuko dituzten baliabideen gutxieneko kopuruan gauzatu da laguntza hori.

1.2. Helburu Orokorra

Zailtasun handienak dituzten pertsonen enplegarritasuna areagotzea.

1.3. Helburu Orokorra

Enpleguaren iraunkortasuna eta aurrerapena sustatzea.

1.4. Helburu Orokorra

Enpleguan pobrezia garatzeari aurrea hartzea, enpleguaren kalitatea eta iraunkortasuna areagotuz.

HELBURU ESTRATEGIKOAK 2

Gizarte Zerbitzuetatik gizarteratzea sustatzea aktibazioaren bitartez, pertsona, familia eta talde guztien gizarte-integrazioa, autonomia eta gizarte-ongizatea errazteko egitekoaren barruan, prebentziozko egin-kizun sustatzaile, babesle eta laguntzailea garatuz, hainbat prestazio eta zerbitzuren bitartez (zerbitzu pertsonalak eta harreman-zerbitzuak, bereziki), eta eskaintzen dituzten zerbitzuak indartuz kalteberatasun-egoeretan, arrisku-egoeretan eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeretan

2.1. Helburu Orokorra

Gizarte-babeseko bestelako sistemakiko koordinazioa hobetzea: gizarte-zerbitzuen sistemaren, enplegu-sistemaren eta diru-sarrerak bermatzeko sistemaren arteko koordinazioa; espazio soziosanitarioa sortzea; ikastetxeekin sarean lan egitea; beste sistema batzuekiko koordinazioa (justizia, etxebizitza, garraioa, eta abar).

2.2. Helburu Orokorra

Erabiltzaileak gizarteratzeko aukera eta erabiltzaileen autonomia sustatzea, eta elkartasunetik bideratutako partaidetza soziala bultzatzea, agente, erakunde, entitate, elkarte eta pertsona guztien erantzukizun sozialaren eta konpromisoaren eredu bat sortuz.

2.3. Helburu Orokorra

Arreta pertsona kalteberenen premietara egokitzea: Gizarte Zerbitzuen eskatzaileek eta bestelako esku-hartze eremuetako eskatzaileek eskatzen duten laguntzaren intentsitatea ezartzen laguntzen duten tresna komunak sortzea, atzemandako premien arabera.

2.4. Helburu Orokorra

Haurren babesgabetasun-egoeren prebentzioa sustatzea familia-begiratzearen eta esku-hartzearen inguruko programen bitartez.

HELBURU ESTRATEGIKOAK 3

Aktibazioaren bidezko gizarteratzea sustatzea hezkuntzatik abiatuta bizitza guztian zehar

3.1. Helburu Orokorra

Eskola uztearen murriztapena sustatzea, gizarte-bazterkeria prebenitzeko funtsezko elementu gisa.

3.2. Helburu Orokorra

Eskolatzea eta gizarteratzea bultzatzea, hezkuntza-erantzunak pertsona guztietara egokituz.

HELBURU ESTRATEGIKOA 4

Gizarteratze aktiboa sustatzea etxebizitza- politiketatik

4.1. Helburu Orokorra

Gizarte-laguntzarekin lotutako zerbitzuen arteko koordinazioa eta saltzeko eta alokatzeko etxebizitzaren parke publikoaren funtzionamendua hobetzea.

4.2. Helburu Orokorra

Behar duten pertsona guztiek behar bezalako baldintzetan dauden etxebizitzetarako sarbidea izan dezaten sustatzea.

HELBURU ESTRATEGIKOA 5

Gizarteratze aktiboa sustatzea osasunetik, honako helburu hauek dituzten neurriak eta ekintzak ezartzearen bitartez: berdintasuna osasun- zerbitzuekiko sarbidean, gizarte-bazterkeriako egoeren prebentzioa, eta gizarteratzearen eremuan inplikaturiko agenteekiko koordinazioa

5.1. Helburu Orokorra

Osasun-zerbitzuak ematearen eta gizarteratze aktiboaren alorrean inplikaturik dauden agenteen koordinazioa indartzea.

5.2. Helburu Orokorra

Pertsona guztiek osasun-zerbitzuak eskuratzeko aukera baldintza berdinean dutela bermatzea.

5.3. Helburu Orokorra

Osasun-zerbitzuetatik gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzea.

HELBURU ESTRATEGIKOA 6

Modu egonkorrean artikulatzea eta administrazioen arteko eta sailen arteko koordinazio eta lankidetzaren multisistema sustatzea, baita gobernantza parte-hartzailearen ere, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeraren

6.1. Helburu Orokorra

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren eta biztanleria-talde kalteberenen gizarteratze aktiborako jardunak txertatzen dituzten plan eta ekimenen arteko koordinazioa bermatzea, gizarteratze aktiboaren esparruan metaturiko aurrerapausoak eta esperientziak aprobetxatzeko.

6.2. Helburu Orokorra

Gizarteratze aktiboarekin lotutako gaietan eskumenak dituzten eragile publiko guztiekiko koordinazioa, lankidetzaren eta komunikazioaren lortzeko mekanismoak ezartzea, pertsonen gizarteratze aktiboa hobetuko duten baterako ekintzak diseinatzeko eta garatzeko mekanismoak ezartzea, enplegu-politika aktiboek politika pasiboekin eta gizarte-babeseko politikekin eta politika pasiboekin duten lotura indartuz.

6.3. Helburu Orokorra

Babes-sistema guztietako gizarteratze-profesionalen jarduteko estrategia berrien gaineko sentsibilizazioa, prestakuntza eta egokitzapena hobetzea, pertsona bakoitzaren banako premiak ezagutzeko eta Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren hartzaileen esku dauden baliabideen kudeaketa eraginkorra bermatzeko.

6.4. Helburu Orokorra

Jarraipen sistematiko bat egitea, funtzionamendua eta koordinazioaren mekanismo berrien azken egokitzapen egokia eta sistemaren diseinu iraunkorra sustatzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOA

7

Hirugarren sektoreko erakundeek gizarte-bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden kolektiboekin egindako lanaren balioa onartu eta indartzea

7.1. Helburu Orokorra

Hirugarren sektoreko erakundeek lankidetzaren berrantolatzea gizarteratzeko eta laneratzeko esku-hartze prozesuen kudeaketan, balioa emanez horien jakintzari, egiten jakiteari, eta pertsona horiek ordezkatzeko egiten duten lanari, eta lankidetzaren bidezko lanean sinergiak sustatzea.

7.2. Helburu Orokorra

Komunikazioko eta informazioko ekintzak garatzea planean eskumena duten erakunde publikoen eta Hirugarren Sektoreko erakundeek eta bestelako agente ekonomiko eta sozialen arteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzeko.

7.3. Helburu Orokorra

Lankidetzaren bitartez lan egitea, bazterkeria-egoeran dauden edo erortzeko arriskuan dauden pertsonen gizarte-premien, aukeren eta kontrabuzioen gainean euskal gizarteak duen ulermena aldatzeko.

HELBURU ESTRATEGIKOA

8

Diru-sarrerak bermatzeko, enplegu eta prestakuntzako politikak berritzeko eta horien plangintza estrategikorako txostenak eta azterlanak egitea, aktibaziorako eta laneratzeko lagungarriak diren ikuspegi berriak zehaztuz

8.1. Helburu Orokorra

Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren fenomenoek buruzko jakintza hobetzea, erabakiak hartzeko garaian eta politika publikoak diseinatu eta ebaluatzen diren garaian lagungarri izan dadin.

8.2. Helburu Orokorra

EAEn pertsona kalteberenen egoerari —gizartearen, lanaren eta prestakuntzaren arloko egoerari— buruzko jakintza hobetzea, politikak ebaluatzen, erabakiak hartzeko garaian politika berrietara bideratzeko eta iritzi publikoa, oro har, informatuta eta sentsibilizatuta izateko.

8.3. Helburu Orokorra

Gizarte-berrikuntza bultzatzea, gizarte-ekintzailatza eta gizarte-erantzukizun korporatiboa sustatuz

HELBURU ESTRATEGIKOA

9

Indarrean dagoen arau-esparrua egokitzea, gizarteratze aktiboko prozesuak antolatu eta ahalbidetzeko

9.1. Helburu Orokorra

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen hainbat alderdi garatzea, aplikatzen direla ziurtatuz eta erregelamendu bidez erabat garatuz.

Pertsona kalteberenei gizarteratzea sustatzea enpleguaren aktibaziotik abiatuta, pobrezia eta gizarte-bazterkeria murrizteko, errenta-maila duina ziurtatuz eta enplega daitezkeen pertsonen enplegu duina lortzeko aukera emanez

Funtsezko elementu estrategikoa, kokatzen eta bideratzen duena eta, aldi berean, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak informazioa ematen diona eta harengan eragiten duena, Eusko jaurlaritzaren Enpleguaren Euskal Estrategia (aurrerantzean EEE, aukerak) eta haren enplegu-alorreko Jarraibide estrategikoen Proposamena (2011-2014) da.

Enpleguaren Euskal Estrategiaren helburu nagusietako bat laneratzean aukera-berdintasuna bermatzea da, eta, horretarako, «enplegu-zerbitzuetan arreta jasotzen dutenen aniztasuna kudeatu behar du, politika aktiboak eta enplegarritasuna hobetzeko programak bazterkeria-arrisku mota guztietara eta pertsonen bizitzaren etapa desberdinetara egokitu behar ditu, eta, horrela, horien eraginkortasuna eta efizientzia areagotu». Azken batean, Enpleguaren Euskal Estrategiaren helburu estrategikoa enplegu-politika inklusiboak garatzea da.

Esku hartzeko funtsezko linea gisa, Enpleguaren Euskal Estrategian lehentasuna ematen zaie enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten langabeei eta lan-merkatutik urrunen dauden pertsonen; eta laguntza pertsonalizatua, laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak ez ezik kalteberenen kolektiboetarako bestelako neurri bereziak ere txertatzen dira, pertsona horiek gizartean eta lan-merkatuan erabat parte hartzeko aukera izan dezaten.

Era berean, gehien nabarmentzen den alderdietako bat —Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ikuspegiarekin nahitaez bat etorri behar duena— diru-sarrerak bermatzeko politika enpleguaren politikarekin integratzea da, Diru-sarrerak bermatzeko Errenta jasotzen duen kolektiboaren lan-aktibazioaren bitartez.

Nahitaezko erreferentzia gisa, eta enplegurako aktibazioaren bitartez pobrezia eta gizarte-bazterkeria murrizteko helburuare-

kin bat etorritik, EcoEuskadi 2020 Estrategia ikus dezakegu. Bere edukian jardun-ildo espezifiko bat jasotzen du enplegu-politika aktibo espezifikoak bultzatzeko, eta bertan adierazten diren lehentasuneko jardunen artean biltzen dira enpleguaren kalitatea sustatzea eta adin handiagoko biztanleriaren enplegu-aukerak handitzea, bereziki emakumeenak, horien enplegarritasuna ahalbidetzeko.

Premisa horien ildo beretik, enplegu bidezko gizarteratze aktiboarekin lotutako helburu orokorrak eta horiek garatzen dituzten neurriak ondoren zehaztuko ditugu.

Inplikaturiko erakundeak:

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila:
 - Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza (organo nagusi eta koordinatzaile gisa).
 - Lanbide EEZ.
 - Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
 - Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.
 - Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza.
- Justizia eta Herri Administrazio Saila:
 - Justizia Zuzendaritza.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

1.1. Helburu Orokorra

Zailtasun handienak dituzten pertsonen intentsitate handiagoko laguntza pertsonalizatua ematea; erreferentziazko aldi horretan pertsona horiek lortuko dituzten baliabideen gutxieneko kopuruan gauzatuko da laguntza hori

Enpleguaren aktibazioaren bidezko gizarteratzearen ikuspegitik, gizarteratzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboak dira honako hauek: a) 30 urtetik beherako eskatzaileak, gehieneko ikaskuntza-maila derrigorrezko oinarritzko ikasketetan izanik, b) desgaitasun egoeran dauden eskatzaileak, c) 45 urtetik gorako eskatzaileak, iraupen luzeko langabezian, d) gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden eskatzaileak, e) terrorismoaren biktimak diren eskatzaileak, f) gizarteratzeko prozesuetan dauden espetxeratuak, eta, g) enplegu-zentro berezietako eskatzaileak.

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren jardun-printzipioetako bat da arreta-ereduaren unibertsalizazioa, potentzialki aktiboak diren pertsona guztiei zuzentzen baitaie, Estatuko ereduaren nagusitzen den lehenestearen aurka⁴⁰. Hala ere, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren enplegutik gizarteratzeko helburuek, Enpleguaren Euskal Estrategiarekiko (EEE) eta EcoEuskadi Estrategiarekiko koherentziari eutsiz, arreta pertsonalizatuagoa eta biziagoa ezartzen dute, eta, hala badagokio, premia-azkoa, enplegu bat lortzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonentzat. Horren ildotik, egokia izan daiteke ebaluazio-mekanismoak txertatzea kalkulatzeko zein neurritan eragin dezakeen unibertsalizazio-helburuak gainerako kolektibo langabearen aktibazio-programetan sartzeko aukeretan.

1. Enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren tresna normalizatuaren Katalogo osorako (prestakuntza, orientazioa, eta abar) sarbidea izateari lehentasuna ematea.
2. Baliabide ekonomikoaren gutxieneko maila bat bermatzea diru-sarrerak ez dituzten bizikidetzak-unitateei, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Etxebizitza Prestazio Osagarriaren bitartez; era berean, Gizarte Larrialdiko Laguntzak ere gizarte-marjinazioko egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko pentsatuak daude.
3. Enplegu-tresna guztiak aintzat hartzea eta Gizarte Zerbitzuek bideratutako pertsonen eskura jartzea, gizarte-zerbitzuek gizarte-bazterkeriaren arriskuari buruz egindako diagnostikoaren arabera.
4. Beharrezkoak diren jardunak garatzea, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua pertsona guztientzat eskuragarri izan dadin, langabeak izateaz gain eragozpen fisikoak, psikikoak, zentzumenezkoak edo pertsonalak dituztelako edo maila juridiko administratiboan egoera erregularizatuan ez egoteagatik aktibo ez dauden pertsonak barne. Bitartekotza-sistemek egokiak izan behar dute gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden kolektiboek behar duten premia-aniztasunari erantzun ahal izateko.
5. Eskualdeko planak garatzea enplegua berraktibatzeak langabezia-tasa altuak dituzten zona deprimituetan, enplegu-erregulazioaren espedienteekin, enpresak eten eta ixteko espedienteekin, eta abar, laneratzeko prozesu integralen bitartez, gutxienez % 30ean Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten edo Enplegu-erregulazioaren Espediente batetik edo itxitako enpresa batetik etorri diren langabeentzat.
6. Hartzaileek baliabide dezaketenen informazio-zerbitzu bat garatzea, laneratzeko eta gizarteratzeak hobetzeko edozein ekintzarako EAEn eskuragarri dauden baliabide guztien informazio eguneratua biltzen duen zerbitzua, erakunde finantzatzailea zein den kontuan izan gabe.
7. Hartzaileen iritzia eta premiak aintzat hartzen dituzten programak diseinatzea. Horri esker lortzen da, lehenik eta behin, parte-hartzaileak bere bide indibiduala egokitzea, eta bigarrenik bide hori lortzeko erantzukizuna bere gain hartzea.
8. Baliabide bat diseinatzea eta abian jartzea, gizarte-bazterkeriako egoeran edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen gizarte-orientazioaren eta laneratzeko alorrean diziplina anitzeko talde batek eta enplegu babestuari nahiz ohiko enpleguari ez ezik enplegu publikoari ere eragiten dioten prozedurek osatzen duten baliabidea, hain zuzen ere.

⁴⁰ Otsailaren 18ko 3/2011 Errege Lege Dekretua, enplegarritasuna hobetzeko eta enplegu-politika aktiboak erreformatzeko premia-azko neurriei buruzkoa, 19. artikulua.

9. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez enplegua bilatzen duten hartzaileen lan-bizitzaren etengabeko jarraipena egiteko sistema bat diseinatzea.
10. Prestakuntza-ekintzak garatzea bazterkeriaren eta dibertsitatearen arloan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako modulu bat barne, gizarte-orientazioan eta lan-bitartekotzan espezializatutako Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko langileentzat.
11. **Enpleguaren Euskal Estrategiak** bi helburu ditu «**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Programa Dokumentua, IX. Legealdia. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila**» dokumentuan onartutako gomendioekin lotuta; honako hauek dira: 71) 20-24 urteko emakumeen enplegu-tasa handitzea % 63tik gora 2014an, eta % 67tik gora 2020an; eta, 74) Etorkinen jarduera eta enplegua handitzea. Helburu horiek lortzeko, garatuko diren ekintzak eta neurriak, ziur asko, koherenteak izango dira adierazitako programa-dokumentuko gomendioekin⁴¹.
12. **Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Planak** «Enplegua, prestakuntza eta eskola-arrakasta lortzea integratzeko, erabateko herritartasuna lortzeko eta baliabideak mugitzeko bide gisa» deituriko jardun-ildoan honako hau biltzen du neurri gisa: gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonentzako lan-prestakuntzarako programak sor daitezen bultzatzea, baita gazte atzerriarrak gizarteratzeko ibilbideak sor daitezen ere, HEMEN ZERBITZUAREN bitartez.
13. **2008-2012 aldirako III. Gazte Justizia Planak** bere helburuen artean adingabe arau-hausleen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea aipatzen du. Horren haritik, honako ekintza hauek hartzen dira kontuan:
 - Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzurako sarrera arina eta azkarra izatea, neurri judizialak betetzen dituzten adingabeentzat.
 - Neurri judizialen mendeko adingabeei dagokienez, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen espezifikotasuna kontuan hartzea enplegu-planetan, prestakuntza-ekintza kualifikatuen prestakuntza-baliabide indibidualizatuen laguntzaren bitartez.
 - Adingabe arau-hausleak bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen profil espezifikoetara bideratutako enplegurako aktibazio-programetan barne hartzea
14. **Lanbide Heziketako EAEko III. Planean** etengabeko aholkularitza eta orientazioa emateko neurri bat erantsi da, honako helburu hauek lortzeko:
 - Informazioaren, aholkularitzaren eta orientazioaren sistema integratu bat osatzea lanbide-heziketaren eremuan zerbitzu horiek ematen dituzten instituzioek eta erakundeek garatzen dituzten ekintzak koordinatuz; horretaz gain, sistema horretan lanbide-heziketaren eskaintza integratua ematen duten zentroek hartuko dute parte.
 - Mahai tekniko bat sortzea, Hezkuntza eta Enplegu Sailek bultzatuko dutena, eta, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, tokiko administrazioek eta agente ekonomiko eta sozialek osatzen dutena, eta honako helburu hau duena: herritar guztiek orientazio-zerbitzuetara sar daitezen laguntzea, orientazio-zerbitzuetan kalitate-bermea garatzea, protagonisten (erakundeak, agente ekonomikoak eta sozialak) arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatzea eta presentziazko sarea eta informazioko, aholkularitzako eta orientazioko plataforma telematikoa integratua finkatzea.
 - Estatuan sortutako mahai teknikoetan aktiboki parte hartzea.
15. **2008-2011 aldirako Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planaren** helburu estrategikoan, «ijito-komunitatearen gizarteratzearen eta laneratzearen alorrean egoera hobetzea» deiturikoan, ijitoak gizarteratzeko eta laneratze prozesuetan modu eraginkorrarekin txertatzea ezartzen du ekintza-ildo gisa.

⁴¹ Hiru gomendio: 1) Diskriminazioa pairatzen duten emakumeen ezaugarri eta premia bereziak aintzat hartuta, emakume horientzako enpleguko, prestakuntzako eta gizarte-zerbitzuetako baliabideen eskaintza hobetzen jarraitzea. 2) Emakume etorkinen egoera hobe dadin sustatzea, kolektiboaren lan-baldintzak hobetzeko estrategien ezarpenean aurrera eginez. 3) Hirugarren sektoreko erakundeei diru-laguntzak ematea erakunde horiek berdintasun-helburuak aurrera eramateko esku hartzen duten eremu batzuetan, diskriminazio multiplea jasaten duten emakumeei arreta berezia eskainiz.

1.2. Helburu Orokorra

Zailtasun handienak dituzten pertsonen enplegarritasuna areagotzea

16. **Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenen** ezarpena sustatzea gizarte esku-hartzearen sektoreko erakundeen bitartez, bai diagnostikoari eta hitzarmenak formalizatzeari dagokionez, bai hitzarmen horiek abian jartzeari eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteari dagokionez. Horretarako, txertatzeko prozesuen logikari jarraiki egokiak diren tresnak erabiliko dira, hala nola gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza eta ibilbide pertsonalizatuak⁴².
17. Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenarekin, urtero DBEaren hartzaileen gutxienez % 75aren enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza bultzatzea
18. Gizarte- eta lan-aktibazioko ibilbide pertsonalak diseinatu eta garatzea, prestakuntza-, okupazio-, lan-, osasun-, eta etxebizitza-baliabide guztiak erabiliz eta zailtasun handienak dituzten pertsonen egoera zehatzera egokituz, aktibazioa ahal den neurrian genero-baldintzatzaileetatik libre egotea bultzatuz. Sistemen arteko koordinazioa eraginkorra izango dela bermatzeko behar diren mekanismoak garatuko dira.
19. Lan-bitartekotzako zerbitzuetan laguntza pertsonalizatua bermatzea, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen hautagaitzak bultzatzeko, enpresetan aurkeztea, lanpostua lortzea eta enpresan sartzea eta lanpostura eta enpresara egokitzea babestuz, eta generoagatik nahiz beste aldagai batengatik baldintzapenik ezartzen ez dela zainduz.
20. Laguntzeko tresna espezifikoak diseinatzea, garatzea eta haien eskura jartzea; gizarteratze-prozesuaren eraginkortasuna bermatuko duten tresnak, alegia (trebetasun sozialeko tailerrak, enplegua gizarteratze-enpresetan, kontratazioarako laguntza espezifikoak, eta abar).
21. Baliabide horien elkarrekiko betebeharra sustatzea zerbitzuen erabiltzaileen artean, prestazioa eta kalitatezko zerbitzuak jasotzen dituztenek prestatzeko eta enplegua modu aktiboan bilatzeko konpromisoa har dezaten.
22. Klausula sozialei eta kontratazio publikoko merkatu-erreserbei buruz Eusko Jaurlaritzak sinatutako akordioa Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak betearaztea Laneratzeko Enpresen, Enplegu Zentro Berezien eta enplegua lortzeko zailtasunak dituzten pertsonen lana aurkitzeko aukerak areagotzeko.
23. Klausula sozialei eta kontratazio publikoko merkatu-erreserbei buruzko akordioa lurralde-maila guztietara hedatzea.
24. Programak sortzea eta plaza eta/edo enplegua gordetzea zailtasun handienak dituzten pertsonentzat.
25. Lanpostu bat lortzea bermatzeko eta lanpostua dibertsitate funtzionala dutenentzat egokitzeko neurriak ezartzea, Legeak eskatzen dituen kupoak betetzen direla bermatuz eta laguntzeko ekintzak ezarri.
26. **2011-2015 Familiei Laguntzeko III. Planak** bere lehentasunezko helburuen arten biltzen du bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egitea ahalbidetzea, premiazko moduan kalteberatasun-egoera berezian dauden familien kasuan, hala nola familia ugariak, guraso bakarreko familiak, genero-indarkeriako biktimak diren familiak, edo terrorismo-ekintzen biktimak diren familiak.

⁴² Lan-metodo horren jarraipena eta ebaluazioa ahalbidetzeko, urtero garatu beharreko aktibazio-hitzarmen kopurua ezarri ahal izango da —prestazioen onuradunen %etan, guztizko hitzarmen kopuruan, prestazioak jasotzen ez dituzten kolektiboentzako hitzarmenen %etan, eta abar—; era berean, egokia da hitzarmenen edukia, eta, hala badagokio, gutxieneko edukia aurreikustea, baita, azkenik, hitzarmenak aplikatzearen ereduak emaitzak ere, enplegurako sarbideari dagokionez, enplegarritasunaren hobekuntzari dagokionez, etab.

27. **2008-2012 aldiko Gazte Justiziaren III. Planean** aurreikusita dauden honako jardun hauek biltzen dira:
- Lagundutako zein laguntzarik gabeko adingabe atzerritarren enplegarritasuna hobetzea, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko orientazio-prozesuak ahalbidetuta.
 - Neurri judizial bat betetzen duten edo bete duten gazteentzako laneratze-enpresak sor daitezen ahalbidetzea.
 - Adingabe arau-hausleak bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen profil espezifikoetara bideratutako enplegurako aktibazio-programetan barne hartzea.
28. Egon litezkeen enpresa kontratatzaileen eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren arteko harreman estuak ahalbidetzea:
- Programa espezifikoak garatuz gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak laneratzea ahalbidetzen duten erakunde publikoek edo pribatuek kontratatzeko.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko langabeak eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak kontratatzeko finantziaziorako Tokiko Erakundeekin hitzarmenak ezarri, gizarteratzeko eta laneratze ibilbideen bitartez.
29. Gizarte-bazterkeria sortzen duten espazio ekonomikoen funtzionamendua alda dadin sustatzea, eta ez soilik horren ondorioak etetea. Horretarako:
- Ekonomia sozialaren eta solidarioaren espazio sortu berriak —ekonomia inklusiboagoa sustatzen dutenak (gizarteratzeko enpresak, enpresa solidarioak, ekonomia sozialeko merkatuak, banku etikoa, eta abar)— bultzatzea eta horiei laguntzea.
 - Enplegu iraunkorra emateko merkataritza-, gizarte- eta ingurumen-arloko helburuak uztartzen dituzten eta pertsonen arteko berdintasuna kontuan hartzen duten —sexuagatik nahiz bestelako aldeengatik— enpresa berriak sor daitezen sustatzea.
 - Sozietate inklusiboa garatzearekin konprometitu dauden enpresa-ekimenen jardunbide egokiak hautatzea eta hedatzea.
 - Enpleguaren bidez aktibagarriak ez diren pertsonentzat, eskaintza egokituen bitartez, erantzun bat proposatzeko laguntza ematen duen proiektu pilotu bat lantzea.
 - Metodologia bat diseinatzea gizarte-bazterkeria sortzen duten arrazoiak aztertze, eta lan-ingurune inklusiboagoak, eredu sozioekonomiko solidarioago bat, eta langile pobreak sortzen ez dituzten enplegu duinak ahalbidetzen dituzten neurriak eta jardunak proposatzea.
30. Enpresetako hautaketa-prozesuetan ardura duten pertsonentzako pobrezia eta gizarte-bazterkeriari buruzko informazio- eta aholkularitza-ekintzak eta arriskuan dauden pertsonak kontratatze pizgarriak sustatzea; horretaz gain, hautaketa-irizpideak —aukera-berdintasunaren kasuan lehia bermatuko dutenak— egokitzea, enpresaburuekiko, sindikatuakiko eta elkartze-mugimenduarekiko lankidetzan.
31. Lan-bitartekari espezializatuaren figura sortzeak dakartzan onurak aztertzea, enpresaren eta enplegu-eskatzaillearen arteko bitartekotza ahalbidetzeko lan-merkatutik urrun.
32. Normalizazio-erregimenean dauden enpresekiko akordioak edo hitzarmenak⁴³ sustatzea, hedapen-ekintzak egiteko hartzaileek enplegu arruntari dagokionez prestakuntza-zentroetan dituzten aukerei buruz, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden ikasleak orientatzeko.
33. Lan-merkatuari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea enpresetan, baita gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak kontratatzerakoan emango diren pizgarriak ere.
34. Giza baliabideen kudeaketari dagokionez jardunbide egokien sariaren deialdia egitea beren plantilletan gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak sartzen dituzten enpresetan.

⁴³ Herri-administrazioek hitzarmenak sinatzen dituzten edo laguntzak ematen dieten botere publiko eta erakunde pribatu guztiei aplikatzen zaizkie 4/2005 Legearen 3., 16., 18.4. eta 23. artikulua. Hortaz, sexuaren arabera banatutako datuak izan behar dituzte, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin behar dute, emakumeen eta gizonen presentzia orekatu behar dute beren zuzendaritza-argazkiak, eta adierazitako legearen 3. artikuluan berdintasunari buruz jasotzen diren printzipio orokorrak errespetatu behar dituzte.

1.3. Helburu Orokorra

Enpleguaren iraunkortasuna eta aurrerapena sustatzea

35. Enplegu babestutik enpresa arruntetan laneratzera igarotzeko bitartekotza-lana egiteko baliabideak sustatzea eta ahalbidetzea.
36. Enpresa arruntei laguntzeko neurriak ezartzea enplegu babestutik datozen pertsonak kontratatzeke, baita desgaitasunen bat duten langabeak eta, hala badagokio, lan-merkatu arruntetik urrundutako bestelako kolektiboak ere.
37. Prestakuntza-programak indartzea lanpostuan, programa mota hori lan-mundura egokitzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetara bideratuz bereziki.
38. Laneratzeko enpresetan hitzarmena duten pertsonentzat ezarritako ibilbideen bitartez, lanbide-gaitasunen egiaztapena ahalbidetzeko behar diren mekanismoak ezartzea.
39. **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Euskal Autonomia Erkidegoko V. Planak**, IX. Legealdiko jarraibideen artean, helburu operatibo gisa ezartzen du emakumeen jarduera-tasa igotzea eta enplegua uzten dutenen tasa murriztea.

1.4. Helburu Orokorra

Enpleguan pobrezia garatzeari aurrea hartzea, enpleguaren kalitatea eta iraunkortasuna areagotuz

40. **Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errentaren** bitartez, zenbait bizikidetz-unitateren diru-sarreraren maila osatzea. Bizikidetz-unitate horietan, lanetik datozen diru-sarrerak eduki arren, hilero jasotzen dutena ez da iristen bizikidetz-unitateko kideen kopuruaren arabera dagokien Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekora.
41. Ezkutuko enplegua murrizteko neurriak bultzatzea, gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen jardunak koordinatuta horiek detektatzeko eta argira ekartzeko.
42. **Lanbide Heziketako EAEko III. Planaren** honako neurri hauek garatzea:
- Lan Esperientzia aitortzea, Lanbide Heziketako Sistema Integratua ezarrita. Neurri horren bitartez herritarren kalifikazio-maila areagotu nahi da lan-esperientziaren bidez edota prestakuntza-bide ez-formalen bitartez lortutako lanbide-gaitasunak ebaluatze eta egiaztatze prozedura aplikatuz. Hazten ari diren sektoreekin, lanbide-prestakuntzarik gabeko langabeekin eta langileek egiaztapen formala izatera behartzen dituen erregulazioen bat duten sektoreei lotutako jardunei emango zaie lehentasuna.
 - Gaitasuna Ebaluatze eta Egiaztatze prozedura legez arautzea Enplegu Sailak eta Hezkuntza Sailak elkarrekin dekretu bat onartuz.
 - Haur Hezkuntzaren, Arreta Soziosanitarioaren, Osasun Larrialdien, Nekazaritzaren eta Arrantzaren arloan, gutxienez, deialdiak antolatzea.
 - 1. trebakuntza-maila lortzeko deialdia antolatzea gizarte-bazterkeriako arriskuan dagoen edo premia bereziak dituen biztanleriarentzat.
 - Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Sailen arteko Batzordea sortzea elkarrekin, Gaitasun Profesionalak Ebaluatze eta Egiaztatze, bititza osoko ikaskuntzari buruzko etorkizuneko Legearen esparruan.
 - Zentro laguntzaileen (publikoak eta pribatuak) sarea antolatzea, baita orientazioko, aholkularitzako eta ebaluazioko profesionalen sarea ere.
 - 25-29 urte dituzten eta trebakuntza-maila txikia duten pertsonentzako «**Erreskate Planaren**» barruan (**bigarren aukera**) adin-tarte horren barruan dagoen eta lanbide-prestakuntzarik ez duen kolektiboa zein egoeratan dagoen jakitea. Hori jakin ondoren, neurri jakin batzuk egitea, pertsona talde bakoitzera egokituak talde horren egoera kontuan hartuta, «bigarren aukerako» ahalbideak eskaintzeko, trebakuntza-maila handiagoa lortzeko aukera izango dutela bermatzeko eta immigrazio- eta integrazio-politikei buruzko neurri egokituak abian jartzea. Proposatzen da trebakuntza-maila txikiena duten pertsonen laguntzeko ahaleginak egitea.
43. **2008-2011 aldirako Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planaren** helburu estrategikoan, «ijito-komunitatearen gizarteratzearen eta laneratzearen alorrean egoera hobetzea» deiturikoan, honako hau biltzen da: merkataritza-jarduera gauzatzen duten pertsonen eta familien baldintzak hobetzeko ekintzak bultzatzea.
44. **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako EAEko V. Planak** (IX. Legealdiko jarraibideak) hiru helburu estrategiko proposatzen ditu, emakumeak euskal gizartean parte-hartze aktiboagoa izan dezan sustatzera bideratuak, horien sarbidea eta baliabide ekonomiko eta sozialen gaineko kontrola areagotzeko. Zehazki, enpleguaren alorrean, honako hau ezartzen du helburu operatibo gisa: «emakume behartsuenen kolektiboen lan-baldintzak eta estaldura soziala hobetzea, bereziki lehenengo sektorean lan egiten dutenenak, etxeko lanak egiten dituztenenak eta ezkutuko ekonomian lan egiten dutenenak».
45. **2020. urterako III. Gazte Planaren** 1. ardatzean, «Emantzipazioa eta autonomia» deiturikoan, enpleguaren eta ekintzailatzaren alorrean honako hau ezartzen da helburu estrategiko gisa: «gazteen laneratzea hobetzea, bereziki gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden gazteena, enplegua sortzera eta mantentzera ez ezik enpleguaren politika hobetzera ere bideratutako politika koordinatua bultzatuz».
46. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Gizarte Zerbitzuen eta Justiziaren artean lankidetz-protokoloak ezartzea, espetxeetako biztanleak gizarteratzeko eta laneratze ibilbideen diseinuan aurrera egiteko.

Gizarte Zerbitzuetatik aktibazioaren bitartez gizarteratzea sustatzea, pertsona, familia eta talde guztien gizarte-integrazioa, autonomia eta gizarte-ongizatea ahalbidetzeko, prebentziozko eginkizun sustatzaile, babesle eta laguntzaileen garapenaren bitartez, eta harremanetarako funtsezko prestazio eta zerbitzu pertsonalen bitartez, eskaintzen dituzten zerbitzuak indartuz kalteberatasun, arrisku eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeretan

Gizarte-lana, zalantzarik gabe, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan daudenei laguntzeko tresna nagusietako bat da. Etorkizuneko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren abiapuntua, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planarena bezalaxe, gizarte-zerbitzuek artatzen dituzten kolektiboen premien zeharkakotasuna da; horregatik, hain zuzen ere, plan horren funtsezko ardatzetako bat beste sistema batzuekiko Lankidetzatza da, bereziki, osasunarekin, hezkuntzarekin, etxebizitzarekin, justiziarekin eta enpleguarekin, betiere Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren funtsezko premiekin harreman zuzenean.

Horren ildotik, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren eta EcoEuskadi 2020 Estrategiaren helburuekin lotzen da Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa bermatzeari dagokionez, eta bere helburu orokor eta neurri batzuk txertatu ditu, eta beste agente batzuen jardunekin lotu eta osatzen ditu.

Inplikaturiko erakundeak:

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila:
 - Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza.
 - Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
 - Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.
 - Lanbide EEZ.
 - Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza.
- Justizia eta Herri Administrazio Saila:
 - Justizia Zuzendaritza.
- Kultura Saila:
 - Gazteria Zuzendaritza.
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.
- Herrizaingo Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Emakunde.
- Foru Aldundiak.

2.1. Helburu Orokorra

Gizarte-babeseko bestelako sistemekiko koordinazioa hobetzea: gizarte-zerbitzuen sistemaren, enplegu-sistemaren eta diru-sarrerak bermatzeko sistemaren arteko koordinazioa; espazio soziosanitarioa sortzea; ikastetxeekin sarean lan egitea; beste sistema batzuekiko koordinazioa (justizia, etxebizitza, garraioa, eta abar)

Horri dagokionez, helburu hori 6. helburu estrategikoaren barruan bildutako beste jardun batzuekin osatzen da.

47. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako arreta-maila bakoitzaren arteko etengabeko koordinazio-prozedura ezartzea hartzaileen gizarteratze aktiboarekin lotutako barneko jardun eta prozedura guztietan, zerbitzu integrala, kalitatezkoa, eraginkorra eta unibertuala ematen dela bermatzeko.
48. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezartzen denez, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema diseinatzea eta abian jartzea, EAEko pobrezari eta gizarte-bazterkeriari buruzko neurri nagusien jakintza eguneratua bermatzeko.
49. **2008-2012 aldiko Gazte Justiziaren III. Planaren** funtsezko alderdien artean familiengan, hezkuntzan eta gizarteratzean nahiz laneratzean eragina duten erakunde eta agente guztien arreta osoa eta koordinatua aipatzen da. Guztia betiere oro har adingabeekiko prebentzio-ikuspuntu batetik begiratuta, baita babesgabetasun- edo arrisku-egoeran dauden adingabeekiko edo portaera arau-hauslea dela-eta jada zehazpen bat jaso duten adingabeekiko ere. Gizarteratzeari dagokionez, honako helburu espezifiko hauek ditu:
 - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin lankidetzaz erraztea adingabe arau-hausleen gizarteratzean.
 - Lankidetzaz-protokoloak orokortzea gazte-justiziaren zerbitzuen eta Foru Aldundien zerbitzuen artean, gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzeko.
50. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko V. Planak** (IX. Legealdiko jarraibideak) bere helburu orokorren artean ezartzen du erakunde baliabideen egokitze-maila areagotzea bazterkeria-arriskuan dauden emakumeen premiekiko; hala, gizarte-zerbitzuen baliabideak, baliabide ekonomikoak, osasun-zerbitzuenak, hezkuntzakoak, justiziakoak, segurtasunekoak eta etxebizitza-baliabideak.
51. EAEko **arreta soziosanitarioaren jarraibideak egiteko esparru-dokumentuaren** 1. helburu estrategikoan, «Zerbitzu soziosanitarioak garatzea» deiturikoan, honako jardun hauek ezartzen dira:
 - Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden kolektibo jakin batzuei arreta soziosanitarioa emateko plan bat egitea.
 - Gizarte- eta hezkuntza-arloko zerbitzuak eta prestazioak indartzea gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertsonak artatzeari dagokionez.

2.2. Helburu Orokorra

Erabiltzaileak gizarteratzeko aukera eta erabiltzaileen autonomia sustatzea, eta elkartasunetik bideratutako partaidetza soziala bultzatzea, agente, erakunde, entitate, elkarte eta pertsona guztien erantzukizun sozialaren eta konpromisoaren eredu bat sortuz

52. Gizarteratzeari eta laneratzeari dagokionez esku-hartzearen alorrean espero daitezkeen emaitzen eredu homogeen bat zehaztu eta ezartzea.
53. Ordaindutako enplegu batean jardun ezin duten pertsonen parte-hartze soziala bultzatzea, pertsona horien presentzia ahalbidetuz gizarte-, kultura- eta kirol-jardueretan eta gizarte-laguntzako eta boluntariotzako jardueretan, era horretan, gizarte-isolamenduaren arriskua saihesteko.
54. Pobreziako eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden emakumeen ehuneko murrizteko jardunak egitea, baita problematika espezifikoak dituzten emakumeen eta emakumeen elkarten parte-hartze soziala ahalbidetzea ere, horien premia bereziak ere ezagutarazteko aukera emanez.
55. Enplegarritasun txikia duten edo enplegarritasunik ez duten pertsonen informazioa, orientazioa, eta, hala badagokio, eremu guztietan beren bizi-kalitatea hobetzeko behar dituzten baliabideak ematea: eremu psikosoziosanitarioa, soziala, eta abar.

2.3. Helburu Orokorra

Arreta pertsona kalteberenen premietara egokitzea:

Gizarte Zerbitzuen eskatzaileek eta bestelako esku-hartze eremuetako eskatzaileek eskatzen duten laguntzaren intentsitatea ezartzen laguntzen duten tresna komunak sortzea, atzemandako premien arabera

56. Mendetasuna, desgaitasuna, babesgabetasuna eta bazterkeria ez ezik arrisku-egoerak ere balioesteko tresna komunak aplikatzea, prestazioak nahiz Gizarte Zerbitzuen, osasunaren, enpleguaren, hezkuntzaren eta etxebizitzaren artean koordinatutako esku-hartzea lortzeko irizpideen betearazpena harmonizatzea ahalbidetzen dutenak.
57. Horri dagokionez, **Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Planak (2011-2013)** honako hau ezartzen du:
- Atzerritarren eta etxeko indarkeriaren ofiziozko txanden artean koordinazioko mekanismoak ezartzea, tratatu txarrak jasan dituzten emakume etorkinei arreta hobea eskaintzearen.
 - Diseinatzen diren balioespen-tresna teknikoetan bazterkeria juridikoa txertatzea, aintzat hartu beharreko bazterkeria-faktore gisa.
58. **III. Gazte Planaren 2020** 2. ardatzean —«Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa» deritzon — lehentasunezko erronka gisa aipatzen da arrisku- eta/edo bazterkeria-egoeran dauden gazteei eman beharreko gizarte-arreta hobetzea, prebenitzeko eta esku hartzeko neurriak garatuz. Honako hauek ezartzen ditu helburu espezifiko gisa:
- Gazteen marjinalizazioaren prebentzioa eta esku-hartze soziala, aniztasuna eta emakumeen eta gizonen arteko aldeak kontuan hartuz.
 - Diru-sarrerak bermatzeko politikak gazteen premietara egokitzea ahalbidetuko duten neurriak antolatzea.
59. **2008-2012 aldirako III. Gazte Justizia Planak** ildo horretan bideratutako honako helburu espezifiko hauek txertatzen ditu:
- Gazte-justiziako neurri judiziala ezarri zaien adingabe eta gazte atzerritarren gizarteratzea ahalbidetzea.
 - Diagnosi eta Esku-hartze Sozialeko Tresnaren erabilera ezartzea adingabe arau-hausleekin egiten den lanean.
 - Baliabide arrunten bitartez gizarteratzeari buruzko informazioa eta aholkuak ematea gazte-justiziako zentro eta zerbitzuetako adingabeei.
 - Gazte-justiziako zentro eta zerbitzuek gizarteratze-arloan duten eraginkortasuna ebaluatzea.
 - Adingabe arau-hausleei gizarte-zerbitzuak ematea sustatzea.
60. **EAeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planean** (IX. legealdiko Jarraibideak) honako Helburu operatibo hauek proposatzen dira:
- Teknologia berriak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua handitzea; bereziki, nagusien artean eta horretarako zailtasunak dituzten kolektiboen artean.
 - Kolektiboen aniztasuna eta premiak kontuan hartuz, ekipamenduen eta garraio publikoaren estaldura-premiak beteta dituztela uste duten emakumeen kopurua areagotzea, bereziki landa-ingurunean.

2.4. Helburu Orokorra

Haurren babesgabezia-egoeren prebentzioa sustatzea familia babestearen eta esku-hartzearen inguruko programen bitartez

61. Psikologia- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko eta familia-orientazioko programak sustatzea gurasoen eta seme-alaben artean.
62. Horren ildotik, **Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Planak** honako neurri hauek txertatzen ditu:
 - Gurasoak gaitzeko jomuga duten familia-begiratzeko programak sustatzea, hausturak ekiditeko eta/edo bateratzea ahalbidetzeko.
 - Drogen erabileraren eta jokoaren ondorioz arrisku-portaerak dauzkaten seme-alabak dituzten familiei zuzendutako psikologia-arloko nahiz gizarte- eta hezkuntza-arloko informaziorako, orientaziorako eta esku-hartzerako baliabideak —pertsonalizatuak eta taldekoak— sustatzea.
 - Adopzioan laguntzeko programetan orientazioko, bitartekotzako eta familia-terapiako zerbitzuak eta nerabe erasotzaileekin familia-alorreko esku-hartzeko zerbitzuak.
 - Oro har familiak eta legean kalteberatasun bereziko gisa izendatutakoak eraginpean har ditzaketen babesgabetasun- eta bazterkeria-egoeretarako prebentzio-programak garatzea.
63. **2008-2012 aldirako III. Gazte Justizia Planak** honako helburu espezifiko hau txertatzen du: Haurren babesaren arloan Eusko Jaurlaritzak arautzeko eta planifikatzeko duen eskumenean oinarrituta, arriskuan edo babesgabetasuneko egoeran dauden nerabeekin esku-hartze integraleko programen garapena sustatzea.

Aktibazioaren bidezko gizarteratzea sustatzea bizitza osoko hezkuntzatik abiatuta

2012an, Eusko Jaurlaritzak aurreikusi du Bizitza osoko Ikaskuntzari buruzko Legearen proiektua onartzea Jaurlaritzaren Kontseiluaren bitartez. Horren ildotik, bizitzan zehar ikaskuntza sustatzeko premia, Europa jakintzaren gizarte eta ekonomia aurreratua bihurtzeko aukera emango duen faktore eraldatzaile gisa, berretsia izan da dagoeneko Lisboa 2000 Estrategian, baita Europa 2000 Estrategian ere.

Etorkizuneko legearen zirriborroan argudiatzen denez, gizarteak hainbat motako aldaketak izan ditu, hala nola bilakaera teknologikoa, soziala eta ekonomikoa, gizarte parte-hartzaileagoa, multikulturala eta iraunkorra, hezkuntza-mailaren eta bizi-itzaropenaren gorakada, besteak beste; horiek guztiek lanbide-prestakuntza berriak behar dituzte, ikaskuntzen etengabeko eguneratzea, eta gaitasun pertsonalen hobekuntza.

Eszenatoki berri horretan, bizitza osoko ikaskuntzari buruzko etorkizuneko Legeak jarraian adierazten ditugun premiei erantzun nahi die, pertsonen enplegarritasunean duten inplikazioagatik:

- Pertsona guztien gaitasunak hobetzea bizitza osoan zehar, lehentasuna emanez gizarteratzea eta laneratzea bermatzeko ezinbesteko oinarritzko gaitasunak eskuratzeari.
- Pertsonen prestakuntza-ibilbideak malgutu nahi dira, hezkuntza formalean, ez-formalean eta informalean lorturiko ikaskuntza-emaizak aitortzea ahalbidetuko duten sistemak ezarrita, baita horiek metatzea eta programa batetik bestera aldatzea ere.
- Prestakuntzarako sarbidea ahalbidetzea, nagusiki informazioaren eta komunikazioaren teknologien eskaintzen dituzten aukeren aprobetxamenduaren bitartez.
- Biztanleria osoarentzako lanbide-heziketako sistema integratu bat martxan jartzea, hasiera batean prestatzeko eta jada lorturiko jakintzak berritzeko gai dena, pertsonen eta produkzio-sistemaren premiei erantzuteko.

- Bizialdi osoan zehar, garapen pertsonalerako eta lanbide-garapenerako aukerei buruzko informazio-, aholkularitza- eta orientabide-zerbitzuak eskaintzea.

Lege hori onartu ondoren, premia horiei erantzuteko martxan jartzen diren programak, neurriak eta tresnak, era berean, oso baliagarriak izan daitezke Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren helburu batzuentzat, hain zuzen ere enplegarritasuna eta gizarteratzea eta laneratzea areagotzeko, eskola uztea murriztearen bitartez eta eskolatzea sustatzearen bitartez. Arrazoi horrengatik, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren garapenean, hezkuntza-sistematik koordinazioak aukera emango du etorkizuneko baliabideak integratzeko, hala nola lanbide-heziketako sistema integratua, bizitza osoko informazio- eta orientazio-zerbitzuak garapen profesionalari eta pertsonalari buruz, etab.

Inplikaturiko erakundeak:

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila:
 - Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza.
 - Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza.
 - Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
 - Lanbide EEZ.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila:
 - Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza.
 - Lanbide Heziketako Zuzendaritza.
 - Ikastetxeen Zuzendaritza.
 - Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza.
- Justizia eta Herri Administrazio Saila:
 - Justizia Zuzendaritza.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

3.1. Helburu Orokorra

Eskola uztearen murriztapena sustatzea, gizarte-bazterkeria prebenitzeko funtsezko elementu gisa

Lanbide Heziketako EAEko III. Planean honako jardun hauek jasotzen dira, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin adostuak:

64. Hasierako lanbide-prestakuntzarako programak berriz diseinatzea eta txertatzea, 1. prestakuntza-maila lortzea eta hezkuntza-sistema orokorrean ikasten jarraitzea ahalbide dezaten, bi urteko iraupeneko eredu bat finkatuz. Eskaintza planifikatzea, eskola uzteko edo eskolan porrota izateko arriskuan dauden ikasleentzako erantzuna eman dezan.
65. Ikasleei orientazio- eta tutoretza-zerbitzu bat ematea, ikasketak arrakastaz amai ditzaten lortzen saiatzeko lagun-egite legez eta erabaki akademikoak eta lan-arlokoak hartzea ahalbidetzeko.
66. **2008-2012 aldirako III. Gazte Justizia Planaren** bitartez honako helburu hau hartzen da: behar baino lehen eskola uzten dutenen kopurua murriztea, eta bazterkeria-arriskuan dauden adingabeen benetako eskolatzea bermatzea. Honako jardun hauetan zehazten da arestian adierazitakoa:
 - Barneratzeko edo eguneko zentroetako neurri judizialak betetzen dituzten mutil eta neskak «urrutiko hezkuntzako» programetan sartzen direla bermatzea.
 - Neurri judizialen bat betetzen duten mutil eta neskei hasierako lanbide-prestakuntzako programetan sartzeko aukera ahalbidetzea.
67. **Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Planak (2008-2011)** ikasle ijitoen hezkuntzara bideratutako helburu estrategiko espezifiko bat txertatzen du, haur eta gazte ijitoek eskola-arrakasta handiagoa izan dezaten eta goi-mailako hezkuntzako etapetan hein handiagoan sar daitezen lortuz, hori guztia jomuga horretarako bi ekintza-ildo espezifikoekin:
 - Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko jardunak bultzatzea.
 - Eskolan porrot egin duten ijito ikasle asko dituzten ikastetxeak ikasleek derrigorrezko eskolatzearen mailak lortuko dituztela bermatuko duten zentro bihurtzea.

3.2. Helburu Orokorra

Eskolatzea eta gizarteratzea bultzatzea, hezkuntza-erantzunak pertsona guztietara egokituz

68. **Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Planaren** barruko «Enplegurako, prestakuntzarako eta eskola-arrakastarako sarbidea gizarteratzeko, erabateko herritartasuna lortzeko eta baliabideen mobilizaziorako» deritzon ildoan horretara bideratutako honako jardun hauek ezartzen dira:
- Kultura arteko ikuspegia (prestakuntza eta materialak lantzea eta zabaltzea nahiz horiei jarraipena egitea) txertatuta duen eskola inklusiboa garatzea.
 - Etorkinen ehuneko handia duten ikastetxeei pizgarriak ematea.
 - Harrerako, orientazioko eta gizarteratzeko prozesua hezkuntza-eremuan, hizkuntzak ikastea eta titulazioak baliozkotzea barnean hartuta.
 - Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetan esperientzia pilotua garatzea Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen senitartekoei prestakuntza emateko.
69. **2008-2012 aldirako III. Gazte Justizia Planak** honako helburu hauek hartzen ditu ildo horretan:
- Gazteen gatazkak prebenitzea eta ikastetxeetan bizikidetzatza sustatzea.
 - Neurri judizialen bat betetzen duten mutil eta neskei hezkuntza-arreta berezia ematea.
 - Egokitzeko arazoak dituzten mutil eta nesken eskolatzeari heltzea, jardun espezifikoekin bitartez.
 - Hezkuntzaren arloan bizikidetzaren eta gatazken konponketa baketsuaren kultura eta balioak bultzatzea.
 - Hezkuntza Proiektu Indibidualen diseinuak, neurrien betearazpena eta Hezkuntza Programak bateratzea, neurrien betearazpenerako zentro eta zerbitzu guztietarako.
 - Hezkuntzan Esku Hartzeko Programa espezifikoak sortzea honako arlo hauetan: adikzioak, ohikotasuna, primariotasun arau-hauslea, osasun mentala, enplegarritasuna, justizia berrezartzailea, etab.
 - Hezkuntzan esku hartzeari buruzko Ibilbide sektorialak lantzea honako eremu hauetan: prestakuntza arautua, lanerako prestakuntza, enplegua, etxebizitza lortzea, immigrazioa, etab.

Gizarteratze aktiboa sustatzea etxebizitza-politiketatik

Inplikaturiko erakundeak:

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila:
 - Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza.
 - Lanbide EEZ.
 - Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza.
 - Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila:
 - Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.
- Justizia eta Herri Administrazio Saila:
 - Justizia Zuzendaritza.
- Emakunde-Idazkaritza Nagusia.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

4.1. Helburu Orokorra

Gizarte-laguntzarekin lotutako zerbitzuen arteko koordinazioa eta saltzeko eta alokatzeko etxebizitzaren parke publikoaren funtzionamendua hobetzea

Etxebizitza-politikei eta gizarteratzeko premiak dituzten pertsonen egoeran duten eragin positiboari dagokienez, hemen jasotzen diren helburuez gain, aintzat hartu beharra dago koordinazio eraginkor bat behar dela gizarte-zerbitzuen, enplegu-zerbitzuan eta etxebizitza-zerbitzuen artean, jardun-plan honen 6. helburu estrategikoan zehazten denez, zehazki, bere 107 eta 108 jardueretan.

4.2. Helburu Orokorra

Behar duten pertsona guztiek behar bezalako baldintzetan dagoen etxebizitzarako sarbidea izan dezaten sustatzea

70. Arreta-ordutegiak zabaltzea etxebizitzarik gabeko pertsonentzako egoitza-baliabideetan, eta kaleko zerbitzua indartzea, gaixotasun mentalak dituzten pertsonekin esku hartzeko espezializatuak dauden langileak txertatuz.
71. Kultura-bitartekotzarako edota etxebizitzarik gabeko pertsonen arteko bizikidetzaren sustapenerako programa bereziak.
72. Etxebizitza-bazterkeriaren esparruan esku-hartze sozialerako politikak garatzea, etxebizitza-alorrean eskuduna den erakundearekin baterako politikak garatuz.
73. 2010eko ekainaren 16an Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak izenpetutako **Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean** honako ekintza hauek ezartzen dira ildo horretan:
- Gizarte-politiketara bideratutako etxebizitzaren inbentario bat sortzea, etxebizitza horien esleipena azkartzeko, premia eta larrialdi bereziko kasuetan. Inbentarioa erakunde publiko guztiek elikatu beharko dute, eta erakunde horiek eskuragarri dituzten etxebizitzei eta aldaketei buruzko informazioa emango dute, inbentarioa eguneratuta edukitzeko.
 - Harrera-etxebizitzaren eta gizarteratzeko etxebizitzaren sarea, behar adinakoa, sortzen laguntzea etxebizitzarik gabekoentzat, eta, bereziki, sozialki larrienak diren kasuetarako (genero-indarkeriaren biktimak, terrorismoaren biktimak, utzarazpenak, dibortziatutako pertsonak eta abar), baita hirugarren sektoreko kolektiboek bultzatutako programak sortzen laguntzea ere.
 - Esku hartzeko programa espezifikoa diseinatzea, Udalekin eta hirugarren sektoreko kolektiboekin lankidetzan, infraetxearen, asentamenduren eta gainokupazioaren fenomenoak desagerrarazteko; horretarako, jardun sozialak dituzten udalei laguntzeko ekintzak ezarriko dira, behar izanez gero.
74. Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko V. Planak** helburu estrategiko bat biltzen du bere III. Ardatzean («Emakumeen aurkako indarkeria»), 7.2 helburua alegia («Emakumeen babesa eta arreta integrala bermatzea»), eta horrek barnean hartzen du 7.2.6 neurria, honako arlo honi buruzkoa: «indarkeriaren biktimak diren eta etxebizitza-premia duten emakumeen etxebizitza-eskaria estaltzea, babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean edo etxebizitza eskuratzeko beste edozein abantailan lehentasuna emanez».
75. Bestalde, **Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzaileak (2010-2013)**, Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren «aterkiaren» azpian izenpetu zenak honako hau zehazten du 52. ekintzan:
- Kupoen egungo erregulazioa berrikustea aurretiazko baremazioa duen zozketa-eredu bat lortzeko. Eredu horretan, etxebizitza izateko premia objektiboaren irizpideek izango dute lehentasuna talde sozial jakin bateko partaideak izatearen gainetik, nahiz eta gizarte-oreka bati eutsiko zaion, bazter utzi gabe hainbat gizarte-kupo ezartzeko salbuespena bereziki sentikorrek diren problematiken aurrean.
76. EAEko **Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Planaren** jardunen barnean hartzean da kupoen egungo erregulazioa berrikustea, kalteberatasun bereziko egoeran dauden familientzat mekanismo eraginkorra izan dadin lortzeko xedearekin.
77. **Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Planaren** barruko «Zerbitzu eta programa publikoetan aniztasuna lortzea eta kudeatzea» izeneko ildoan horretarako jardunak ezartzen dira:
- Etorkinek babestutako alokairuan jarri diren etxebizitza hutsak berdintasun-baldintzetan eskuratzeari bultzada ematea, betiere Bizigune programaren esparruan.
 - Etorkinek 2010-2013ko Etxebizitzako eta Hiri Berrikuntzako Plan Zuzentzailearen esparruan sustatutako zuzkidura-alokamenduak eta alokairuko etxebizitzak eskura ditzaten sustatzea, autoktonoen baldintza berdinetan.
 - Emakumeen aurkako indarkeria pairatzen duten emakume atzeritarrei harrera- eta etxebizitza-zerbitzuetarako sarbidea bermatzeko neurriak proposatzea, Emakundek Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekiko lankidetzaproto-koloan, Berdinsarean eta Erakunde arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordean egiten duen koordinazio-lanaren esparruan.
78. **2008-2012 aldirako III. Gazte Justizia Planak**, etxebizitzari dagokionez, Gizarteratze Aktiboko Plan honekin lotutako helburu bat hartzen du, zehazki, Adingabeen Epaitegiak ezarritako neurri judiziala betetzen ari direla eta/edo beteta dutela gazteek etxebizitza lortzeko dituzten aukerak bultzatzeko helburua, hain zuzen ere.

Gizarteratze aktiboa sustatzea osasunetik, honako helburu hauek dituzten neurriak eta ekintzak ezartzearen bitartez: berdintasuna osasun-zerbitzuekiko sarbidean, gizarte-bazterkeriako egoeren prebentzioa, eta gizarteratzearen eremuan inplikaturiko agenteekiko koordinazioa

Inplikaturiko erakundeak:

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila:
 - Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza.
 - Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
- Osasun eta Kontsumo Saila:
 - Droga Gaietako Zuzendaritza.
 - Aseguramendu eta Kontratazioko Zuzendaritza.
 - Ezagutzaren Gestioa eta Ebaluazioko Zuzendaritza.
 - Osasun Publikoko Zuzendaritza.
 - Osakidetza.

5.1. Helburu Orokorra

Osasun-zerbitzuak ematearen eta gizarteratze aktiboaren sustapenean inplikaturik dauden agenteen koordinazioa bultzatzea

79. **Euskadiko kronikotasunaren erronkari aurre egiteko Estrategiaren** 9. proiektu estrategikoan (Lankidetzaren Sozio-sanitarioa) proiektuak gaixoen erabateko balioespina hezurmamitzen duela zehazten da, eta horretaz gain, kronikotasunari arreta emateko estrategia horren ikuspegiaren elementu guztiak biltzen dituela, berrantolaketaren nahiz Osasun Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazioaren bitartez eta erabiltzaileei baterako zerbitzu-pakete bat txertatuko duten formulak eskainiz.
80. **EAEko Osasun Mentaleko Estrategiak**, haren 2.1. Helburu espezifikoan (Gizarte-bazterkeria edo marjinalitatea pairatzeko arriskuan dauden alorretan esku-hartze komunitarioak gauzatzea eta ebaluatzea, buru-nahasteetan eta adikzioetan erabakigarriak diren faktoreetan jarduteko xedez), honako hau proposatzen du:
- Osasun Planaren Erakunde arteko Batzordearen (EUDL, Osakidetza, Osalan, Gizarte Ongizatea, eta abar) eta Kontseiluaren arteko harremanak sustatzea eta ezartzea, guztien intereseko ekintzak bideratzeko xedez.
 - Foru-aldundiak inplikatzeko, hirugarren adinean buru-nahasteak prebenitzeko politikak eta ekintzak bilduko lituzketen klausulak Hitzarmenetan txertatzeko jomugarekin.

5.2. Helburu Orokorra

Pertsona guztiek osasun-zerbitzuak eskuratzeko aukera baldintza berdinetan dutela bermatzea

81. Euskal Autonomia Erkidegoko **osasun-aseguramendu publikoaren esparruan praktikak** eguneratzeko, sistematizatzeko eta **homogeneizatzeko proiektua**. Osasun eta Kontsumo Sailak, Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritzaren bitartez, arestian aipatutako proiektua sortzeko lanean dihardu gaur egun, osasun-laguntzaren Unibertsaltasuna lortzeko helburuarekin.
82. **Aseguramenduaren** esparruan, Gobernu kanpoko erakundeekin —bazterkeria-egoeran dauden taldeekin lotutakoekin— lankidetzan aritzen jarraitzea, lankidetzaren jomuga horrelako taldeei sorospenerako eskubidea ahalbidetzeko behar diren mekanismoak antolatzea izanik.
83. **Gaixotasun Arraroetarako strategiaren Ekintza Planaren** hamargarren ildo estrategikoan («Premia sozio-sanitarioen azterlana») ezartzen da Gaixotasun Arraroak dituzten pertsonen premia espezifiko horiei heltzera bideratutako gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu sozio-sanitarioen beharren azterlan bat egingo dela.
84. **2008-2012 aldirako III. Gazte Justizia Planak**, osasunari dagokionez, helburu espezifiko bat hartzen du, zehazki, neurri judizialen bat betetzen ari diren mutil eta neska guztiei osasun-sorospena bermatzeko, hain zuzen ere.
85. **EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Planak**, horri dagokionez, kolektibo espezifikoaren tratamendu-premiei heltzeari buruzko diziplina anitzeko azterlana txertatzen du (desgaitasunarekin loturiko jokabide-nahaste larriren bat duten pertsonak, muturreko gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak, edota portaera-nahaste larriak dituzten adingabeak).

5.3. Helburu Orokorra

Osasun-zerbitzuetatik gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzea

86. **Biztanleriaren geruzapena** egitea **osasun-arretako premian arabera, Euskadiko Kronikotasun Estrategian** hartu beharreko biztanleria-osasunean oinarritutako ikuspegiaren zati gisa. Neurri hori lagungarria izan daiteke bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen ere beren osasun-premiei egokitutako tratamendua jaso dezaten ahalbidetzeko. Hala ere, Osasunetik balioetsi egin behar da geruzatzeko irizpideek zein neurritan hartu behar dituzten kontuan gizarte-bazterkeriako arriskuari buruzko aldagaiak
87. **Osasuneko berdintasunari buruzko ikuskapenak** egitea, gaixotasun kronikoen arretari dagokionez, osasun-arretaren sarbidean eta kalitatean desberdintasunak identifikatu, zuzendu eta prebenitzeko.
88. **Osasunaren arloko gizarte-desberdintasunen monitorizazioa** egitea, osasun-arloko gizarte-desberdintasunen aldi baterako bilakaeraren eta egoeraren deskribapen eta hedapen sistematikoaren bitartez.
89. **EAEko Osasun Mentaleko Estrategiak** honako hau proposatzen du:
- Ingurune marjinaletan babesgabetasun-egoeran dauden adingabeei laguntzeko esperientziak orokortzea.
 - Arriskuan dauden taldeei jarraipena egitea, modu espezifikoan esku hartzeko (esaterako, familia desegituratuak dituzten haurrak, besteak beste).
 - Gizarte-desberdintasunen esparruan (zehazki, horiek osasun mentalarekin duten loturari dagokionez) ikerketa-ildoak irekitzea.
 - **Emakumeak eta Osasuna 2009-2012 Programaren** «Genero-indarkeriak emakumeen osasunari dakarkion inpaktua murriztea osasun-zerbitzuetatik detektatuz eta esku hartuz» jardun-ildoan honako hau ezartzen du: emakume etorkinek eta emakume desgaituek genero-indarkeriako egoeren aurrean dituzten premia espezifikoak aztertzea, emigrazio-elkarte eta desgaitasun-elkarte adierazgarriekin lankidetzan arituz.
90. **2008-2012 aldirako III. Gazte Justizia Planak** honako helburu espezifiko hauek hartzen ditu osasun-esparruan:
- Arreta berezia ematea nerabeen osasun mentalari.
 - Osasunaren baliabide arruntak egokitzea osasun mentaleko arazoak, adikzioak eta gizarte-bazterkeriako egoerak bizi dituzten adingabeen arreta-premietara.
 - Prebentzioaren bidez esku hartzea osasunaren eremuan, batez ere osasun mentalaren, kontsumo arazotsuen eta arriskurik gabeko sexu-harremanen arloan.
91. **EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Planak** honako hau txertatzen du horri dagokionez:
- Osasun-langileentzako protokolo eta tresna jakin batzuk sortzea eta aplikatzea, familia-unitatearen kalteberatasun-egoerekin loturiko zantzuak edo arrisku-faktoreak identifikatzea, eta horrenbestez, hura babes-sistema egokietara deribatzea ahalbidetzen duten protokolo eta tresnak, hain zuzen.
92. **2011-2015 aldirako EAEko Adikzioen VI. Planak** arriskuaren barruko kolektiboei zuzendutako prebentzio selektiboko programetan aurrera egiteko eta gizarte talde oso ezberdinen barruko polikontsumoen errealitatera egokitzeko helburua jasotzen du. Era berean, beren helburuen arten biltzen dute alkoholaren eta tabakoaren kontsumoa murriztea, eta hasteko adina ahal den guztia atzeratzea.

Modu egonkorrean artikulatzea eta administrazioen arteko eta sailen arteko koordinazio eta lankidetzaren multisisistema sustatzea, baita lanbide-gaikuntza eta gobernantza parte-hartzailea ere, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 93. artikuluan, herri-administrazioen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako betebeharrak arautzen da, Diru-sarreraren eta Gizarteratzearen Euskal Sistemaren funtzionamenduan eraginkortasun eta efizientzia handiena bermatzearren. Horretarako, erakunde-antolakunde batekin hornitu da, hain zuzen ere Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea eta Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea. Era berean, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planarekin lotutako erakunde-egiturak hirugarren organo bat dauka, hain zuzen ere Gizarteratzeko Euskal Kontseilua, kontsulta-eta partaidetza-izaera duena. Hiru organo horiek diru-sarreraren eta gizarteratzearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailari atxikiak daude.

Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Plana lantzearen une honetan oraindik ez dira garatu hiru organo horien osaerari eta funtzionamenduari buruzko arauak. Horren ildotik, egokia da hemen aipatzea plan honen bederatzigarren helburu Estrategiak bere neurrien artean biltzen duela organo horien funtzionamenduarautegia lantzea.

Era berean, arestian adierazitako Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen, Sail arteko

Batzordearen eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren funtzioak ezartzen dira, hurrenez hurren. Organo horien funtzio batzuek administrazio arteko eta sail arteko koordinazioan eta lankidetzan duten garrantzia aintzat hartuta, bereziki lehenengo bi organoen kasuan, funtzio horiek esanbidez gaineratu dira helburu orokor batzuen neurrien artean.

Halaber, eta helburu orokor guztiei eta helburu estrategiko horren neurriei dagokionez, ezinbestekoa izango da aztertzea organo horietako batzuen eskumenekoak izan daitezkeen edo, hala badagokio, organo horiek horien berri jaso behar duten bidezko zat jotzen dituzten ekarpenak eta balioespenak egiteko, betiere Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko.

Inplikaturiko erakundeak:

- Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren erantzukizunak dituzten Erakunde guztiak.
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza.

6.1. Helburu Orokorra

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren eta biztanleria-talde kalteberen gizarteratze aktiborako jardunak txertatzen dituzten plan eta ekimenen arteko koordinazioa bermatzea, gizarteratze aktiboaren esparruan metaturiko aurrerapausoak eta esperientziak aprobetxatzeko

93. Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak sailen arteko gizarteratze-gaietako esku-hartzeak eta jarduerak koordinatzeko proposamenak ezartzea, eta, hala badagokio, zenbait sailetan batera eragiten duten jardunei buruzko finantza-kargak sailen artean banatzeko irizpideei dagozkienak era bai⁴⁴.
94. Gizarteratzeko Sail arteko Batzordeak bazterkeriaren kontra borrokatzeko esku-hartzeen edo jardunen aplikazioa aztertzea, eta, hala badagokio, bazterkeria-egoerek planteatzen dituzten arazoei aurre egiteko proposamen berriak aztertzea⁴⁵.
95. Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak lurralde- eta toki-eremuko planen eta programen gainean aholku ematea, baita gizarteratze-gaietan eragina duten foru- eta toki-arauen gainean ere⁴⁶.

6.2. Helburu Orokorra

Gizarteratze aktiboarekin lotutako gaietan eskumenak dituzten eragile publiko guztiekiko koordinazioa, lankidetzak eta komunikazioa lortzeko mekanismoak ezartzea, pertsonen gizarteratze aktiboa hobetuko duten baterako ekintzak diseinatzeko eta garatzeko mekanismoak ezartzea, enplegu-politika aktiboek politika pasiboekin eta gizarte-babeseko politikekin eta politika pasiboekin duten lotura indartuz

96. Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak euskal herri-administrazioei proposatzea 18/2008 Legean aurreikusitako gaien gainean dituzten jardunen koordinaziorako beharrezko neurriak hartzea, erreferentzia berezia eginez jardun horiek garatzeko beharrezkoak diren giza baliabideen eta baliabide materialen azterketari⁴⁷.
97. EAEko Jaurilaritzaren Sailerako, Aldundietako, udalerrietako, elkarte-sektoreko eta agente ekonomiko eta sozialetako taldeen (tekniko-politikoen) arteko koordinazio sistematikoan eta zeharkakotasunean eraginkortasunez laguntzeko Komunikazio Plan bat ezartzea.

(... /...)

⁴⁴ Neurri horrek Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean bildutako Gizarteratzeko Sail arteko Batzordearen funtzioei buruzko 96.3.c) artikulua edukia helarazten du.

⁴⁵ 18/2008 Legearen 96.3.d) artikulua (Gizarteratzeko Sail arteko Batzordearen funtzioak).

⁴⁶ 18/2008 Legearen 95.e) artikulua (Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen funtzioak).

⁴⁷ 18/2008 Legearen 95.i) artikulua (Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen funtzioak).

(... / ...)

98. Erakunde arteko Batzordeak, bost urtean behin, kudeaketaren kalitate-kontrolerako txosten bat egitea, hiru erakunde-mailen esku-hartzeak 18/2008 Legean xedaturikoaren aplikazioan eta egikaritzean eragin ditzakeen disfuntzioak detektatzeko, eta, hala badagokio, behar bezala bete eta garatzeko behar diren ekintzak proposatuta⁴⁸.
99. Hala badagokio, gizarteratze aktiborako udal-programak garatzea Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana egikaritzeko.
100. Planaren jardun-arloetan eskumenak dituzten Erakundeekin lankidetzan aritzeko protokoloak sustatzea, premiak detektatzen diren heinean, hezkuntzaren, osasunaren, familiaren, etxebizitzaren, lanaren eta gizartearen esparruetan jardunak garatzeko, betiere jardun horiek pertsona kalteberenen gizarteratze eta parte-hartze aktiboa bultzatzen badute politika publikoetan genero-ikuspegi osatua txertatuz. Hurrengo neurriek protokolo horietako batzuk jasotzen dituzte.
101. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arreta-maila bakoitzaren arteko etengabeko koordinazio-prozedura ezartzea hartzaileen gizarteratze aktiboarekin lotutako barneko jardun eta prozedura guztietan, zerbitzu integrala, kalitatezkoa, eraginkorra eta unibertsala ematen dela bermatzeko. Zehazki, lankidetzaren protokoloak lantzea gizarte esku-hartzearen eta gizarteratzeko eta laneratzeko esku-hartzearen deribaziorako eta koordinaziorako.
102. Lankidetzaren sistemak ezartzea gizarte esku-hartzearen eta osasun-kudeaketaren deribaziorako eta koordinaziorako, bereziki buru-nahasteak eta/edo adikzioak dituzten gaixoei lotutako kasuen kudeaketan, patologia horien determinatzaileen gainean jarduteko, eta, era berean, lankidetzaren soziosanitarioa ahalbidetzeko, eta, aldi berean, gaixo kronikoei zerbitzu integratuak bermatzearren⁴⁹.
103. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta hezkuntza-sistemaren esku-hartzearen deribaziorako eta koordinaziorako lankidetzaren protokoloak lantzea, bereziki Enplegurako Lanbide Heziketari, Helduen Etengabeko Prestakuntzari eta Bizitza osoko Ikaskuntzari dagokionez.
104. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen koordinazioa eta lankidetzaren sendotzea udalen eta foru-aldundien artean, lehen mailako arretan zein arreta espezializatuan, zehazki, horiek adingabeen eta horien familien gizarte-bazterkeriako edo babesgabetasuneko egoerarekin duten harremanari gagozkiola.
105. Tokiko eremuko sarearen arteko koordinazioa bultzatzea, hala nola sare soziosanitarioak, gizarte- eta hezkuntza-sareak, etab.
106. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren arteko koordinazio-prozedura bultzatzea, gazteenak heldutasunera eta lan-bizitzara iragan daitezen errazteko.
107. Gizarte-laguntzekin lotutako zerbitzuen eta salmentako eta alokairuko etxebizitza-parke publikoaren funtzionamenduaz arduratzen diren zerbitzuen arteko lankidetzarako sistemak eta protokoloak ezartzea, gizarte-laguntzen kontrola hobetzeko eta gizarte-politiketara bideratutako parke publikoa bateratzeko.
108. Lankidetzarako sistemak eta protokoloak ezartzea enplegu-zerbitzuen eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailean inplikaturiko zerbitzuen artean, Etxebizitza Prestazio Osagarriko laguntzen kudeaketa eraginkorra-goia egiteko.

⁴⁸ 18/2008 Legearen 95.j) artikulua (Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen funtzioak).

⁴⁹ Horren ildotik, ikus osasunetik gizarteratze aktiboa bultzatzeari buruzko 5. helburu estrategikoarekin lotutako helburuak eta jardunak (...)

6.3. Helburu Orokorra

Babes-sistema guztietako gizarteratze-profesionalen jarduteko estrategia berrien gaineko sentsibilizazioa, prestakuntza eta egokitzapena hobetzea, pertsona bakoitzaren banako premiak ezagutzeko eta Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren hartzaileen esku dauden baliabideen kudeaketa eraginkorra bermatzeko

109. Planaren existentzia, printzipioak, helburuak eta neurriak Planaren abiaraztean sartutako langileen artean zabaltzea.
110. Aniztasunari eta parte-hartze aktiboari buruzko prestakuntza-ekintzak gauzatzea eta/edo sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko modulu bat bilduta, honako hauei zuzenduta: herri-administrazio maila guztietako teknikariei, irakasleei, elkarte-mugimenduko teknikariei eta pertsona kalteberei zuzeneko arreta ematean diharduten profesionalei; hain zuzen ere, horiek talde desberdinen gainean duten jakintza eta tratua espezializatua hobetzeko.
111. Gizarteratzearen arloko profesionalei zuzendutako sentsibilizazio, prestakuntza eta gaikuntzako ekintzak egitea, funtzioak behar bezala gauzatzen direla ahalbidetzeko.

6.4. Helburu Orokorra

Jarraipen sistematiko bat egitea, funtzionamendu eta koordinazioko mekanismo berrien egokitzapen egokia eta sistemaren diseinu iraunkorra sustatzeko

112. Informazio-tresnak eta kudeaketaren kontrolerako tresnak sortu edo egokitzea, hala nola aginte-koadroak, eta abar, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren jarraipen eta ebaluazioko funtzioak egiteko koordinazioa eta informazio-trukea ahalbidetzeko.
113. Gizarteratze-gaietan erantzukizuna duten euskal herri-administrazio guztiek Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeari informatzea gai horien inguruan onartzen dituzten plan eta programen jarraipen eta ebaluazioari buruz, baita gizarteratze-gaietan eragina duten arauen aplikazioari buruz ere⁵⁰.
114. Diru-sarrerak bermatzean eta gizarteratze-gaietan erantzukizuna duten euskal herri-administrazio guztiek Gizarteratzeko Euskal Kontseiluari informatzea plan orokorren eta sektorialen betearazpenaren jarraipen eta ebaluazioari buruz⁵¹.
115. Gizarteratzeko Euskal Kontseiluak gomendioak ematea Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema hobetzeko, Gizarteratzeko Euskal Planaren egikaritzearen gaineko jarraipen eta ebaluazioari buruzko urteko txosten baten bitartez, betiere arriskuan edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko garatu beharko liratekeen jardunei buruzko proposamenak eginez Jaurilaritzari nahiz eskumena duten gainerako organo edo erakunde publikoei eta pribatuei⁵².
116. Jarraipen Batzorde bat ezartzea Gizarteratzeko Euskal Kontseiluan integratutako kide anitzeko organo gisa, betiere kontsulta eta parte-hartze izaerako organo horrek onartu eta egokitzen jotzen badu. Horren funtzioa izango da Gizarteratzeko Euskal Kontseiluari laguntzea Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren jarraipen- eta ebaluazio-eginkizunetan, eta, beraz, Gizarteratzeko Euskal Kontseiluak zehazten dituen langile teknikoekin osatuko litzateke.

⁵⁰ 18/2008 Legearen 95.f) artikulua (Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen funtzioak).

⁵¹ 18/2008 Legearen 98.5 artikulua (Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren funtzioak).

⁵² 18/2008 Legearen 98.6 artikulua (Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren funtzioak).

Hirugarren sektoreko erakundeek gizarte-bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden kolektiboekin egindako lanaren balioa onartu eta indartzea

Inplikaturiko erakundeak:

- Gizarteratze Aktiboko Euskal Planean erantzukizuna duten erakunde guztiak.
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Plangintza eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza (erakunde nagusia eta koordinatzailea).

7.1. Helburu Orokorra

Hirugarren sektoreko erakundeen lankidetza berrantolatzea gizarteratzeko eta laneratzeko esku-hartze prozesuen kudeaketan, balioa emanez horien jakintzari, egiten jakiteari, eta pertsona horiek ordezkatzeko egiten duten lanari, baita lankidetzaren bidezko lanean sinergiak sustatzea ere

117. Hirugarren sektoreko erakundeen Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekiko lankidetza berrantolatzea, arriskuan dauden pertsonen enplegurako aktibaziorako, DBEaren hartzailak izan ala ez, eskuragarri dauden gailuen bitartez, hala nola Enplegu Zentro Bereziak, Laneratzeko Enpresak, orientazioa, prestakuntza, bitartekotza, etab. Era berean, Gizarte Zerbitzuekiko lankidetza berrantolatzea gizarteratze-prozesuetarako. Eta gainerako sistemekin, kasu bakoitzean aurreikusitako gailuen eta deialdien bitartez.

7.2. Helburu Orokorra

Komunikazioko eta informazioko ekintzak garatzea planean eskumena duten erakunde publikoen eta Hirugarren Sektoreko erakundeen eta bestelako agente ekonomiko eta sozialen arteko koordinazioa eta lankidetza hobetzeko

118. Administrazioko erakundeen, elkarten eta agente ekonomikoen eta sozialen artean lankidetza-sinergia bat ahalbidetzeko mekanismoak antolatzea.
- **Elkarrietzeta Zibilerako Mahaiaren** deialdiak aldizka egitea; gizarteratze aktiboaren hirugarren sektoreko federazio eta sare nagusietako eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkariekin osatuko da. Bilerak hiru hilean behin izango dira.
 - Gai jakin batzuen gaineko **foroak teknikoak** indartzea, teknikarien mailan eta administrazioak, elkarteak, agente ekonomiko nahiz sozialak eta egoki iritzitako edozein agente txertatuta.
119. Hirugarren sektoreko erakundeen eta, oro har, intereseko agente guztien parte-hartzea sustatzea, informatzea eta inplikatzeko, planarekin lortutako urteko emaitzak zabalduz, bai metodo pasiboen bitartez, hala nola Jarraipen Txostenak bidalitako plana egikaritzeaz arduratutako pertsonen, bai metodo aktiboen bitartez, lan-mahaiak eta/edo lan-topaketak eginez.

7.3. Helburu Orokorra

Lankidetzaren bitartez lan egitea, bazterkeria-egoeran dauden edo erortzeko arriskuan dauden pertsonen gizarte-premien, aukeren eta lan- eta gizarte-kontribuzioen gainean euskal gizarteak duen ulermena aldatzeko

120. Hirugarren sektoreko elkarteek antolatutako topaketa-foroetan herri-administrazioek modu aktiboan parte hartzea, bazterkeria-arriskuan edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonen premiak eta lan-merkatuan parte hartzeko aukerak aztertzearen, eta baterako ekintzak indartzearen.
121. Bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden elkarteak dinamizatzea eta pertsona horiek elkarteetan biltzea sustatzea, batez ere egoera kalteberan dauden emakumeen kolektiboaren kasuan, parte-hartze sozialari, prestakuntzari, enpleguari, aukera-berdintasunari eta bateratze-neurriei buruzko gaiak lantzeko, pertsona kalteberenak euskal gizartean eta lan-merkatuan modu aktiboan txerta daitezen.
122. Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen enplegua sustatzearekin loturiko jardunbide egokiak ezagutarazteko ekintzak (hala nola, argitalpenak, liburuxkak, jardunaldiak eta abar) egitea: langileen eta enpresa arrunten arteko lan-bitartekotza, emaitzak laneratzea, autoenplegua eta/edo enpresak sortzea, besteak beste. Hala badagokio, informazio-euskarriak egokitzea adinekoen, etorkinen eta beste kolektibo batzuen informaziorako sarbidea erraztearen.
123. Familiei informazioa eta aholkularitza emateko ekintzak diseinatu eta garatzea, seme-alabentzako enplegu eta prestakuntzako baliabideei dagokienez, eta prestakuntzaren eta enpleguaren ondorioz sor daitezkeen gizarteratzeko aukerak, nabarmenduta (autonomia pertsonala eta ekonomikoa, aisialdirako aukera, gizarte-harremanak hobetzea eta abar). Era berean, hezkuntzaren eta lanaren inguruan familiei ematen zaien informazioak eta aholkularitzak genero-baldintzatzaileen ahalik eta eragin txikiena dutela bermatzea.
124. Familietan sentsibilizazio-ekintzak garatzea gizarteratze aktiboari eta bizimodu independenteari buruz, generoari, erantzukidetasunari eta familia-ereduei buruz, inoren laguntza behar dutenak zaintzeko laguntzei buruz eta pertsona guztiek gizartean integratu eta parte hartzeko eskura dauden baliabideei buruz.

Diru-sarrerak bermatzeko, enplegu eta prestakuntzako politikak berritzeko eta horien plangintza estrategikorako txostenak, analisiak eta azterlanak egitea, aktibaziorako eta laneratzeko lagungarriak diren ikuspegi berriak zehaztuz

Indarreko araudiaren arabera⁵³, Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzari dagokio diru-sarrerak bermatzeko politikekin eta prestakuntza- eta enplegu-gaiekin lotutako azterlanak, analisiak eta txostenak egitea, beti plangintza estrategikorako eta enplegu eta prestakuntzako berrikuntzarako, hain zuzen ere laneratzean eta aktibazioan laguntzearen.

Aipatutako azterlan, analisi eta txosten horien garapena pobrezia- eta bazterkeria-errealitateen jarraipena ahalbidetu behar duten gako adierazleen bilakaerari buruzko aldizkako informazioa ematen duen estatistika-oinarri batean oinarritu behar da. Horren haritik, EAEk estatistika-egitura egokia duela iritzi da, bere Estatistika Plan eta Programetan ikusten denez. Hala, 2013-2016 aldirako Euskal Estatistika Planaren aurreproiektuak beharrezko oinarriko estatistika-informazioa sendotzeko gako eragiketak biltzen ditu. Eragiketa horiek EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika Organo Espezifikokoak kudeatzen dituzte.

Analisiak, azterlanak eta txostenak egiterakoan, eta, batez ere, datuen bilketan eta tratamenduan, sistematikoki txertatu behar dira aztertutako fenomenoak interpretatzeko informazio esangu-

ratsua eman dezaketen aldagaiak —sexuari buruzkoak, sozioekonomikoak, hezkuntzarekin lotuak, lan-arlokoak, profesionalak, familia-arlokoak, demografikoak, eta abar—. Aldi berean, aztertu beharreko gaiarekin lotuta dagokion adierazle-sistemak erabiliko dira, kasu bakoitzerako adierazle erabilgarrien neurketa edo analisia kontuan hartuta.

Inplikaturiko erakundeak:

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Plangintza eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza (erakunde koordinatzaile nagusia eta betearazlea).
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza.
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa.
- EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea.

⁵³ 42/2011 DEKRETUA, martxoaren 22koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena.

8.1. Helburu Orokorra

Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren fenomenoei buruzko jakintza hobetzea, erabakiak hartzeko garaian eta politika publikoak diseinatu eta ebaluatzeko garaian lagungarri izan dadin

125. Egungo krisiak bazterkeriaren gainean eta pertsona gazteenen hezkuntza-mailen gainean epe ertainean eta luzean izango dituen ondorioei buruzko azterlan bat sustatzea.
126. Biztanleria-talde kalteberak, horien premiak eta gizarte-bazterkeriako arriskuan daudenen bilakaera identifikatzeko azterlanen garapena sustatzea.
127. Gizarte-bazterkeriaren diagnostikoa egiteko tresna bat diseinatu eta tresnaren erabilpena orokortzea prestazioko eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko programa guztietara zabalduz.
128. Gizarteratze aktiboan eragina duten eremu guztiei buruzko —etxebizitza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, enplegua, hezkuntza, eta abar— estatistika-informazioa aldizka lortu eta zabaltzea.
129. Administrazioaren maila eta alderdi guztietan batera erabiltzeko moduko gizarte-bazterkeriaren adierazleak diseinatu eta finkatzea, esku-hartze sozialari eta horren jarraipenari koherentzia emanez.
130. Pobreziarekin eta bazterkeriarekin lotutako gako adierazleen jarraipenerako beharrezko estatistika-oinarria sendotzea.
131. Honako hauen jarraipen- eta ebaluazio-premietara egokitzea: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta Plana (PGDI), eta Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika, Gizarte Premiei buruzko Inkestaren esparruan (GZEE-GPI).
132. Eustatek eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailaren Estatistika Organoak kudeatutako estatistika-sistematik lortutako informazioaren gainean, inplikaturiko alderdi guztien koordinazio- eta aprobeixamendu-mailak hobetzea.

8.2. Helburu Orokorra

EAEn pertsona kalteberenen egoerari —gizartearen, lanaren eta prestakuntzaren arloko egoerari— buruzko jakintza hobetzea, politikak ebaluatzeko, erabakiak hartzeko garaian politika berrietara bideratzeko eta iritzi publikoa, oro har, informatuta eta sentsibilizatuta izateko

133. Pertsona kalteberenen egoerari buruz askotariko azterlanak egin daitezen sustatzea, haien gizarteratzeari, prestakuntzari eta enpleguari dagokionez. Esaterako:
 - Pertsona kalteberen taldeen enplegarritasun-baldintzei buruzko azterlan diagnostikoa (prestakuntza-maila, egoera jardura ekonomikoari dagokionez, prestakuntzaren eta lanaren arloko egoeraren baldintzatzaileak eta abar), honako datu hauen berri izateko: ezaugarri soziodemografikoak, prestakuntza-premiak, lan-merkatuan dituzten premiak eta aukerak, baita baldintza egokiak betetzen dituzten postuetan ere.
 - Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzat lana lortzeko aukera diren enplegu-sorkuntzako sektore berriak identifikatzeko azterlanak, bereziki lan-merkatuan sar daitezkeen/sartu nahi dutenei, gazteei, enplegu prekarioak dituztenei, luzaroko langabeei eta abarri erreparatuta.
 - Enpleguaren egungo egoeraren azterlan diagnostikoa (araudia, lurralde-banaketa, lan-baldintzak, sektoreen eta okupazioaren espezializazioa, aukerak, enplegu babesturako berariazko hitzarmenak komeni ote diren eta abar), egungo eta etorkizuneko egoera behar bezala balioesteko lagungarri izan dadin.
 - Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen kasuan, enplegua lortzeko alternatiba bideragarria izaki, autoenpleguaren aukerei eta baldintzatzaileei buruzko azterlana, ezaugarri pertsonalak (generoa, adina, egoera...) eta lurralde-eremua kontuan izanik, autoenplegua sustatzeko berariazko jardunen diseinuan orientagarri izan dadin.
 - Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen enpresa arruntetan duten egoeraren ebaluazio-azterlana, hainbat alderditan: okupazio mota, betetzen dituen eginkizunak eta jardura; berariazko premiak; segurtasun-baldintzak lanean; lan-baldintzak; eta abar.
134. Ikerketa-ildo akademikoak sustatzea eta argitaratzea, gizartean eta lan-merkatuan bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden pertsonen integrazioarekin loturik.
135. Gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko lotura, Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenen funtzioa eta bi sistema horietara jotzen duten pertsonen jarraipena aztertzea.
136. Gizarteratze aktiboa sustatzea eta lan-merkatutik urrun daudenen errentari laguntzea xede dituzten tokiko eta eskualdeko politiken konparazio-azterlanak eta ebaluazioak egitea.
137. Gizarteratzearen, gizarteratze eta laneratzearen, prestakuntzaren eta enpleguaren arloan jardun hobeagoen garapena eta zabalpena sustatzea, bereizgarriak, sariak edo aitorpenak ezarritik, esate baterako, urtero gizarteratze aktiboaren alde lan onena egin duen erakundea hautatuz.
138. Azterlana egiteko talde bat eratzea, lurraldeko gizarte-eragileekin, elkarteekin eta taldeekin, gizarte-prestazioek enplegu-politiketan eta soldata-politiketan duten eragina ebaluatzeko, horretarako kudeaketa-sistema berria aplikatzen duten udalerrak eta aurreko sistema aplikatzen dutenak konparatuta. Tresna berraztertzea eta lurralde osoan aplikatzeko moduko zuzenketa egokien proposamenak egitea.

8.3. Helburu Orokorra

Gizarte-berrikuntza bultzatzea, gizarte-ekintzailletza eta gizarte-erantzukizun korporatiboa sustatuz

139. Gizarte-ekintzailletzak Euskadin dituen adierazpenak hobeto eta gehiago ezagutzeko lagungarri diren azterlanak egin daitezzen bultzatzea, potentzial berritzailea duten ekimenak, ekimen horien lorpenak eta premiak identifikatuta, laguntza-sistema integrala sortzeari begira.
140. Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren arloko ikerketa eta finantza sozialki arduratsuak indartzea.

Indarrean dagoen arau-esparrua egokitzea, gizarteratze aktiboko prozesuak antolatu eta ahalbidetzeko

Inplikaturiko erakundeak:

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila:
- Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza.
- Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua.

9.1. Helburu Orokorra

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen hainbat alderdi garatzea, aplikatzen direla ziurtatuz eta erregelamendu bidez erabat garatuz

141. Deribazio- eta koordinazio-protokoloak zehaztea herri-administrazio guztien artean, bereziki gizarte-zerbitzuekin, osasun-zerbitzuekin, hezkuntza-sistemarekin, eta etxebizitza-zerbitzuekin.
142. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzailerek komunitatearen onurarako lanak egiteko prozedura araubidez garatzea; 19.1 artikuluko i ber) idatz-zatian aurreikusten da hori.
143. Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea eratu eta abiaraztea⁵⁴ eta haren funtzioen garapena bultzatzea⁵⁵.
144. Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen⁵⁶ eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren⁵⁷ funtzionamendu-araudia lantzea⁵⁸.
145. Diru-sarrerak bermatzeko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua, eta etxebizitza-prestazio osagarriari buruzko urtarilaren 12ko 2/2010 Dekretua aldatzea, azaroaren 24ko 5/2011 Legeak 18/2008 Legean egindako aldaketara egokitzeko.
146. Dekretu berri bat lantzea, gizarteratze aktiboko hitzarmenen gaineko erregulazioa araubidez garatzeko.

⁵⁴ IV. titulua (Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren planifikazioa eta garapena), 86. artikulua. Eusko Jaurlaritzaren eskumenak.

⁵⁵ Beste Batzordeen kasuan ez bezala, 18/2008 Legean ez da aurreikusten Gizarteratzeko Sail arteko Batzordeak gizarte-bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legean sortutako Gizarteratzeko Sail arteko Batzordearen osaera eta funtzionamendua hartu behar duenik. Gizarte-bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 14/1998 Legearen 14.2 artikuluan Gizarteratzeko Sail Arteko Batzordearen osaera arautu zen.

⁵⁶ 18/2008 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorraren arabera, Lege hau indarrean sartzean, lege honetan eratzten den Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak izen bereko aurreko erakundearen osaera eta funtzionamendua izango ditu, funtzionamenduko araudi espezifikoa onartu arte. Gizarte-bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen 12. 2 artikuluan Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordearen osaera arautu zen.

⁵⁷ 18/2008 Legearen Hirugarren Xedapen Iragankorraren arabera, Lege hau indarrean sartzean, Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra Gizarteratzeko Euskal Kontseilua izatera igaroko da. Kontseiluak batzordearen osaera eta funtzionamendu berak izango ditu, funtzionamenduko araudi espezifikoa onartu arte. Gizarte-bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen 11. 2 artikuluan Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorraren osaera arautu zen.

⁵⁸ Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea abiarazi eta eratzeari dagokionez, baita Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren funtzionamendu-araudiei eta Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeari dagokionez ere, gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkapen orekatua bultzatu beharko litzateke, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 eta 23. artikuluek aurreikusten dutenarekin bat etorritz.

3.3.

GIZARTERATZE AKTIBOKO

III. EUSKAL PLANAREN (GAEP) JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Politika publikoak —esate baterako, 2012-2016 aldirako Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana— gobernu batek lurralde batean detektatutako premia jakin batzuk konpontzeko gauzatzen dituen helburuen, erabakien eta jardueren multzo bat dira.

Esku-hartze publikoei dagokienez, ebaluazioa arau, programa, plan edo politika publiko baten ezagutzara bideratutako behaketa, neurketa, analisi eta interpretazioko prozesu sistematiko gisa ikusten da, ebidentzietan oinarrituta balioespen bat lortzearen, betiere diseinuari, praktikan jartzeari, ondorioei, emaitzei eta inpaktuei dagokienez. Ebaluazioaren xedea da erabaki-hartzaile eta kudeatzaile publikoentzat eta herritarrentzat erabilgarria izatea⁵⁹.

Ebaluazioaz gain, badaude antzeko funtzioa duten beste prozesu batzuk, hala nola jarraipena, auditoria eta ikerketa.

Zehazki, jarraipena etengabeko prozesu bat da, politika, programa edo proiektu baten egikaritzeak aurreikusitako helburuak betetzen dituela egiaztatzeko datuak sortzen dituen, baina ez ditu efektuak edo inpaktua kontuan hartzen —ebaluazioak bai egiten du—, eta, beraz, bi prozesuak osagarriak dira.

Kudeaketa-auditoria programaren edo dagokion antolakundearen «3E» deitutakoak dira (ekonomia, eraginkortasuna eta efizientzia).

2012-2016 aldirako Gizarteratzeko Euskal Planak, aurreko planek egin zuten moduan, gizarte-bazterkeriaren tratamenduan eta prebentzioan aztertu beharreko erronkak eta lehentasunak ezartzen ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak antolatu eta ahalbidetzeko helburuarekin gauzatu beharko diren arauzko eta/edo gizarte-arloko aldaketak aztertzen ditu. Hortaz, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planak nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren gizarteratze aktiboaren inpaktuari egiten dion ekarpenaren berri eman behar du, eta kalteberatasun-egoeren gainean duen ikuspegi integraletik eta multidimentsionaletik Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko Legearen printzipioei nola erantzun dien azaldu beharko du.

Hurrengo idatz-zatietan, gauzatzea egokitzen jotzen diren eta gauzatuko diren planari buruzko ebaluazio eta jarraipen motak deskribatzen dira. Oro har, metodologia- eta kontzeptu-gida gisa erabiliko da Eusko Jaurlaritzaren Politika Publikoaren Ebaluazio Gida⁶⁰.

3.3.1.

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ebaluazioa: erabilgarritasuna, motak eta ebaluazio-irizpideak

Jardun-plan publiko bat nola ebaluatuko den erabakitzeke unean, oso garrantzitsua da ebaluazio horretatik espero den erabilgarritasuna kontuan hartzea, era horretan galdera horri erantzunez prozesuan egin beharreko ahaleginak lehenetsi ahal izateko. Oro har, ebaluazio baten erabilgarritasuna bere potentzialtasunean oinarritzen da:

- Politika publikoen plangintzaren eta formulazioaren etorkizuneko garapenerako erabilgarriak izan daitezkeen iraganeko jardueri edo oraindik gauzatzen diren jardueri buruzko informazioa ematea.
- Interes publikoko erabakiak hartzea ahalbidetzea, eta arreta lortu nahi diren helburuen gainean jartzeko baliagarri izatea.
- Administrazio-kontroleko, legezkotasuneko eta finantza-arloko mekanismoak hornitzea.
- Programen edo proiektuen inguruko akatsak detektatzeko eta zuzentzeko lanean laguntzea.
- Hasitako jardueren egokitasuna balioesteko eta egikaritzean eraginkortasuna hobetzeko formak aurkitzeko tresna gisa balio izatea.

Politika publikoen ebaluazioaren sailkapen ezberdinak egiten diren arren, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planari dagokionez egingo diren ebaluazioetan kontuan hartuko dira ebaluazioa egiten duen agentea, ebaluazioaren funtzioa, edukia eta denbora-ikuspegia.

Ebaluazioa egiten duen agenteari dagokionez, barne- eta kanpo-ebaluazioa konbinatzea eraginkorragoa dela uste dugu, hau da, langile propioekin eta kanpoko langileekin osatutako ebaluazio-talde batek osatutako **ebaluazio misto** bat sortzea.

Ebaluazioaren funtzioaren arabera, **prestatuntza-ebaluazio** bat hautatzen da, horren helburua izanik informazioa ematea autoikaskuntza-prozesu baten bitartez ebaluatutako programa edo politika hobetzeko. Hori ez da oztopo, planaren neurrien gaineko ardura duten erakundeek egokitzen jotzen badute, unean-unean ebaluazioa batzailea izateko, era horretan programa edo esku-hartze publiko jakin bat eteteko edo horrekin jarraitzeko erabakiak hartuz.

⁵⁹ AEVAL (lurraldekoa eta Herri Administrazioa). Iturria: http://www.aeval.es/es/evaluacion_de_politicas_publicas/que_es_la_evaluacion/

⁶⁰ Eusko Jaurlaritzaren Politika Publikoaren Ebaluazio Gida. Koordinazio Zuzendaritza (Lehendakaritza), eta Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoko Zuzendaritza (Justizia eta Herri Administrazio Saila).

Ebaluazioak erreferentzia egiten duen politika publikoa egikaritzeko unearen arabera, ex-ante, tarteko eta ex-post ebaluazioen artean bereizten da. Gizarteratze Aktiboko Euskal Planari dagokionez, hiru ebaluazio motak egitea aurreikusten da.

Ex-ante ebaluazio bat, politika publikoa gauzatu aurretik egiten dena. Horren helburua da adierazitako premien eta politika publikoaren arrakasta-aukeren arteko egokitasuna aztertzea; plangintzaren, kudeaketa-mekanismoen eta informazioa biltzeko diseinatutako jarraipen-sistemaren barne-koherentzia aztertzen da, baita programan aurreikusitako emaitzak eta inpaktuak ere.

Tarteko ebaluazioa politika publikoaren egikaritze-fasean «bide erdian» gauzatzen da; Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren kasuan, 2014. urte amaieran egitea aurreikusi da. Ebaluazio mota horretan aztertzen da lortu nahi diren helburuak lortzen ari diren ala ez, erabiltzen den estrategiaren baliozkotasunari buruz erabakitzeke, eta arreta jartzen da lortu nahi denaren eta lortu denaren artean ikusitako aldean zergatian, azken emaitzen lorpenari buruzko aurreikuspen bat eginez.

Ex-post ebaluazioa programa amaitu ondoren gauzatzen da, epai bat emateko esku-hartze publikoaren arrakastari edo porrotari buruz, errealtaterak egokitzeko duen gaitasunari buruz, eraginkortasunari eta efizientziari buruz, eta aplikatutako kudeaketa- eta jarraipen-mekanismoen egokitasunari buruz, eta lortutako emaitzei eta inpaktuei buruz.

Ebaluazio horiek, Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana diseinatzearen eta egikaritzearen barruko une ezberdinetan aurreikusiak, informazio-iturri bat izan behar dute Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legeak ezarri dituen jarraipen-txostenetarako, bereziki urteko txostenetarako eta azken txostenerako, hurrengo idatz-zatietan zehaztuko den moduan.

Azkenik, ebaluazioaren edukiaren arabera, lau ebaluazio mota bereizi daitezke:

- **Diseinu-ebaluazioa**, programaren diseinua eta kontzeptualizazioa aztertu eta balioesten duena (esku-hartzearen arrazionaltasuna eta koherentzia). Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren kasuan, ebaluazio hori ex-ante ebaluazioaren barruan txertatzen da.
- **Prozesuaren edo kudeaketaren ebaluazioa**, programa egikaritzeko modua aztertzen duena diseinuari, egikaritzeari, jarraipenari eta ebaluazioari dagokionez, helburuen lorpena (eraginkortasuna) balioetsiz eta kostua aztertuz denborari eta baliabideei dagokionez (efizientzia).

— **Emaitzen ebaluazioa**, gauzatutako jardueren ondorioz egindako produktuak aztertzen dituen, erabilitako baliabideei dagokionez, eta lortutako emaitzekin lotuta, programak edo politikak izan duen kostuan arreta jarritz.

— **Inpaktuaren ebaluazioa**, politika publikoen jasotako premien gainean esku-hartzeak dituen ondorio orokorrak eta epe luzekoak balioesten dituen.

Edukiei begira —diseinua, prozesua, emaitzak eta inpaktua— Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ebaluazioaren irismenari dagokionez, hasiera batean aurreikusten da lau alderdiei buruzko balioespen-epaiak eman eta ebaluatu ahal izango direla.

Hala ere, litekeena da ebaluazio horiek ez aplikatzea modu homogeenan eta sistematikoki Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren helburu eta neurri guztietan, inplikaturiko neurrien, erakundeen eta planen izaerarekin lotutako hainbat zailtasunen eraginez, besteak beste. Hala, neurri batzuei dagokionez, gerta liteke ebaluazioa jardunen egikaritze finantzarioa eta fisikoa (aurrerapen-egoera) neurtzera mugatzea; beste kasu batzuetan, horretaz gain, egingarria izango da jardueren bitartez lortutako emaitzak balioestea, eta, azkenik, ahal denean, inpaktua neurtzen saiatuko dira.

Azkenik, ebaluaziorako, politika publiko bat zehazten duten faktoreak aztertu behar dira, eta faktore horiek **ebaluazio-irizpide edo ebaluazio-printzipio** gisa agertzen dira. Hiru irizpide-mota bereiz daitezke, helburuak idaztearekin, lorpen-mailarekin edo helburuak lortzeko bitartekoak erabiltzearekin lotzen diren arabera.

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planari eta haren ebaluazio-irizpideei dagokionez, erreferentziatzeko dokumentua berriz ere Eusko Jaurlaritzaren Politika Publikoen ebaluazio Gida da. Hala, ahal izanez gero, honako hauek aztertuko dira:

- Garrantzia (diagnostikoaren kalitatea eta egiazkotasuna).
- Egokitasuna (helburuk formulatzea eta horien produktu argiak eta zehatzak).
- Barne-koherentzia (helburuen hierarkiaren analisia).
- Kanpo-koherentzia (ebaluatutako politikaren eta bestelako planen arteko bateragarritasun-maila eta sinergia).
- Eraginkortasuna (helburuak zein mailatan lortzen diren).
- Efizientzia (finantza-baliabideen, giza baliabideen eta baliabide materialen erabilera efizientea).
- Iraunkortasuna (emaitza iraunkorrak programa amaitu ondoren).
- Lortutako emaitzen berdintasuna.

3.3.2.

Antolamendu-egiturak eta agenteak Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren koordinazio, jarraipen eta ebaluazioarekin lotuta

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak bermatzeko Euskal Sistemaren planifikazioa eta garapena izeneko tituluan, gizarteratze aktiboko politiken plangintza eta jarraipena egiteko ardura duten erakundeak zehazten dira.

Horren haritik, Eusko Jaurlaritzak gizarteratzearen arloan dituen eskumenak, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailaren bitartez, asko dira, aipatutako legearen 86. artikuluan ezartzen denez, hain zuzen ere legearen garapen-arauak lantzeko eta onartzeko funtzioak aitortzen baitzaizkio, baita gizarteratzeko plana onartzeko eta egikaritzeko baliabideak eta bitartekoak ezartzeko ere, planaren bosturteko ebaluazio bat egiteko, etab.

Hala ere, administrazio arteko, sail arteko eta partaidetzako beste organo batzuk daude erantzukizun-eremu garrantzitsuetan eskumenak dituztenak, Gizarteratze Aktiboko Plana lantzearekin lotuta, beste plan eta jardun publiko batzuekiko koordinazioarekin lotuta, eta jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotuta.

Zehazki, **Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea**, adierazitako legearen 94. artikuluaaren arabera, lankidetzarako erakunde nagusi gisa eratzten da euskal herri-administrazioen artean, Lege horretatik eratorritako jardunetan erakunde arteko koordinazioa bermatzeko helburuarekin. Gizarteratze Aktiboko Euskal Planari dagokionez, 95. artikulua hainbat funtzio zehazten ditu: adierazitako planaren proposamena lantzea, gizarteratzearen arloan erantzukizuna duten euskal herri-administrazioen aldetik onartzen dituzten plan eta programa guztien berri jasotzea, etab.

Era berean, **Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea**, aipatutako Legearen 96. artikuluaaren arabera, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze-gaietan egiten dituen jarduerak koordinatzeko organo gisa eratzten da, eta gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko eskumena duen sailari atxikita egongo da. Bere funtzioetako askok zuzeneko harremana dute Gizarteratze Aktiboko Euskal Planarekin; adierazgarri gisa, horietako bi aipatzen ditugu: a) Bazterkeriaren aurka borrokatzeko esku-hartzeen edo jardunen aplikazioa aztertzea, hala badagokio bazterkeria-egoerek biltzen dituzten arazoen tratamendurako proposamen berriak aztertuz, eta b) sailek Gizarteratzeko Euskal Plana egikaritzeko oinarritzko lerroak proposatzea, gizarteratzera bideratutako sailen programen bitartez.

Azkenik, **Gizarteratzeko Euskal Kontseilua** kontsulta eta partaidetza izaerako organo bat da, eta honako hauek ordezkatzeko ditu: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, tokiko erakundeak, erakunde sindikalak, enpresa-erakundeak, gizarteratzeko euskal sistemaren erabiltzaileak, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko

erakundeak, eta gizarteratzearen arloko profesionalak. Organo horren funtzioak aipatutako legearen 98. artikuluan jasotzen dira, eta horien artean biltzen da planei eta legezko arauari dagokienez txostenak nahitaez eta aldez aurretik egitea. Planen jarraipenarekin lotutako funtzioari dagokionez, Gizarteratzeko Euskal Kontseiluari esleitzen zaio gomendioak emateko funtzioa, Gizarteratzeko Planaren egikaritzearen urteko jarraipen- eta ebaluazio-txostenaren bitartez, eta garatu beharreko jardunei buruzko proposamenak egingo dizkie Eusko Jaurlaritzari eta gainerako organo eta erakunde publiko eta pribatuei.

Azken batean, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren jarraipenean eta ebaluazioan, deskribatutako antolamendu-egiturek, beren funtzioekin, gizarteratzean inplikaturiko euskal administrazio eta erakunde guztien partaidetza eta epai aditua ahalbidetzen dute.

18/2008 Legean ezarritako antolamendu-egitura horri jarraiki, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren 6. helburu estrategikoan —«Administrazio arteko eta sail arteko koordinazio eta lankidetzarako multisistema modu egonkorrean artikulatu eta sustatzea, baita gobernantza parte-hartzailea ere [...]»— horren aplikazioa bermatzera bideratutako hainbat jardun biltzen dira eta, aldi berean, egitura horien lana errazteko mekanismoak ere ezartzen dira, helburuak beteko direla ziurtatuz.

3.3.3.

Informazioa bildu eta aztertze teknikak eta tresnak

Landa-lanean biltzen dira lehen mailako iturrien bitartez eta ebaluazioaren helburuen arabera egokitutako jotzen diren tekniken eta tresnen bitartez informazioa lortzera bideratutako ekintzak.

Teknika horien artean, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ebaluazioan honako hauek erabiliko dira: adierazle-sistema bat, dokumentu-azterketa, ebaluazio-inkestak, eta elkarrizketak.

Duten garrantziagatik, jarraian **Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ebaluazio-adierazleak** ezaugarriak deskribatzen dira.

Adierazleak aldagai edo faktore kuantitatiboak edo kualitatiboak dira, eta bitarteko erraza eta fidagarria eskaintzen dute lorpenak neurtzeko, politika batekin lotutako aldaketak islatzeko, edo garapen-erakunde baten emaitzak ebaluatzeko laguntza emateko.

Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planaren egiaztapen-adierazleak planaren garapenean inplikaturiko agente eta erakunde guztiekiko lankidetzarako estuarekin landu behar dira, eta ezarpenean zehar eta indarraldiaren amaieran aurrerapenen frogak lortzeko moduari buruzko baterako hausnarketa baten emaitza izan behar dute.

Horren haritik, adierazi behar da plan hau berriro landu dela 2011n, Enplegu Politika Aktiboak eskualdatzea dela eta, eta Lanbide Euskal

Enplegu Zerbitzuaren etxebizitza-prestazio osagarriaren eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketa-ereduaren aldaketa dela eta; egoera horretan, era berean, sailetako beste plan batzuk edo beste plan autonomiko batzuk oraindik egiteko fasean zeuden.

Ebaluazio moten sailkapen berari jarraiki, hemen neurtu, aztertu eta interpretatuko diren adierazle motak aurkezten dira:

— **Gauzatze-adierazleak**

Politika edo programa bateko jardunen gauzatze finantzarioa (egindako gastuak) eta fisikoa (aurrerapen-egoera) neurtzen dute.

— **Emaitza-adierazleak**

Egindako produktuak kuantifikatzen dituzte.

— **Inpaktu-adierazleak**

Ebaluatutako planak helburu espezifikoaren eta orokorren gainean eta xede biztanleriaren gainean duten eragina neurtzen dute.

Genero-ikuspegia txertatzea eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planarekin bat etortzea sustatzeko, jarraipen- eta ebaluazio-adierazleetatik ateratako datuak sexuaren arabera bereizi beharko dira, eta, ahal den neurrian, egiaztatu beharko dute emakumeek eta gizonen zein neurritan parte hartzen duten planaren neurrietan eta jardunetan, eta, hala badagokio, horien absentsiaren arrazoiak egiaztatu beharko dituzte.

Helburu estrategikoak aintzat hartuta, planaren inpaktuaren analisiak arreta berezia jarri behar du egoera sozioekonomikoan izan duen zuzeneko edo zeharkako eraginean. Horretarako, ezinbestekoa izango da pobrezia-rekin, gizarte-bazterkeriarekin eta enpleguarekin lotutako adierazle klasikoaren aldizkako neurketa egitea.

Adierazleak bildu eta aztertzeko, ezinbestekoa da iturria, irisgarritasuna eta tratamenduaren aldiroketasuna zehazten duen informazioaren kudeaketa-sistema bat baliatzea. Zeregin horretan, garrantzi berezia dauka proposatutako adierazleak edo egiaztapen-baliabideak espezifikoak, neurgarriak, eskuragarriak, egokiak eta denboran mugatuak izatea; SMART adierazleak dira horiek, ingelesezko siglei jarraiki.

Neurrien egikaritze-mailaren berri eta bestelako adierazleen berri ematen duen informazio kuantitatiboaren eta kualitatiboaren bilketa jarraipen-fitxa batekin egingo da, besteak beste honako alderdi hauek jasoko dituen esanbidez: esleitutako aurrekontua, egikaritze-adierazleak, erakunde arduradunak, eta agente laguntzaileak, emaitza-adierazleak, etab.

Jarraian, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ebaluazio-adierazleen proposamen bat biltzen da, planaren helburu orokorren eta estrategikoaren inguruan taldekatuak. Ebaluazioa hasten denean, gerta daiteke egikaritze-, emaitza- eta inpaktu-adierazle berriak identifikatzea.

Pertsona kalteberenei gizarteratzea sustatzea enpleguaren aktibaziotik abiatuta, pobrezia eta gizarte-bazterkeria murrizteko, errenta-maila duina ziurtatuz eta enplega daitezkeen pertsonen enplegu duina lortzeko aukera emanez

ADIERAZLEAK

ARD./LANKIDEAK

Helburu Orokorra

1.1.

Zailtasun handienak dituzten pertsonen intentsitate handi-goko laguntza pertsonalizatua ematea; erreferentziarako aldi horretan pertsona horiek lortuko dituzten baliabideen gutxienezko kopuruan gauzatuko da laguntza hori

- Enplegu Politika Aktiboen adierazleak neurketen edo jardunen arabera.
- Gizarteratze Aktiboko hitzarmena duten lagunen kopurua.
- Enplegu Akordio Pertsonala duten lagunen kopurua.
- Lanbideren baliabide bat baino gehiago baliatzen duten enplegarritasun baxuko lagunen %-a.
- Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten (zehaztu Lanbide, Hiruko Fundazioa, Hobetuz) enplegarritasun baxuko lagunen %-a.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren espedienteen hileko batez besteko kopurua eta hileko batez besteko gastua.
- Etxebizitza-prestazio osagarriaren espedienteen hileko batez besteko kopurua eta hileko batez besteko gastua.
- Gizarte Larrialdiko Laguntzen espedienteen hileko batez besteko kopurua eta hileko batez besteko gastua.
- Laneratzeko zailtasun handiagoak dituzten langabeen eta lan-merkatutik aldenduagoak dauden lanbide-erloto prestakuntza, orientazioa eta laneratzeko lehenesteko neurriak (EEE).
- Enplegu Zerbitzuek artatutako pertsonen dibertsitatea kudeatzeko neurriak (EEE).
- 20-44 urteko emakumeen enplegu-tasa eta jardura-tasa (EEE).
- 55-64 urteko taldearen enplegu-tasa (EEE).
- Desgaitasuna duen biztanleria aktiboaren jardura-tasa (EEE).
- 16-44 urtekoen jardura-tasa.
- Biztanleria aktibo atzeritarraren jardura-tasa eta enplegu-tasa (EEE).
- Enplegurako Akordio Pertsonalak dituzten langabe desgaituen kopurua.
- Gizarteratze Aktiboko Hitzarmena duten langabe desgaituen kopurua.
- Enplegura sustatzeko programetan parte hartzen duten langabeen kopurua.
- Prestakuntza eta/edo gizarte- eta lan-orientazioa jasotzen duten adingabe arau-hausleen kopurua.
- Enplegurako aktibazioko programetan parte hartzen duten adingabe arau-hausleen kopurua.
- DBE jasotzen dutenen langabezia-tasa.
- Kide aktibo guztiak langabezian dituzten etxeko unitateen %-a EAE.
- Lan-merkatutik urrun dauden pertsonen lan-aktibazioa eta lanerako laguntza.
- Iraupen luzeko langabeentzako aktibazio-neurriak.
- Pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten etxeko unitateen %-a, gurasoen kargurako seme-alabak dauzkaten guztizko etxeko unitateei dagokienez.

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila:
 - Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza.
 - Lanbide EEZ.
 - Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
 - Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza.
- Justizia eta Herri Administrazio Saila:
 - Justizia Zuzendaritza.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila:
 - Lanbide Heziketako Zuzendaritza.

	ADIERAZLEAK	ARD./LANKIDEAK
Helburu Orokorra 1.4. Enpleguan pobrezia garatzeari aurrea hartzea, enpleguaren kalitatea eta iraunkortasuna areagotuz	— DBE espedienteen kopurua urtean. — DBE urteko gastua. — Ezkutuko enplegua murrizten duten eta hondotik ateratzen laguntzen duten neurrien kopurua (EEE). — Urtean deitutako lanbide-gaitasunak egiaztatzeko prozesuen kopurua. — Gaitasunak egiaztatzeko izena eman duten pertsonen kopurua eta deialdiko plazak. — Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonak eta/edo premia bereziak dituztenak, gaitasunak egiaztatzeko prozesuetan parte hartu dutenak. — Lan-egiaztapenaren bitartez beren lehen lanbide-kualifikazioa lortzen dutenen kopurua. — Emakume kalteberenen gizarte- eta lan-arloko hobekuntzarako ekintzak. — Gazteei zuzendutako enplegu-aktibazioko neurriak. — Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden gazteei zuzendutako enplegu-aktibazioko neurriak. — Enplegurako aktibazioko programetan parte hartzen duten gazteen kopurua. — Justizia Zuzendaritzarekin, Gizarte Zerbitzuekin eta Lanbiderekin lankidetzaren protokoloa lantzea, espetxeratutako biztanleria laneratzeko ibilbideak diseinatzeko. — Gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzu espezializatuen bitartekotzarekin, biztanle espetxeratuen gizarteratzeko ibilbideetan sartutako pertsona epaitu eta espetxeratuen kopurua. — Prestakuntzako eta gizarteratze eta laneratzeko ibilbide batean sartutako espetxeetako biztanleriaren %-a.	— Lanbide EEZ. — Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. — Lanbide Heziketako Zuzendaritza. — Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza. — Justizia Zuzendaritza.

HELBURU ESTRATEGIKOA 2

Gizarte Zerbitzuetatik gizarteratzea sustatzea aktibazioaren bitartez, pertsona, familia eta talde guztien gizarte-integrazioa, autonomia eta gizarte-ongizatea errazteko egitekoaren barruan, prebentziozko eginkizun sustatzaile, babesle eta laguntzailea garatuz, hainbat prestazio eta zerbitzuren bitartez (zerbitzu pertsonalak eta harreman-zerbitzuak, bereziki), eta eskaintzen dituzten zerbitzuak indartuz kalteberatasun-egoeretan, arrisku-egoeretan eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeretan

ADIERAZLEAK

ARD./LANKIDEAK

Helburu Orokorra 21. Gizarte-babeseko bestelako sistematik koordinazioa hobetzea; gizarte-zerbitzuen sistemaren, enplegu-sistemaren eta diru-sarrerak bermatzeko sistemaren arteko koordinazioa; espazio soziosanitarioa sortzea; ikastetxeekin sarean lan egitea; beste sistema batzuekiko koordinazioa (justizia, etxebizitza, garraioa, eta abar)	— Gizarteratzeko jardunak, Lanbideren eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazioa lantzen dutenak. — Lanbideren lankidetzak-neurriak gizarte-sistema guztiekin (EEE). — Enplegu politika aktiboek politika pasiboekin eta gizarte-babeseko politikekin duten lotura indartzeko neurriak (EEE). — Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema bat izatea. — Gazte Justiziaren eta Gizarte Zerbitzuen arteko lankidetzak-protokoloa adingabe arau-hausleak gizarteratzeko. — Neurri judiziala bete ondoren tokiko Gizarte Zerbitzuetara bideratutako adingabe arau-hausleen kopurua. — Gazte Justiziaren eta foru Gizarte Zerbitzuen arteko lankidetzak-protokoloa gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzeko. — Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden emakumek gizarteratzeko neurriak (etxebizitza, familia, osasuna, hezkuntza, segurtasuna, justizia, gizarte, enplegua, eta abar). — Gizarte-bazterkeria prebenitzeko neurrietan parte hartzen duten emakumeen kopurua. — Gizarte-bazterkeriako eta pobrezia-egoeraren adierazleen balioak murriztea emakumeen artean. — Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden kolektiboen arreta soziosanitariorako plana. — Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden hainbat kolektiborentzako arreta soziosanitariorako protokoloak — Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen arreta soziosanitariorako gizarte- eta hezkuntza-arloko neurriak eta jardunak.	— Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. — Lanbide. — Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. — Emakunde. — Justizia Zuzendaritza.
Helburu Orokorra 22. Erabiltzaileak gizarteratzeko aukera eta erabiltzaileen autonomia sustatzea, eta elkartasunetik bideratutako partaidetza soziala bultzatzea, agente, erakunde, entitate, elkarte eta pertsona guztien erantzukizun sozialaren eta konpromisoaren eredu bat sortuz	— Esku-hartze Sozialeko Proiektuak 649/2009 Dekretuaren babesean diruz lagundutako komunitateekin, pertsonekin, familiekin eta taldeekin. — EAEn parte-hartze soziala sustatzen duten proiektuak. — Emakumeen ezkutuko enpleguaren aurka borrokatzeko jardunak eta/edo proiektuak. — Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden emakumeen partaidetza zehazki babesten duten proiektuak.	— Lanbide. — Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza. — Emakunde. — Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza.

	ADIERAZLEAK	ARD./LANKIDEAK
Helburu Orokorra 23. Arreta pertsona kalteberenen premietara egokitzea: Gizarte Zerbitzuen eskatzaileek eta bestelako esku-hartze eremuetako eskatzaileek eskatzen duten laguntzaren intentsitatea ezartzen laguntzen duten tresna komunak sortzea	— Gizarte-zerbitzuetako erabilera orokorreko gizarte-diagnostikorako tresna tekniko normalizatuak. — Gizarte-bazterkeriako adosturiko balioespen-irizpideak, eta eskatutako gizarte-laguntzaren intentsitatea zehazteko eta gizarte-zerbitzuetara sartzeko irizpideak. — Atzeritarren eta etxeko indarkeriako zerbitzuen ofiziozko txanden arteko koordinaziorako mekanismoa. — Gizarte-bazterkeriako faktoreen analisi kritikoa balioespen-tresna teknikoetan: bazterkeria juridikoa faktore gisa. — Marjinazioaren aurkako prebentzioko eta esku-hartze sozialeko programak eta neurriak. — Diru-sarrerak bermatzeko politika pertsona gazteei egokitzeko neurriak. — Atzerriko adingabe arau-hausleak gizarteratzeko baliabideak eta neurriak. — Esku-hartze soziala eta/edo aholkularitza jasotzen duten adingabe arau-hausleen %-a. — IKTen erabilera %-a sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. — Asebetetze maila ekipamenduei eta garraio publikoari dagokionez, sexuaren eta bizilekuaren arabera.	— Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza. — Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza. — Gazteria Zuzendaritza (Kultura). — Justizia Zuzendaritza. — Emakunde.
Helburu Orokorra 24. Haurren babesgabetasun-egoeren prebentzioa sustatzea familia-begiratzearen eta esku-hartzearen inguruko programen bitartez	— Gurasoen trebakuntzarako programak eta/edo jardunak. — Prebentzioko familia-arloko esku-hartzerako zerbitzuak. — Haurren babesgabetasunaren prebentziorako programa eta neurri integralak, hainbat sailen bitartez eskainiak. — Gazte arau-hausleak hartu eta bideratzeko protokoloen betearazpena. — Nerabe arau-hausleekin esku hartzeko eta/edo horien adopzioan laguntzeko programetan artatutako familien kopurua. — Babesgabetasunaren eta bazterkeriaren prebentziorako programetan dauden familien kopurua. — Arrisku egoeran edo babesgabetasuneko egoeran dauden nerabeekin esku hartzeko programetan dauden familien kopurua. — Psikologia- eta hezkuntza-arloko eta familia-orientazioko programetan dauden familien kopurua. — Familia-begiratzeko trebakuntza-programetan dauden familien kopurua. — Drogen eta jokoan ondorioz arrisku-jokabideak dituzten seme-alabentzako baliabideetan edo zerbitzuetan artatutako familien kopurua.	— Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza. — Justizia Zuzendaritza.

HELBURU ESTRATEGIKOA

3

Aktibazioaren bidezko gizarteratzea sustatzea hezkuntzatik abiatuta bizitza guztian zehar

	ADIERAZLEAK	ARD./LANKIDEAK
Helburu Orokorra 3.1. Eskola uztearen murriztapena sustatzea, gizarte-bazterkeria prebenitzeko funtsezko elementu gisa	— DBHko edo LHko erdi-mailako ikasketetara sartzen diren HLPPetako ikasleen %-a (16-18 urte). — 1. mailako ziurtagiria lortzen duten HLPPetako ikasleen kopurua. — Urteko deialdiak lanbide-gaitasunak egiaztatzeko. — Eskola-uztearen urteko indizea (EEE). — Hezkuntza-uzte goiztiarreko tasa (EEE). — Gehieneko ikasketa-maila gisa DBHko graduatu-titulua duten eta horren ondoko ikasketarik edo prestakuntzarik jaso ez duten 18-24 urtekoen eskola-uztearen %-a. — 16 urtetik beherako biztanleriaren eskola-uztearen %-a (DBH amaitu aurretik). — Prestakuntza-prozesuetan parte hartzen duten 25-64 urteko biztanleriaren %-a (EEE). — Prestakuntza jaso duten irakasleen %-a. — Biztanleria helduaren ikasketa-maila EAEn (EEE). — Eskolatzeko-tasak adinaren eta hezkuntza-etaparen arabera EAEn (EEE).	— Hezkuntza Saila: • Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza. • Ikastetxeen Zuzendaritza. • Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza. • Lanbide Heziketako Zuzendaritza. — Justizia Zuzendaritza. — Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza.
Helburu Orokorra 3.2. Eskolatzeko eta gizarteratzea bultzatzea, hezkuntza-erantzunak pertsona guztietara egokituz	— Helduen Hezkuntza ikastegietako ikasleen kopurua. — DBHko graduatu-titulua lortzen duten HHletako ikasleen kopurua. — DBHko graduatu-titulua lortzeko HHletan matrikulatutako atzerriko ikasleen kopurua. — LHko erdi-mailako eta goi-mailako sarrera libreko azterketen kopurua (HHletan ematen da). — HHletako atzerriarrentzako gaztelaniako taldeetan matrikulatutako ikasleen kopurua. — Interpreteen hezkuntza Zerbitzuen artatutako ikasleen kopurua urte bakoitzeko. — Eskolatzeko eta gizarteratzeko neurriak, jarduerak, esperientziak eta jardunbide egokiak. — Kalitate-estandarren arabeko kudeaketa-eredu bat hartu duten LHko zentroen %-a (EEE). — Hezkuntza-zerbitzuen hobekuntzako eta kalitateko komunikazio- eta prestakuntza-ekintzetan emandako ordu-kopurua (EEE). — Orientatzailearen figura edo pedagogia terapeutikoko profesional bat duten EAEko ikastegien kopurua. — Bizitza osoan ikastea sustatzeko eskualdeko proiektuak. — HHletako ikaskuntza-komunitateak haur-hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleen ahaideen partaidetzarekin.	— Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza. — Justizia Zuzendaritza. — Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza. — Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza.

	ADIERAZLEAK	ARD./LANKIDEAK
Helburu Orokorra 4.1. Gizarte-laguntzarekin lotutako zerbitzuen arteko koordinazioa eta saltzeko eta alokatzeko etxebizitzaren funtzionamendua hobetzea	— Etxebizitza Prestazio Osagarriko laguntzen koordinazioa eta kudeketa hobetzeko neurriak, Enpleguaren eta Etxebizitzaren arteko topaketaren emaitza gisa.	
Helburu Orokorra 4.2 Behar duten pertsona guztiek behar bezalako baldintzetan dauden etxebizitzetarako sarbidea izan dezaten sustatzea	— Gizarte-zerbitzuen, etxebizitzaren eta enplegu-zerbitzuen arteko koordinaziorako neurriak, etxebizitza-premiei eta EPOko gastuaren premiei erantzun eraginkorragoa emateko. — Etxebizitzarik gabeko pertsonetako asistentzia-baliabideak eta esku-hartze soziala hobetzeko neurriak. — Gizarte-politketara bideratutako etxebizitzaren inbentario bat sortu eta etengabe eguneratzea erakunde arteko lankidetzarekin. — Etxebizitzarik gabeko pertsonentzako (utzarazpenak, biktimak, dibortziatuak, eta abar) harrera-etxebizitzaren eta gizarteratzeko etxebizitzaren Sare baten barruan dauden etxebizitzaren kopurua. — Infraetxearen, asentamenduen eta gainokupazioaren aurkako programa espezifikoak. — Genero-indarkeriaren biktimak diren eta etxebizitza-premiak asebetek dituzten emakumeen tasa, bertakoak eta atzerriarrak. — Alokairu babestuko etxebizitzak esleitzeko prozeduren erregulazioa aldatzea, sarreran lehentasuna emanaz etxebizitza-premia bereziak dituzten kolektiboak. — Biztanle atzerriarren %-a Etxebiden izena eman duten guztien gainean. — Bizigune alokairu babestuko etxebizitzetarako sarbide-tasa immigranteen eta bertako biztanleriaren artean. — Etxebizitzako eta Hiri Berrikuntzako Planaren barruan alokairuko etxebizitzetarako eta zuzkidura-alokamenduko etxebizitzetarako sarbide-tasa immigranteen eta bertako biztanleriaren artean. — Alokairuko etxebizitza berrien esleipendunak diren biztanle etorkinen %-a esleipendun guztien gainean.	— Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. — Lanbide EEZ. — Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza. — Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza. — Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. — Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza. — Justizia Zuzendaritza. — Emakunde-Idazkaritza Nagusia. — Foru Aldundiak. — Udalak.

HELBURU ESTRATEGIKOA

5

Gizarteratze aktiboa sustatzea osasunetik, honako helburu hauek dituzten neurriak eta ekintzak ezartzearen bitartez: berdintasuna osasun-zerbitzuekiko sarbidean, gizarte-bazterkeriako egoeren prebentzioa, eta gizarteratzearen eremuan inplikaturiko agenteekiko koordinazioa

ADIERAZLEAK		ARD./LANKIDEAK
Helburu Orokorra 5.1. Osasun-zerbitzuak ematearen eta gizarteratze aktiboaren alorrean inplikaturik dauden agenteen koordinazioa sustatzea	— Gizarte- eta osasun-arloko jardunak gaixo-talde espezifikoei (kronikoak, mentalak, adikzioak, etab.)	
Helburu Orokorra 5.2. Pertsona guztiek osasun-zerbitzuak eskuratzeko aukera baldintza berdinetan dutela bermatzea	— Bazterkeria-arriskuan dauden taldeei osasun-zerbitzuetarako sarbidea ahalbidetzeko neurriak.	— Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. — Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. • Osasun eta Kontsumo Saila. — Droga Gaietako Zuzendaritza. — Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritza. — Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazio Zuzendaritza. — Osasun Publikoko Zuzendaritza. — Osakidetza.
Helburu Orokorra 5.3. Osasun-zerbitzuetatik gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzea	— Osasun-arloko neurriak desberdintasunak saihesteko osasunean, eta gizarte-bazterkeria prebenitzeko. — Gizarte-bazterkeria prebenitzeko osasun-arloko neurriak baliatzen dituen biztanleriaren ehunekoa.	

HELBURU ESTRATEGIKOA

6

Modu egonkorrean artikulatzea eta administrazioen arteko eta sailen arteko koordinazio eta lankidetzaren multisisistema sustatzea, baita gobernantza parte-hartzailea ere, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetearren

	ADIERAZLEAK	ARD./LANKIDEAK
Helburu Orokorra 6.1. Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren eta biztanleria-talde kalteberen gizarteratze aktiborako jardunak txertatzen dituzten plan eta ekimenen arteko koordinazioa bermatzea, gizarteratze aktiboaren esparruan metaturiko aurrerapausoak eta esperientziak aprobetxatzeko	— Gizarteratzeko Sail arteko Batzordearen bilera kopurua urtean. — Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen bilera kopurua urtean. — Gizarteratze sailen arteko koordinaziorako proposamenak. — Sail arteko Batzordearen proposamenak gizarte-bazterkeriaren aurkako jardunetarako. — Erakunde arteko Batzordearen aholkularitza lurralde-eremuko edo tokiko planei edo programei buruz eta/edo foru-eremuko edo tokiko arauari buruz.	— Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. — Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea. — Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea.
Helburu Orokorra 6.2 Gizarteratze aktiboarekin lotutako gaietan eskumenak dituzten eragile publikoekiko koordinazioa, lankidetzaren eta komunikazioa lortzeko mekanismoak ezartzea, pertsonen gizarteratze aktiboa hobetuko duten baterako ekintzak diseinatzeko eta garatzeko mekanismoak ezartzea, enplegu-politika aktiboek politika pasiboekin eta gizarte-babeseko politikekin eta politika pasiboekin duten lotura indartuz	— Lanbideren eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazio-prozedurak. — Esku-hartze sozialaren eta gizarteratzeko eta laneratzeko esku-hartzearen koordinaziorako eta bideratzeko protokoloa. — Esku-hartze sozialaren eta osasun-arloko esku-hartzearen koordinaziorako eta bideratzeko prozedurak. — Lankidetzaren protokoloak Lanbideren eta Hezkuntzaren arteko esku-hartzearen koordinaziorako eta bideratzeko (Lanbide Heziketa, Helduen Hezkuntza, Bizitza osoko ikaskuntza). — Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen koordinazio-prozedurak tokiko erakundeen eta foru-aldundien artean. — Gizarteratzeko helburuarekin elkarren artean lotutako tokiko sareak. — Gazteak heldutasunera eta lan-bizitzara igarotzea ahalbidetzeko neurriak. — Gizarte-laguntzen zerbitzuen eta etxebizitza-parke publikoko zerbitzuen arteko lankidetzaren neurriak. — Etxebizitza Prestazio Osagarriko laguntzen koordinazioa eta kudeaketa hobetzeko neurriak, Enpleguaren eta Etxebizitzaren arteko topaketaren emaitza gisa.	— Gizarteratze Aktiboko Euskal Planean inplikaturiko erakunde guztiak. — Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. — Lanbide. — Gizarte Zerbitzuak. — Gizarteratze Aktiboko Euskal Planean inplikaturiko erakunde guztiak. — Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. — Lanbide. — Gizarte Zerbitzuak.

	ADIERAZLEAK	ARD./LANKIDEAK
Helburu Orokorra 6.3. Babes-sistema guztietako gizarteratze-profesionalen jarduteko estrategia berrien gaineko sentsibilizazioa, prestakuntza eta egokitzapena hobetzea, pertsona bakoitzaren banako premiak ezagutzeko eta Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren hartzaileen esku dauden baliabideen kudeaketa eraginkorra bermatzeko	— Gizarteratze Aktiboko Euskal Planeko zabalpen- eta analisi-ekintza presentzialen kopurua foro teknikoetan. — Gizarteratze Aktiboko Euskal Planeko zabalpen-ekintzen kopurua komunikabideetan. — Gizarteratze Aktiboko Euskal Planeko zabalpen-ekintzen kopurua bitarteko digitaletan. — Dibertsitateari eta parte-hartze aktiboari buruzko prestakuntza-ekintzen kopurua hartzaile-taldean arabera. — Dibertsitateko eta parte-hartze aktiboko prestakuntza ekintzetako parte-hartzaileen kopurua. — Gizarteratzearen arloko sentsibilizazio, prestakuntza eta trebakuntzako ekintzen kopurua hartzaile-taldean arabera. — Gizarteratzearen arloko sentsibilizazio, prestakuntza eta trebakuntzako ekintzetako parte-hartzaileen kopurua hartzaile-taldean arabera.	— Lanbide. — Gizarte Zerbitzuak — Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza.
Helburu Orokorra 6.4. Jarraipen sistematiko bat egitea, funtzionamendu eta koordinazioko mekanismo berrien azken egokitzapen egokia eta sistemaren diseinu iraunkorra sustatzeko	— Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ebaluaziorako kudeaketa-kontrolerako eta informaziorako sistema bat izatea agente interesgarrientzat (7. helburuan errepikatua). — Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ebaluaziorako eskuragarri dauden urteko informazio-eguneratzen kopurua agente interesgarri guztientzat. — Herri Administrazioen txostenak beren Gizarteratzeko planen eta arauen jarraipenari buruz, Erakunde arteko Batzordeari igorriak. — Herri Administrazioen Txostenak gizarteratzeko plan orokorren eta sektorialen ebaluazioari buruz, Euskal Kontseiluari igorriak. — Euskal Kontseiluaren gomendioak Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema hobetzeko. — Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren egikaritzea ebaluatzeko Euskal Kontseiluaren urteko txostena. — Jarraipen Batzordea edo antzeko organo teknikoa izatea Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ebaluaziorako. — Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren bilakaerarekiko asebetetze-maila (informaziorako sarrera, parte-hartzea, ebaluazioaren kalitatea, etab.).	— Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. — Gizarteratzeko Euskal Kontseilua. — Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea.

HELBURU ESTRATEGIKOA

7

Hirugarren sektoreko erakundeek gizarte-bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden kolektiboekin egindako lanaren balioa onartu eta indartzea

	ADIERAZLEAK	ARD./LANKIDEAK
Helburu Orokorra 7.1. Hirugarren sektoreko erakundeek lankidetzaren berrantolatzea gizarte-ratzeko eta laneratze-ko esku-hartze prozesuen kudeaketan, balioa emanez horien jakintzari, egiten jakiteari, eta pertsona horiek ordezkatzeko egiten duten lanari, eta lankidetzaren bidezko lanean sinergiak sustatzea	— Lanbideren eta Gizarte Zerbitzuen lankidetzarekin, esku-hartze prozesuetan parte hartzen duten Hirugarren Sektoreko erakundeek kopurua eta ezaugarriak. — Hirugarren Sektoreak esku-hartze sozialeko ereduaren egindako ekarpena dela-eta aplikatutako hobekuntzak eta nobedadeak.	— Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. • Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. • Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. • Lanbide.
Helburu Orokorra 7.2. Komunikazioko eta informazioko ekintzak garatzea planean eskumena duten erakunde publikoen eta Hirugarren Sektoreko erakundeek eta bestelako agente ekonomiko eta sozialen arteko koordinazioa eta lankidetzaren hobetzea	— Plana aurkezteko gizarte-arloko erakundeekin egindako ekitaldiak. — Elkarriketa Zibileko Mahaiaren bilera kopurua. — Enplegu publikoen, elkarteak, agente ekonomikoak eta sozialen parte-hartzea duten foro teknikoak. — IKTen erabilera Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana hedatu eta azaltzeko. — Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana egitean inplikaturiko agente guztien kontsulta eta partaidetarako gune komun bat sortzea.	— Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. — Enplegu Plangintzako Zuzendaritza.
Helburu Orokorra 7.3. Lankidetzaren bitartez lan egitea, bazterkeria-egoeran dauden edo erortzeko arriskuan dauden pertsonen gizarte-premien, aukeren eta kontribuzioen gainean euskal gizarteak duen ulermena aldatzeko	— Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko politika publikoari dagokien euskal gizarteak duen gizarte-pertzepzioari buruzko azterlanak. — Bazterkeria-egoeran edo hori pairatzeko arriskuan dauden pertsonen dagokien, gizarteak duen gizarte-pertzepzioan Planak duen inaktuaren azterketa.	— Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. — Enplegu Plangintzako Zuzendaritza.

HELBURU ESTRATEGIKOA 8

Diru-sarrerak bermatzeko, enpleguko eta prestakuntzako politikak berritzeko eta horien plangintza estrategikorako txostenak eta azterlanak egitea, aktibaziorako eta laneratzeko lagungarriak diren ikuspegi berriak zehaztuz

	ADIERAZLEAK	ARD./LANKIDEAK
Helburu Orokorra 8.1. Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren fenomenoari buruzko jakintza hobetzea, erabakiak hartzeko garaian eta politika publikoak diseinatu eta ebaluatzeko garaian lagungarri izan dadin	— AROPE adierazle egokituaren erabilera. — GPlan eta PGDIan egindako aldaketak, pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren biurteko jarraipena egiteko. — Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren jarraipenerako beharrezkoa den estatistika-oinarria landu eta baliozkotzea. — Gizarte-bazterkeriako diagnostiko-tresna aplikatzea prestazio-programetan eta gizarteratzeko eta laneratzeko programetan. — Biztanleria-talde kalteberen, horien premien eta bilakaeraren identifikazio-azterlanak. — Krisi ekonomikoak pertsona gazteenen hezkuntza-mailan dituen ondorioen azterketa.	— Lanbide. — Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza. — Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. — Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa. — EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea.
Helburu Orokorra 8.2. EAEn pertsona kalteberenen egoerari —gizartearen, lanaren eta prestakuntzaren arloko egoerari— buruzko jakintza hobetzea, politikak ebaluatzeko, erabakiak hartzeko garaian politika berrietara bideratzeko eta iritzi publikoa, oro har, informatuta eta sentsibilizatuta izateko	— Sektore berriei buruzko eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako enplegu-aukerei buruzko azterlanak eta txostenak. — Lan-merkatuaren erregulazio berriak enplegarritasun baxuko pertsonen gainean dituen efektuei eta bestelako bazterkeria-faktoreei buruzko azterlana. — Kolektibo kalteberei eta enpleguari buruzko azterlanak eta txostenak. — Gizarteratzeari, gizarteratze eta laneratzeari, prestakuntzari eta enpleguari buruzko zabalpen- eta komunikazio-ekitaldiak.	— Lanbide. — Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza. — Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza.
Helburu Orokorra 8.3. Gizarte-berrikuntza bultzatzea, gizarte-ekintzailetza eta gizarte-erantzukizun korporatiboa sustatuz	— Euskadiko gizarte-ekintzailetzari buruzko azterlanak. — Gizarte Erantzukizun Korporatiboari eta finantza sozialki arduratsuari buruzko azterlanak.	— Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. — Gizarte Ekonomiaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritza. — Lanbide.

HELBURU ESTRATEGIKOA

9

Indarrean dagoen arau-esparrua egokitzea, gizarteratze aktiboko prozesuak antolatu eta ahalbidetzeko

	ADIERAZLEAK	ARD./LANKIDEAK
Helburu Orokorra 9.1. Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen hainbat alderdi garatzea, aplikatzen direla ziurtatuz eta erregelamendu bidez erabat garatuz	— Jardun-eremuen arteko koordinaziorako eta bideratzeko protokoloak (Gizarte Zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, hezkuntza-sistema, eta etxebizitza-zerbitzuak). — DBE jasotzen dutenek komunitatearen onurarako egindako lanak erregulatzeko araudia onartzea. — Komunitatearen onurarako lanak egin dituzten DBEko hartzaileen kopurua. — Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea eratzea. — Erakunde arteko Batzordearen erregelamendua onartzea. — Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren erregelamendua onartzea. — Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretua aldatzea. — Etxebizitza Prestazio Osagarriari buruzko 2/2010 Dekretua aldatzea. — Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenei buruzko dekretua onartzea.	— Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. — Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza. — Lanbide.

3.3.4

Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planaren Ebaluazio Txostenak

Ebaluazio-txostena da informazioa, ebaluazioaren emaitzak eta lortutako ondorioak eta gomendioak bildu eta aztertzeko erabilitako teknika eta metodoak jasotzen dituen produktua.

Ebaluazio-taldeak eta Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ebaluazioan eskumenak dituzten organoek ezarriko dute ebaluazio-txostenaren eredia, horren egitura eta oinarrizko edukia zehaztuz. Era berean, Ebaluazio Txostenaz gain, horren txosten exekutibo edo sintetiko bat idatziko da, gertakari eta gomendio garrantzitsuenak biltzeko.

Horren haritik, funtsezkoa da txostenak erabilgarriak eta operatiboak izatea, jardunen balioespena eta ebaluatutako neurriekin eta helburuekin lotutako erabakiak hartzea ahalbidetuz. Horren haritik, deskribapen-informazioak txertatzeaz gain, txostenek analisiak, balioespen-epaiak eta gomendioak gaineratu behar dituzte planaren indarraldiko hurrengo urteetako ekintzarako.

Ebaluazio-txostenen aldiroketasunari dagokionez, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak bere 98. artikuluan Euskal Kontseiluaren funtzio bat ezarri du, hain zuzen ere Gizarteratzeko Planaren egikaritzearen jarraipenari eta ebaluazioari buruzko urteko txosten baten bitartez gomendioak egiteko funtzioa, garatu beharreko jardunei buruzko proposamenak eginez Eusko Jaurilaritza eta gainerako organo eta erakunde publiko eta pribatuei.

Horretaz gain, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren Jarraipen eta Ebaluazioari buruzko idatz-zati honetan arestian zehaztu denez, tarteko txosten bat landuko da 2014an, eta emaitzen txosten bat 2012-2016 aldirako Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren indarraldiaren amaieran.

3.3.5

Ebaluazioaren komunikazioa eta hedapena antolatzea

Informazio-prozesuekin lotutako ahaleginak ebaluazioaren emaitzen komunikaziora murrizten dira normalean. Hala ere, gomendagarria da ebaluazio-prozesuan sortutako informazio-eskaera guztiak asebetetzen dituen Komunikazio Plan bat lantzea.

Komunikazio Planaren irismenak ebaluazio-prozeduraren gardentasuna bermatu behar du, eta parte-hartzaileei eta lotutako agenteei informazio eman behar die egindako lanei buruz. Hala, barne, kanpo eta erakunde-mailako komunikazio-prozesuak definitzen dira, ebaluazioa egitearen helburuen eta arrazoen berri emateko,

bai parte-hartzaileei, bai onuradunei, administrazioiko beste sektore batzuei, eta iritzi publikoari, egindako lanaren balioespena, parte-hartzea, konpromisoa eta aitorpena sustatuz.

Komunikazio Planak zehaztuko du zer komunikatu nahi zaien xede-hartzaile guztiei, baita emaitzak komunikatzeko unea eta modua ere.

Komunikatzeko euskarrien eta bideen hautaketa ebaluazioaren xede-pertsonen egokituak zaie. Hala, urteko ebaluazio-txostenez gain, argitalpenak (liburuxkak, gutunak, albiste-albizkariak, eta abar), mintegiak edo jardunaldiak, lan-bilerak edo tailerrak eta IKTen bidezko informazioa erabiltzea antola daitezke.

Oro har, eta Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren kudeaketa eta ebaluaziorako organo garrantzitsuekiko lankidetzari handiagoarekin⁶¹, egutegi bat landuko da honako hiru fase hauetako bakoitzean helarazi beharreko komunikazio-jardurekin:

1. fasea. Ebaluazio-asmoaren hasierako hedapena inplikaturiko eragileei, ezarritako barne-komunikazioaren bitartez.

2. fasea. Urteko erdi-mailako emaitzak komunikatzera bideratutako ebaluazioaren egikaritza eta jarraipena.

3. fasea. Emaitzen komunikazioa, barne- eta kanpo-komunikazioaren bitartez.

3.3.6

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ebaluaziorako baliabide materialak eta giza baliabideak

LGizarteratze Aktiboko Euskal Planaren helburuen eta jardunen jarraipen- eta ebaluazio-lanetan hainbat erakunde daude sartuak, baita batzordeak eta partaidetza-organismoak ere, eta, aldi berean, Planaren eta bere aurrerapenen nahiz ebaluazioaren emaitzen berri emateko ekintzak biltzen dituzte.

Horren ildotik, lan horien konplexutasuna aintzat hartuta, eta planaren kudeaketa eta jarraipena aurreko planetan zailtasun handienak sortu dituzten neurriak direla ikusita, ezinbestekoa da jartzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak nahikoak izatea.

Zehazki, informazioaren kudeaketako, Planaren zuzeneko ardura duten pertsonen eta, hala badagokio, parte-hartze, jarraipen eta ebaluaziorako zeregin askotan laguntzen duen laguntza teknikoko aplikazio bat izan behar da, bereziki planaren indarraldiko lehen urtean.

⁶¹ Gizarteratzeko Euskal Kontseilua, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea, eta Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea.

3.4. GIZARTERATZE AKTIBOKO EUSKAL PLANAREN FINANTZIAZIOA

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren balioespen ekonomikoa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legean bildutako eskubide subjektiboko prestazioen premiei erantzuteko beharrezkotzat aurreikusten diren baliabide ekonomikoetan oinarrituta egin da, baita 2015. urtera arte egindako aurreikuspen makroekonomikoen arabera ere. Hortaz, prestazio ekonomiko horietara bideratutako aurrekontu-partidek ez dituzte jasotzen 2012rako EAEko Aurrekontu Orokorretan onartutako zuzkidurak, baizik eta behar bezala estaltzeko beharrezkotzat jotzen diren aurrekontu-zuzkidurak.

Lanbide Erakunde Autonomoaren aurrekontuaren zati batek eusten dio enpleguaren aktibazioko helburuan ezarritako jardunen eta programen kostuari. Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planaren egotzitako Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren jardun-eremuetatik —hemen aktibazioko politika aktiboan eta prestazio pasiboan artean sailkatuak—, langileen kostuak eta DBEaren kudeaketa-gastuak ere egozten dira.

Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren kalkulu ekonomikoa, Lanbide Erakunde Autonomoaren edo Enplegu eta Plangintzako Sailburuordetzaren 2012ko aurrekontuekin zentzuzko harreman argia duten Planaren neurriak kuantifikatu dira bakarrik.

GLLko aurrekontu-zuzkidura Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaritzak kudeatzen badu ere, Gizarteratze Aktiboko Euskal Planari egotzi zaio DBE, EPO eta GLL baitira pobrezia-eraginek eta gabezia materialaren inpaktuan eragina duten hiru prestazio ekonomikoak, gutxieneko errenta-maila bermatzeko eta larrialdiko edo premia larriko egoerei aurre egiteko.

Jarraian, 1. helburu estrategikoaren —«Gizarteratzea sustatzea enpleguaren aktibaziotik abiatuta»— xehapena aurkezten da, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren jardun-eremuetan oinarrituta.

2012-2016 ALDIKO GIZARTERATZE AKTIBOKO III. EUSKAL PLANAREN KOSTUAREN KALKULUA

1. HELBURU SEKTORIALA (xehetasuna)	GUZTIRA	2012	2013	2014	2015	2016
1. Gizarteratzea sustatzea enpleguaren aktibaziotik abiatuta	2.668.886.244	530.274.710	539.505.356	539.779.635	536.354.485	522.972.058
Jarduteko eremuak	Guztira	2012	2013	2014	2015	2016
AKTIBAZIO POLITIKAK	556.928.028	103.214.710	112.235.133	112.724.472	113.807.831	114.945.883
Laneratzea ⁶²	87.777.627	16.000.056	19.125.000	17.378.307	17.550.857	17.723.408
Enplegu Sustapena	295.939.360	56.667.773	53.252.252	61.423.722	61.998.445	62.597.167
Tokiko Garapena	46.890.000	10.600.000	13.400.000	7.545.000	7.620.000	7.725.000
Lanerako prestakuntza	122.779.041	19.246.881	25.757.881	25.670.443	25.924.529	26.179.308
Enpresentzako zerbitzua	3.542.000	700.000	700.000	707.000	714.000	721.000
POLITIKA PASIBOAK	2.113.000.000	427.300.000	427.300.000	427.300.000	422.800.000	408.300.000
DBE	1.692.000.000	342.000.000	342.000.000	342.000.000	339.000.000	327.000.000
EPO	334.500.000	68.000.000	68.000.000	68.000.000	66.500.000	64.000.000
GLL	86.500.000	17.300.000	17.300.000	17.300.000	17.300.000	17.300.000
POLITIKAK GUZTIRA	2.669.928.028	530.514.710	539.535.133	540.024.472	536.607.831	523.245.883
Langile-kostua	50.067.000	10.013.400	10.013.400	10.013.400	10.013.400	10.013.400
DBE kudeaketa-kostua	11.651.968	7.401.968	1.250.000	1.000.000	1.000.000	1.000.000
GUZTIRA + langile-gastuak eta kudeaketa-gastuak	2.731.646.996	547.930.078	550.798.533	551.037.872	547.621.231	534.259.283

⁶² Sartu Federazioarentzako eta Peñascal 2012 Fundazioarentzako —Sendotu Programa EAE-EGIF (2007-2013)— aurrekontu-zuzkidura, gizarteratzearen eremuan kontabilizatua, 7. helburu estrategikoan kontabilizatzen du. Horregatik, 240.000 euroko deskoadre bat dago xehatutako taulako politiken guztizkoaren eta 1. helburu estrategikoko guztizkoen artean.

**2012-2016 ALDIKO GIZARATERATZE AKTIBOKO
III. EUSKAL PLANAREN KOSTUAREN KALKULUA**

HELBURU SEKTORIALAK	GUZTIRA	2012	2013	2014	2015	2016
1. Gizarteratzea sustatzea enplegu-aktibazioaren bitartez (langile-gastuak eta DBE kudeaketa-gastuak barne)	2.730.605.212	547.690.078	550.768.756	550.793.035	547.367.885	533.985.458
2. Gizarteratzea sustatzea gizarte-zerbitzuen bidezko aktibazioaren bitartez		Ez dira kuantifikatzen beste plan sektorial batzuetako neurrien gastua				
3. Aktibazioaren bidezko gizarteratzea sustatzea hezkuntzatik abiatuta bititza guztian zehar		Ez dira kuantifikatzen beste plan sektorial batzuetako neurrien gastua				
4. Gizarteratze aktiboa sustatzea etxebizitza-politikatik		Ez dira kuantifikatzen beste plan sektorial batzuetako neurrien gastua				
5. Gizarteratze aktiboa sustatzea osasunetik (...)		Ez dira kuantifikatzen beste plan sektorial batzuetako neurrien gastua				
GUZTIRA SEKTORIALAK	2.730.605.212	547.690.078	550.768.756	550.793.035	547.367.885	533.985.458
HELBURU HORIZONTALAK	GUZTIRA	2012	2013	2014	2015	2016
6. Modu egonkorrean artikulatzea eta sustatzea administrazio arteko eta sail arteko koordinazio eta lankidetzaren multisisistema	167.000	31.000	28.000	40.000	28.000	40.000
7. Hirugarren sektoreko erakundeek gizarte-bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden kolektiboekin egindako lanaren balioa onartu eta indartzea	1.040.000	256.000	76.000	316.000	316.000	76.000
8. Diru-sarrerak bermatzeko, enplegu eta prestakuntzako politikak berritzeko eta horien plangintza estrategikorako txostenak eta azterlanak egitea	319.544	109.333	74.730	45.000	48.240	42.240
9. Indarrean dagoen arau-esparrua egokitzea, gizarteratze aktiboko prozesuak antolatu eta ahalbidetzeko	1.594.544	433.333	203.730	403.000	395.240	159.240
GUZTIRA HORIZONTALAK	3.121.088	829.666	382.460	804.000	787.480	317.480
III. PLANAREN KOSTUA GUZTIRA	2.733.726.300	548.519.744	551.151.216	551.597.035	548.155.365	534.302.938